IMANOL MURUA URIA

Palestina zauritua

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1998 Imanol Murua Uria
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1998ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Bidaia aurreko jakingarriak

Askenaziak eta sefardiak

Askenaziak Europatik eta Ameriketatik etorritako juduak eta haien ondorengoak dira, kultura mendebaldarrekoak orobat. Sefardiak XV. mendean Espainiatik kanporatutakoen ondorengoak dira, gero Afrikan eta Asian barreiatutakoak gehienak. Estatua sortu zenean (1948) israeldarren %80 askenaziak ziren eta, gaur egun erdia eta erdia diren arren, botere politiko eta ekonomikoak askenazien esku segitzen du oso neurri handian.

Autonomiaren eremuak

Zisjordania hiru eremutan banatuta dago. A eremua (zortzi hiri populatuenak, lurraren %3) Palestinako Agintaritzaren esku dago erabat. B eremuan (beste herri gehienak, lurraren %27) eskumen batzuk palestinarrenak dira baina beste batzuk, segurtasuna tartean, israeldarrenak. C eremua (populazio gutxiko lur eremu zabalenak, ko-

lonoen asentamenduak eta gune militarrak; lurraren %70) Israelen mende dago erabat.
Gazan bi eremu daude: gune autonomoa (hiri eta errefuxiatugune palestinarrak, lurraren %66) eta gune israeldarra (asentamenduak eta gune militarrak, lurraren %33).

Biztanleak

Mundu osoko zazpi milioi palestinarretatik milioi eta erdi inguru Zisjordanian bizi dira, ia milioi bat Gazan, 900.000 inguru Israelen eta gainerakoak mundu osoan barreiatuta. Israelgo biztanleak bost milioi dira guztira (4,3 milioi juduak dira).

Errefuxiatuak

Israel sortu zenean (1948) Estatu juduaren mugen barruan gelditu ziren herri palestinarretako biztanle gehienek (milioi bat lagun inguru) ihes egin zuten, inguruetako herri arabiarretara gehienak. Gaur egun ia lau milioi lagunek osatzen dute errefuxiatuen komunitatea (ihes egindakoak eta hauen ondorengoak). Euren herrietara itzultzeko eskubidea aldarrikatu izan dute beti, eta Nazio Batuen Erakundeak ere aitortzen

die eskubide hori. Auzi honi bake negoziazioen azken txanpan ekingo zaio, Osloko akordioetan hitzartu zenez.

Fatah

Jasser Arafat buruzagi duen alderdia da. Palestinaren Askapenerako Erakundearen (PAE) barruko talde indartsuena da, eta gobernu autonomoa (Palestinako Agintaritza) bere esku dago.

Gerrak

Lau gerra egin dituzte Israelek eta inguruetako estatu arabiarrek elkarren aurka 1948tik. Israelen sorrerako gerran (1948) inguruko bost armada arabiarri egin zieten aurre juduek; Sei Eguneko gerran (1967) Egiptori, Jordaniari eta Siriari kendu zizkieten lurrak; Jom Kippurreko gerran (1973) Egiptoren eta Siriaren erasoei egin zieten aurre; Libanoko inbasioan (1982) ia Beirut hiriburuaino heldu ziren tropa israeldarrak.

Hamas eta Jihad Islamikoa

Intifada garaian sortutako alderdi islamista da Hamas, Lurralde Okupatuetako mugimendurik

indartsuena Arafaten Fatah-ren ondoren. Osloko akordioen aurka agertu da hasieratik eta bere beso armatuak, Izz al Din Qassam-ek, atentatu kanpainak egin izan ditu Israelen. Jihad Islamiko-ak Hamasen antzeko jarrera du bake prozesua-ren aurrean eta beso armatua ere badu.

Intifada

Israelen aurka Lurralde Okupatuetan (Gaza eta Zisjordania) 1987an piztutako matxinada herri-koia. Erresistentziako fakzio palestinar guztiek (islamistak, ezkertiarrak, Fatah...) bat egin zuten Intifadako borrokan. Harrika eta, batzuetan, la-banaz egin zieten aurre gazte palestinarrek sol-dadu israeldarrei (suzko armak apenas erabili zi-tuzten palestinarrek). 1.800 palestinar inguru hil ziren Intifada urteetan. Ez dago Intifadaren amaiera data zehatzik, baina esan daiteke 1991. urtean hasi zela itzaltzen, eta bake prozesuaren hasierarekin bukatu zela.

Fronte Popularra eta Fronte Demokratikoa

Palestinaren Askapenerako Fronte Popularra (PAFP) eta Palestinaren Askapenerako Fronte Demokratikoa (PAFD) gerrilla mugimendu gisa

sortu ziren 1960ko hamarkadako bukeran. PAEren sorreran parte hartu zuten 1964an. Osloko akordioen aurka agertu dira bi mugimenduak eta, hauteskundeei boikota egin dietenez, gaur egun duten sostenguari buruzko daturik ez dago. Dena den, esan daiteke garai batean zuten indarra neurri handian galdua dutela mugimendu islamisten mesederako. Sirian daude bi erakundeon zuzendaritzak.

Jerusalemen auzia

Israelek Jerusalem du Estatuko hiriburutzat, baina Nazio Batuek ez diote hori ezagutzen (1947an Jerusalem eremu internazional izendatzea proposatu zuten Nazio Batuek; gainera, Eki Jerusalem ilegalki okupatutako lurraldetzat dute). Nazioarteko Erakundeak Tel Aviv du Israelgo hiriburutzat eta, beraz, munduko estatu gehienek bertan dituzte enbaxadak. Palestinarrek Eki Jerusalem aldarrikatzen dute etorkizuneko estatu palestinarraren hiriburutzat. Negoziatzaileek bake prozesuaren azken txanpan helduko diote Jerusalemen estatusaren auziari, errefuxiatuen arazoari bezala.

Kolonoen asentamenduak

1967an okupatutako Gazan eta Zisjordanian kokagune juduak eraikitzea bultzatu du Israelek okupazio urteaz geroztik. Aurretik ez zen bertan batere judurik bizi, eta gaur egun 300.000 kolono judu bizi dira urteotan eraikitako 200 herri berri hauetan. Gazan eta Zisjordanian estatu palestinarra eraikitzeko oztopo nagusienetakoa kolonoen asentamendu hauek dira.

Osloko akordioak

Oslo I edo Gaza-Jeriko akordioa 1993. urtean sinatu zen: Gazako lerroan eta Jeriko hirian autonomia palestinarra ezartzea eta gainerako lurralde okupatu palestinarren estatusa erabakitzeko negoziazioetan segitzea hitzartu zuten. Oslo II akordioa 1995ean izenpetu zuten: autonomia Zisjordaniako beste zazpi hirietara hedatzea erabaki zen, eta israeldarren eta palestinarren arteko gatazkaren gainerako auziei buruz (asentamenduak, errefuxiatuak, Jerusalem...) negoziatzen segitzeko hitza eman zuten bi aldeek. Akordio hauen abiapuntu izandako elkarrizketa se-

kretuak Norvegiako hiriburuan egin zirelako esaten zaie Osloko akordioak.

Palestinako Agintaritza (PA)
Lurralde Okupatuetako gune autonomoetako gobernua da PA. Jasser Arafat da lehendakari hautetsia, eta Fatah alderdikoak dira ministro gehienak. Gazan du egoitza nagusia. 1994an eratu zen.

Palestinaren Askapenerako Erakundea (PAE)
1964an sortu zen erresistentzia palestinarreko fakzio guztien artean. 1974tik herri palestinarraren ordezkari bakartzat onartu du Nazio Batuen Erakundeak. Gaur egun ere palestinar guztiak ordezkatzen dituen erakunde bakarra da, Palestinako Agintaritzak lurralde autonomoetako palestinarren gain baino ez baitu agintea. Praktikan zail da PAE eta PA bereiztea, bi erakundeon zuzendaritzan jende bera baitago egun; Jasser Arafat da PAEko burua ere.

Presoak

3.500 inguru palestinar daude preso Israelgo espetxeetan. Horietako hirurehun bat preso administratiboak dira, hau da, akusazio jakinik gabe, «segurtasun arrazoiengatik», giltzapean daudenak. Osloko akordioen ondoren 7.500 preso kaleratu zituzten. Palestinako Agintzaritzak ere baditu preso politikoak, mugimendu islamikoetakoak (Hamas eta Jihad) nahiz mugimendu ezkertiarretakoak (Fronte Popularra, batik bat); 50 inguru ziren 1997ko udan, baina kopuru honetan gorabeherak izan dira unean uneko giro politikoaren arabera.

Sionismoa

XIX. mendearen bukaeran Palestinan estatu judua eratzeko helburuz sortu zen mugimendu politikoa. Munduko judu guztiek Israelen bizitzeko eskubidea dutela aldarrikatzen du sionismoak. Izan ere, Israelgo Estatuak ideologia sionista bere egin duenez, judu jatorria duela erakusten duen edonork du Israelgo hiritar bihurtzeko eskubidea.

Kronologia

1004 k.a.
Israelgo Erresumaren lehenengo erregea, Saul, hiltzean, bere suhi Davidek erregetza hartu eta ordura arte kanaandarren esku egondako Jerusalem hiria menderatu zuen bere erresumarako.

993 k.a.
David hiltzean bere seme Salomonek hartu zuen erregetza, eta juduen Lehenengo Tenplua eraiki zuen Moriah mendian. Salomon hil ondoren (931 k.a.), Erresuma erdibitu egin zen: Israelgo Erresuma iparraldean, eta Judeako Erresuma hegoaldean (Jerusalem barne).

722 k.a.
Asiriarrek Israelgo Erresuma menderatu eta bertako bizilagunak ekialdera deportatu zituzten. Juduen diasporaren lehen kapitulua izan zen.

586 k.a.
Babiloniarrek, Nabucodonosor buru zutela, Judeako Erresuma mendean hartu, Salomonen tenplu sakratua suntsitu eta juduak Babiloniara eraman zituzten gatibu.

538 k.a.

Pertsiako erregeak, Zirok, Babiloniako inperioa menderatu zuen, Jerusalem eta Judea barne. Babiloniara eramandako juduei bere lurretara itzultzeko baimena eman zien. Itzulitako lehenengo juduek Bigarren Tenplua eraiki zuten Moriah Mendian.

332 k.a.

Mazedoniako Alejandro Handiak Palestina konkistatu zuen, Pertsiako inperio osoa azpiratzearekin batera.

141 k.a.

Juduek agintea berreskuratu zuten Jerusalemen, Macabeo anaiek gidatutako gerrilla borrokari esker, eta judaismorako zabaldu ziren berriro Bigarren Tenpluko ateak.

63 k.a.

Erromatarrek Palestina menperatu zuten, Ponpeio jeneralaren eskutik. Herodes juduak k.a. 37. urtean hartu zuen Judeako erregetza, enperadore erromatarraren mende beti ere.

33 k.o.

Nazareteko Jesus gurutziltzatu zuten erromatarrek Jerusalemen.

66

Juduak matxinatu egin ziren erromatarren aurka. Zazpi urteko borrokaren ondoren Erromak erabat azpiratu zituen judu altxatuak, eta Tito buruzagi erromatarrak Bigarren Tenplua suntsitu zuen. Milioi erditik gora judu hil ziren matxinada hartan, eta dozenaka mila esklabu eraman zituzten Erromara eta Inperioko beste hainbat lekutara. Juduen diasporaren kapitulu nagusia izan zen hau.

323

Konstantino enperadore erromatarrak kristautasuna legeztatu eta inperioko erlijiotzat hartu zuen. Palestina Lurralde Santu izendatu zuten, eliza eta santutegiak eraiki ziren eta erromes ugariren bisitaleku bilakatu zen.

638

Mahoma hil eta sei urtera, bere oinordeko Omar buru zuen armada arabiarrak Jerusalem hartu zuten musulmanentzat. 691. urtean Haitzaren Kupula (Omar-en meskita) eraiki zuten, juduen tenpluak eraikita egon ziren mendian bertan.

1099

Erromako Aita Santuaren buruzagitzapean gurutzatuen armadak Jerusalem eta Lurralde Santu guztiak mendean hartu eta Jerusalemgo Erresuma sortu zuten kristautasunarentzat. Jerusalem hartzea musulmanen eta juduen sarraski odoltsua izan zen.

1187

Saladinok Jerusalem eta Palestina berreskuratu zituen musulmanentzat.

1517

Inperio Otomanoaren eskuetan erori zen Palestina. Lau mende iraun zuen turkiarren aginteak.

1870

Ekialdeko Europako eta Errusiako juduen zenbait talde, antisemitismoari ihesi, Palestinara etorri eta lehenengo kolono asentamenduak sortu zituzten. *Aliya* edo Palestinarako emigrazioaren hasiera zen.

1897

Palestinan estatu judua sortzea helburu zuen mugimendu sionista sortu berriak Lehenengo Mundu Biltzarra egin zuen Basilean (Suitza). Theodor Herzl zen liderra. *Aliya*-k indarra hartu zuen.

1917

Gobernu britainiarrak Balfour Adierazpena onartu zuen: Palestinan estatu propioa sortzeko eskubidea aitortzen zitzaien juduei, Palestinako herritar ez juduen eskubideak kaltetzen ez baziren beti ere.

1922

I. Mundu Gerra amaituta, Erresuma Batuak Palestina gobernatzeko agindua jaso zuen Nazioen Ligatik. Tropa britainiarrak bost urte lehenago, 1917an, sartuak ziren garaile Jerusalemen.

1937

Dozenaka mila judu europar joan zen Palestinara Hitlerrengandik ihesi. Inmigrazio gero eta ugariagoak istiluak sortu zituen lehendik ere arabiar eta juduen artean, baina urteotako inmigrazio masiboak borroka gogorrak eragin zituen. Arabiarrak juduen aurka altxatu ziren eta juduen erakunde armatu klandestinoek erantzun egin zuten.

1944

Irgun erakunde armatuak, Menahem Begin buru zuela, estatu judua sortzeko matxinadarako deia egin zuen.

1947

Palestina bi estatutan, bata judua eta bestea arabiarra, banatzeko proposamena onartu zuen Nazio Batuen Erakundearen Asanblea Nagusiak. Orobat, juduek ontzat jo zuten proposamena baina arabiarrek ez.

1948

Juduek Israelgo Estatua aldarrikatu zuten maiatzaren 14an eta biharamunean bost estatu arabiarrek eraso egin eta arabiarren eta juduen arteko gerra piztu zen. Estatu judua sortu zen, Gazako lerroa Egiptoren esku geratu zen, eta Zisjordania Jordaniaren esku. Jerusalem Mendebaldea Israelen esku zen, eta ekialdea Jordaniaren esku. Estatu juduen mugen barneko lurraldeetan bizi ziren milioi bat palestinarrek bere lurrak utzi behar izan zituzten. Inguruko lurralde arabiarretako errefuxiatuguneetan lekutu ziren gehienak.

1959

Fatah (Palestinaren Askapenerako Mugimendua) erakunde armatua sortu zuen Jasser Arafatek.

1964

Palestinako erresistentzia mugimenduek Palestinaren Askapenerako Erakundea (PAE) sortu

zuten, estatu palestinarraren sorrera helburutzat hartuz. Liga Arabiarrak herri palestinarraren ordezkari bakartzat onartu zuen PAE urte berean. Nazio Batuen erakundeak 1974an aitortu zuen PAE herri palestinarraren ordezkari.

1967

Israelek Eki Jerusalem, Zisjordania, Gaza, Sinai (Egipto) eta Golan (Siria) konkistatu zituen Sei Eguneko gerran. Urte berean 242. ebazpena onartu zuten Nazio Batuek: lurralde okupatuak itzultzeko eskatu zitzaion Israeli. Geroztik, Nazio Batuen Erakundeak Lurralde Okupatuok ez ditu sekula Israelgo Estatuko partetzat hartu.

1973

Egiptoko Armada Sinaiko penintsulan eta Siriako tropak Golanen sartu ziren, ezustean, Jom Kippurreko jai egun juduan. Hasieran lur asko hartu bazituzten ere, batzuk zein besteak atzera botatzea lortu zuten azkenean israeldarrek.

1979

Bakea hitzartu zuten Israelek eta Egiptok, Camp David-eko akordioa sinatuz. Egiptok Sinaiko penintsula berreskuratu zuen. Estatu juduaren eta estatu arabiar baten lehenengo bake ituna izan

zen. Egipto Liga Arabiarretik kanporatu egin zuten horregatik.

1982

Israelgo Armada Libanon sartu zen, Beirut hiriburuaren atariraino, eta bertan egoitza nagusia zuen Palestinaren Askapenerako Erakundearen indarrak kanporatu zituen. Jasser Arafaten kuartel nagusia Tunisia izango zen aurrerantzean.

1987

Okupazioaren aurkako matxinada herrikoia, Intifada, piztu zen Lurralde Okupatuetan. Lau urte iraun zuen.

1993

Oslo I hitzarmena sinatu zuten Rabin lehen ministro israeldarrak eta Jasser Arafat PAEko liderrak Washingtonen, Clinton lehendakari estatubatuarra bitartekari zutela. Gazako lurraldeen bi herenetan eta Jeriko hiri zisjordaniarrean autonomia palestinarra eratzea hitzartu zuten. Hurrengo urtean Tunisia utzi eta Palestinara itzuli zen Jasser Arafat. Palestinako Agintaritzako lehendakari hautatu zuten.

1995

Oslo II akordioa sinatu zuten Israelek eta PAEk: israeldarrek Zisjordaniako beste zazpi hiritatik erretiratzea eta hauek Palestinako Agintaritzaren pean geratzea erabaki zen. Aurrerago, besteak beste, Jerusalemgo auziari eta errefuxiatuen arazoari buruzko negoziazioak egingo zituztela hitz eman zuten.

1997

Israeldarren eta palestinarren arteko negoziazioak eten egin ziren, israeldarrek Lurralde Okupatuetan asentamendu berriak eraikitzeko egitasmoak bertan behera utzi ez zituztelako, besteak beste.

1998

Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak eta Jasser Arafat Palestinako Agintaritzako buruak negoziazioei berrekiteko akordioa sinatu zuten Wye Plantation-en (EEBB).

Zure segurtasunerako

Hegaldia bostetan da baina ordu bietarako dugu aireportuan egon beharra. Jende serioa dira israeldarrak, esan didate, eta segurtasun zerbitzuan baratzuria baino finagoak lanean. Jende serioa gara euskaldunok ere, hala esaten dugu, eta ordubete lehenago etorri naiz Barajasera, eta El Al hegazkin konpainia israeldarraren salmahaien pareko eserlekuetan jarri naiz.

Bost minutu ez dira pasatu neska ilegorria hurbildu zaidanerako.

– Norbaiten zain? –ingelesez ari zait, Barajasen.

– Hegaldiaren ordua heldu zain.

– Zein konpainiarekin duzu hegaldia?

Kaleko jantzi arrunta darama emakume hankaluzeak, baina galderak ez dira turista galduarenak.

– El Al-ekin. Tel Avivera noa.

– Txartela ba al duzu?

– Txartela ekarriko didan bidai-agentearen zain nago, hain zuzen –susmo txarra hartzen

hasi natzaio–. Aizu, zergatik egiten dizkidazu galdera hauek?

– Lagundu besterik ez dizut egin nahi –adeitsu mintzo zait andre hortzaundia.

Nire agentziaren taldeko erromesak begiztatu ditudala iruditu zait, sorbaldan «Interpax» bidaia poltsa zuri bana daramaten pertsona nagusien taldea ilaran ikusi dudanean.

– Sireica agentziakoa da txartelak banatzen ari den hori? –ilaran azkena dagoenari galdetu diot.

– Lur Santura zatoz zu ere? –egurrezko gurutzea du lepotik zintzilik.

– Bai.

Egia da, zer arraio, Lur Santura noa.

Betazalak poliki bilduz itxi egin ditu begiak, eta buruarekin baietz egin, erromesen artean gazte bat ikusteak ematen dion poza apaltasunez adieraziz.

Txartela jasota fakturazioetarako salmahaietara abiatu naiz, segurtasun zerbitzukoen galdeketa zain dudala jakitun. Hogeita hamar bat urteko neska beltzarana egokitu zait galdetzaile.

– Zertara zoaz Israelera?

– Turismo egitera batik bat, baina kazetari lanak egiteko asmoa ere badut.

– Kazetaritza? Itxoin apur bat, mesedez –joan egin zait.

Dozenerdi lagun ari dira galdeketak egiten, salmahaiak baino metro batzuk aurrerago. Gertu samar dudan gizonezko heldu bati maleta zabaltzeko eskatu diote. Baina erromes katoliko susmagaitzak dira, itxura batean, bidaiari gehienak, eta galdeketak bizkor ari dira gainditzen.

Berrogei bat urteko gizon potxoloa hurbildu zait, neska beltzarana, orain walkie talkie eta guzti, alboan duela:

– Zer komunikabiderentzat egin behar duzu lan Israelen?

– Nire kasara noa, baina artikuluak egunkari jakin bati bidaliko dizkiot: *Euskaldunon Egunkaria*.

Hori egiaztatzen duen agiria eskatu dit eta, Israelgo Enbaxadan akreditazio eskaera egin eta erantzuna bidali zidatela esan diodanean, faxa ere emateko. Pasaportea kendu eta, paper guztiak hartuta, alde egin didate.

Galderari galdera hasi da lodikote beltzarana itzuli denean. Zertara zoaz Israelera? Han inor ezagutzen al duzu? Hango jendearen helbiderik edo telefonorik ba al duzu? Non hartuko duzu ostatu? Erreserba egina al duzu hotelean? Erakutsiko al didazu erreserba-agiria? Zertara esan duzu zoazela Israelera? Ordenadorea zurea al da? Zer erreportaia klase egingo dituzu? Inoiz izan zara Israelen? Egona zara herri arabiarren batean? Arabiarrik ezagutzen al duzu? Zertara esan duzu zoazela Israelera? Maleta zuk bete al duzu? Zer daramazu pakete horietan? Armarik edo bonbarik badaramazu maletan?

– Gogorarazten dizut galdera hauek egin beharra daukadala, zuen segurtasunerako –nire harritu aurpegierak azalpena eskatzen zuen nonbait–. Lehengo astean borondaterik onenarekin lagun baten paketea zekarren turista batek, eta bonba bat zen! Pentsa!

– Kontxo –barreari eutsi egin diot behintzat.

Hiru aldiz eraman eta ekarri dizkidate pasaportea eta beste agiriak, eta maleta eta poltsa miatzeko aparteko gela batera eraman naute azkenean. Kubo formako patio handia da: 7 x 7 x 7

metroko kuboa, begiratu batera. Plastikozko sabaia du eta adreiluzko horma laranja kolorekoak. Gelaren erdian dagoen mahai luze bakarrean jarri dituzte nire gauzak, eta bazterreko aulki tolesgarri egurrezkoan eserarazi naute.

Lagundu baino egin nahi ez zidan emakume ilegorri, hankaluze, hortzaundia etorri da. Orain ez dit galderarik egiten. Maleta eta poltsa ireki ditu poliki, eta upela adinako interrogatzailearen laguntzarekin, banan-banan miatu dituzte nire alkandora, kamiseta, liburu, praka, kaset-zinta, galtzontzilo, jertse, galtzerdi, hortzetako eskuila eta abarrak. Prozedura zehatza da, kirurgikoa ia: paper mutur bana dute eskuan, eta papera likido batean busti ondoren, alkandora edo dena delakoa igurtzitzen dute papertxo horrekin. Likido hori zertarako den galdetzera ausartu natzaie, otzan, aulki tolesgarritik mugitu ere egin gabe noski.

– Nire lana hau egitea da.

Sinpatikoa, mutila.

Bizarrerako aparraren potea, argazki-filmak, hortzetako pasta eta antzeko material arriskutsuak eraman egin dituzte, eskaner berezi ba-

tean aztertzeko. Argazki-makina eta ordenadorea ere bai. Itzuli dira biak eta arropak berriro banan-banan errepasatu dituzte, garbiaren gainean garbituz bezala, metal-detektore moduko batekin orain. Hauen guztien buruzagia izan behar duen betaurrekoduna etorri zait, ikuskizunari begira aspertzen hasita nengoenean. Ordu eta erdi daramat Mossad-en esku.

– Ordenadorea hemen geratuko da; ezin duzu zurekin eraman.

Mesedea egiten ari zait. Nire segurtasunaren alde ari dira lanean. Baina ni jabetzen ez, eta azalpenak eskatu dizkiot. Ea zergatik.

– Ordenadorea gure eskanerretik pasatuz gero, hondatzeko arriskua dago. Behar bezala arakatzeko denbora behar dugu. Beraz, hemen geratuko da, eta itzultzean jasoko duzu. Sentitzen dugu.

– Israelera inork ordenadorerik ez duela eramaten esan nahi didazu? Ez duzuela sistemarik konputagailuak miatzeko? Hainbat segurtasun-kontrol pasatu izan dut horrelakoekin, eta makina piztea aski izaten da ordenadore barruan ezer arrarorik ez dagoela ziurtatzeko.

Euria egiten duelako protestatzea bezain alferrikakoa da, ordea, hemen inori kontuak eskatzen aritzea. Zintzoaren plantak egiten hasi da nagusia eta, beharrezko tresna dudala jabetzen denez, hiru egun barru, behin bonba-ordenadorea ez dela ziurtatu ondoren, Tel Avivera bidaliko didatela agindu dit. Sinesten diot. Oso serioak dira israeldarrak.

Miaketa bukatzear da. Argazki-makina, Pentax zaharra, eskuan dakar miatzaileen buruzagiak. Kamera mahai gainean utzi eta amaitu da kontua, pentsatu dut neure artean.

– Zertarako dira bi pila hauek? –kameraren azpialdera beha egin dit galdera.

– Bata kamerarentzat berarentzat izango da eta bestea, ez dakit, fotometroarentzat agian –asper-asper eginda nagoela adierazten ahalegindu naiz tonuan. Berdin zaio.

– Itxoin apur bat –kamera eskuan duela desagertu egin da berriro.

Atzeman ditu bonbak azkenean.

Argazki-makina ordenadorearekin batera aireportuan gelditukо dela jakinarazi dit handik

hamar minutura. Barre egin diot, burlaizez, «kokoteraino naukazue» esanez bezala.

Hiru t'erdietan askatu nau Mossadek, baina bostetan aireratuko den hegazkina hartzera lauretan agertzeko eskatu dit nagusiak. «Gorputz miaketa» egin eta eskuko poltsa itzuliko didate.

Seiehun bidaiari garenez, miaketak arin eta bizkor egingo dituzten esperantzan etorri naiz erromesen ilarara, hegaldirako txartela eskuan. Hartu dit tiketa El Al-eko enplegatu prestuak. Eskatu diot eskuko poltsa.

– Itxoin bazter horretan, gazte horren aldamenean.

Gozoa dago laguna. Ni bezala miatu eta galdekatu dutela azaldu dit, pikua baino lehorrago, Pedro Manuel erromes gazteak. Orbel artean bi onddo, nonbait. Biok isilik gaudela, hegazkinerako bidean doan apaiz gazte beltzarana gelditu zait parean.

– Zer egin dizute? –aparteko patiora eraman nautela ikusi du.

– Ia bi orduz eduki naute miaketan eta galdeketan.

– Ni ere halaxe eduki izan naute aurrekoetan! Horregatik etorri naiz gaur horrela –sotana jantzita, lepoko zuri eta guzti dator. 35 urte baino gehiago ez ditu. Mozorrotuta ote datorren bururatu zait–. Gaztea naizelako ez didate sinesten apaiza naizela. Biluztu zaituzte?

– Ez.

– Biluzten bazaituzte, sala itzazu! Sala ditzakezu –hegazkinerantz joan da, biluztearen kontua, eta salaketarena, argitu gabe.

Beste bidaiari guztiak hegazkin barruan daudela, enplegatu batek Pedro Manueli eta bioi berari jarraitzeko agindu eta aireportuko beheko aretoetako batera gidatu gaitu. Pedro Manuel mutu, Tel Avivera eramango gaituen abioiak baino mutur luzeagoarekin.

Ni deitu naute aurrena, aretoaren bazter batean errezel ilun batez itxitako txokora. Guardia zibil bat eta hegazkin konpainia israeldarreko enplegatua ditut zain. Poltsikoak erabat hustu ondoren, guardia zibila begira ari dela, ederki ukitu dizkit koskabiloak israeldarrak. Orain benetan, atzaparrekin. Ezer arriskutsurik ez daramadala ziurtatu duenean pasaportea itzuli dit guar-

dia zibilak. Bostak jota, berandu goaz hegazkinera.

Pedro Manuel sartu dute ondoren bazter ilunera. Luze eduki dute, nire aldean. Zapata bana eskuan dakartzala irten da, halako batean, guardia zibila. Pedro Manuelen oinetakoak. Bonba-zapatak.

Bonba-gizonak ez garela ziurtaturik, utzi digute azkenean hegazkinean gure lekua hartzen. *Fedayin* palestinarrek infiltraturen bat sartu badute, israeldarrek badakite gu ez garela. Infiltraturik izatekotan, Interpax poltsa darama eta egurrezko gurutzea lepotik zintzilik. Edo apaiz mozorroa du.

Pedro Manuelek hurrengoan ekarriko du bonba.

Argilaren usaina

Armada israeldarraren kontrola zeharkatu dugu Jerusalemdik Ramallarako bidean, Israelgo Estatua atzean utzi eta Zisjordaniako Lurralde Okupatuetan sartu garen seinale. Aurrerago, Ramalla hiriaren atarian, polizia palestinarren kontrol gunea pasatu dugu, Lurralde Okupatuen barruan gune autonomo batera sartzera goazen seinale.

Eki Jerusalemen *sheerut* taxi bat hartuta etorri naiz bizitoki izango dudan Ramallaraino, ordu erdi eskasean. Autobus funtzioa betetzen duten taldekako taxiak dira sheerutak: furgonetak askotan, Mercedes handiak batzuetan.

Jerusalemdik urrutiratu eta Ramallara hurbildu ahala, hiri-paisajea narrasten joan da. Grisak dira errepide bazterreko etxeak, solairu bakarrekoak gehienak, eta gureen moduko teilaturik ez dute. Laua dute gaina eta batzuek, hezurdura agerian, amaitu gabe daudela dirudite. Azkar eta merke eraikitako etxeak, itxura batean.

Behin Ramalla hirigunean sartuta, polizien ugariak harritu nau: bi agente plaza nagusiko zebrabide bakoitzean, subfusil ikusgarria aldean dutela guztiek. Palestina autonomoan nagoela adierazten dit uniforme urdineko eta txapel granatedun poliziak, besoan bandera palestinarra josita dutela, bazter guztietan ikusteak. Jendearekin lagun giroan berriketan ari dira asko.

Polizia palestinarrekin bizitzen ohitzen hasiak dira ramallarrak, duela 20 hilabete –1995eko abenduan– soldadu israeldarrek alde egin eta Arafaten Agintaritzak hiriaren ardura hartu zuenetik. Jerusalemdik 14 kilometrora, osoki israeldarren esku dagoen hiri santutik hurbilen dagoen gune autonomoa denez, Zisjordania autonomoko hiriburu ez-ofiziala da Ramalla. Gazan du egoitza nagusia Arafaten Gobernuak, Palestinako Agintaritzak, baina ministerio guztiek dute ordezkaritza Ramallan, eta lurralde autonomoetako legebiltzarra –Palestinako Kontseilu Legegilea– hemen biltzen da.

Zisjordaniako zortzi hiri autonomoetako bat da Ramalla. Jenin, Tulkarem, Nablus, Kalkilia, Jeriko, Belen eta Hebron dira besteak. Osloko akor-

dioen arabera, A eremua osatzen duten zortzi hiriotan eta Gazako lerroan Arafaten Gobernuak du agintea, eta indar israeldarrek ez daukate sartu ere egiterik. Baina Zisjordaniako gainerako lurraldeetan, B eta C eremuetan, bestelakoa da kontua.

B eremua osatzen duten 450 herrietan eskumen batzuk baditu Agintaritza palestinarrak, baina segurtasuna Armada israeldarraren ardurakoa da osoki. Zisjordaniako lurren %27 eta biztanleriaren %70 hartzen ditu B zonak. Gune populaturik gabeko lurralde zabalek, asentamendu juduek eta instalazio militarrek osatzen dute, azkenik, C eremua. Honek Zisjordaniaren hedaduraren %70 hartzen du, eta erabat israeldarren kontrolpeko eremua da. Zortzi hiri autonomoek, uharteak israeldarren kontrolpeko lurraldean, Zisjordaniaren %3 baino ez dute hartzen, eta populazioaren %20.

Gosari txukunik ez dudala egin akordatu naiz, gurdiari tiraka datorren okinaren ogi eta opilek bidean uzten duten usain gozoa aditu dudanean. Okindegirik ez dut ikusi orain arte, baina ogiz betetako gurdi batzuk bai. Ogi zopakoaren

forma du erosi dudanak, baina samurra da oso, zapore gozokoa. Zahiz estalia du azala. Ohikoa da ogi hau hemen, baina arruntenak opil biribil zapalak dira: *pita*-k. Dozena bat opileko sortatan saltzen dituzte normalean.

Azenario eta sagar zukua hartu dut Al Manara plazako zuku saltokian. Dabilen jendetzari erreparatuta, azenario-zukua bide da Ramallako «edari nazionala». Bero egiten du, bero errea, eta azenario-sagar zukua izotz eta guzti zerbitzatu didate. Hamaika zuku edateko etorriak gara.

Izerdia larrura itsasten ere hasia zait. Praka luzeak erantzi eta motzak gustura asko jantziko nituzke, baina turista itxura nabarmenegia hartuko ez badut, belaunak erakutsi gabe segitu beharko dut. Praka luzeak daramatzate gizonezko gehienek eta emakumezko gutxi batzuek. Soineko luzea, berriz, gizon gutxi batzuek eta emakume gehienek. Andre batzuek, ez gehienek, burua zapi zuriz estalita daramate, baina aurpegia agerian denek. Gizon gutxi ikusi ditut durbantearekin; gazterik bat ere ez.

Ezagun du garraiobide erabiliena sheerutak direla. Batere autobusik ez dabil, eta taldekako taxien geltokiak nonahi daude. Orroka ari dira taxista batzuk, furgoneta edo automobila nork lehenago beteko:

– Ram! Ram! Ram! Ram! –batek.

– Quds! Quds! Quds! –besteak.

Ramalla eta Jerusalem arteko muga egiten duen herri txikia da Ram. Al Quds, «santua» arabieraz, Jerusalem da.

Al Manara plaza da Ramallako bihotza, eta haren inguruan bizi da hiria. Azoka dago ehun metrora, barazki eta fruta saltzaile eta erosleek betea, ospe merkataria duen herri arabiarrari dagokion bezain zaratatsua. Jendea gora eta behera dabil plazaren inguruko kaleetan, denda txiki asko dago, eta merke jateko eta zukua edateko aukera anitza. Handia da mugimendua. Praka luzeen beroa nola-hala baretzeko, jendez mukuru ikusi dudan hirugarren ileapaindegian sartu naiz. Herri bati egokitzen hasteko moduak susmaezinak baitira.

Ordu bata laurden gutxian hoska hasi dira meskitetako minareteetatik, kantuan eta erre-

zuan. Eguneko laugarren otoitzaldiaren tenorea da, baina kalean ez da horren aztarrenik. Inor ez dut Mekara begira belauniko ikusi.

Ur-pipak erre bitartean tea, kafea eta limonada hartzen ari dira taberna moduko batean hainbat ramallar. Gure soziedadeekin oroitu naiz, gizonezkoak baino ez daudela ohartu naizenean. Bazter bateko mahaian hartu dut lekua, erosi berria dudan *Jerusalem Post* –ingelesezko egunkari israeldar bakarra– bertan zabaltzeko.

Hutsik daude mahai gehienak –gauean beteko dira, seguru–, baina dozena bat lagun ari dira pipari tiraka. Bakarrik daude bi, eta taldetxotan gainerakoak hiru mahai biribil txikiren inguruan, egurrezko aulkietan jesarrita. Jokoan ari dira bi mahaitan, kartetan batzuk, dominoan-edo besteak. Guztiek dute pipa bana alboan.

Urez betetako beirazko ontzi bat du oinarrian ur-pipak. Urre koloreko zutabe ondulatua dauka ur-ontziak estalki moduan eta, gainean, hautsontzi moduko bat. Tabakoz betetako ontzitxoa –kikara baten tamainakoa–, zilarrezko paperez estalia, hautsontzi moduko honetan jartzen da eta gainean txingar zatiak paratzen zaizkio. Urre

koloreko zutabetik metro t’erdiko hodia jaiotzen da, eta erretzailearen ahoan itsasoratzen, metalezko ahokoaren forma hartuta. Ura borborka eta txingar zatiak gori-gori jartzen dira erretzaileak ahokada hartzen duenero. Gela osoan barreiatua da tabako bereziaren lurrin eztia.

Bakarrik dagoenetako batek ez du hodia ahotik kendu. Tunika soinean, begirada galdua du, eta batere jaramonik ez dio egiten bero egoteari aspaldi utzi zion kafeari. Gozatzen ari da, kez inguratuta, zupa eta zupa. Zerbitzariari keinu bat egin dio halako batean, eta itzali samar zeuzkan txingar zatiak berritu egin dizkio matxarde batzuk baliatuta. Zerua, berriro. Hi bizi haiz, hi.

Eskatutako tea ekarri dit etxeko nagusia izan daitekeen zerbitzariak.

– Jendea erretzen ari den tabakoa arrunta da edo berezia? –ardoaren eskemekin hemen ere.

– Ore berezi bat da, ez tabakoa ez haxixa. Zapore desberdinetakoak daude. *Argila* esaten diogu urezko pipari.

Kafetegiak ez du barrarik eta argila-pipaz betetako gelatxoa da «sukaldea». Gela osoa ez dut

ikusten, baina 30 pipa zenbatu ditut mahaitik. Amerikarren espaziontzia Martera heldu dela erakusten du *Jerusalem Post*-en azaleko argazkiak. «NASA oker dago Marten bizitzarik ez dago-ela esatean; Netanyahu Marten bizi da», irakurri dut politika orrialdeetan oposizioko parlamentario baten ahotik. Ahitu zait tea, egunkariak ez dit askorik iraun eta piparik gabeko bakarra naiz. Hanka, etxera.

Jerusalemera joan-Ramallara etorri bizi nahi duen arrotzari oinarrizko arauak ematen ari dira Iman eta Zara, nire bizikide berriak. Hiriburura joateko matrikula horidun taxiak hartu behar ditut, matrikula berdedunek baimenik ez baitute «Israelen» sartzeko. Pasaportearekin batera aireportuan emandako bisa beti eraman behar dut aldean. Jerusalemera joanez gero, tentuan ibili behar dut orduarekin, hamarretatik aurrera sheerut taxirik gabe geldi naiteke eta. Ramallatik, Lurralde Okupatuetatik alegia, ez dago hartzaileak ordainduko duen telefono deirik egiterik; horretarako Jerusalemera, Israelera, joan

behar dut. Kreditu txartelarekin dirua ateratzerik ere ez dut Lurralde Okupatuetan; hiri santura joan behar Visa baliatzekotan ere. Xekel israeldarrekin, dinar jordaniarrekin eta, noski, dolar amerikarrekin eros daiteke. Xekel israeldarra ibiltzen da eskuz esku, baina gure etxearen alokairua dolarretan ordaintzen da. Mila dolar hilean, hiruron artean. Ez da merkea gero: 150.000 pezetatik gora.

– Zergatik ordaintzen duzue dolarretan?

– Horrela ordaintzeko eskatu zigun, eta guri ongi datorkigu, bai Imanek eta bai nik dolarretan kobratzen baitugu soldata –saskibaloi jokalariaren jantziekin ari zait hizketan Zara; partida du laster.

– Baina ez al duzu Palestinako Agintaritzako Kirol eta Gazte Ministerioan lan egiten? Dolarretan gobernu autonomoak ere?

– Baina ni Nazio Batuetako langilea naiz. Nazio Batuen Erakundeak ordaintzen dit. Orain Palestinako Agintaritzarekin ari naiz, Ramallan, baina iaz Tel Aviven aritu nintzen, urtebetez, juduen eta arabiarren elkarlana bultzatzen duen erakunde israeldar batean.

– Hebreeraz egiten duzu?

– Arabieraz baino hobeto.

– Eta zuk, Iman, badakizu hebreeraz?

– Ezta nahi ere. Aski dut portugesa, arabiera, ingelesa eta espainolarekin.

Imanek palestinarra du aita eta brasildarra ama. Brasilen sortua da, Portoalegren, eta han egin zuen haurtzaroa, baina hamalau urterekin Palestinara etorri zen ahizparen arrimuan. Arabiera, ingelesa eta gaztelera ikasi ostean, Brasilera itzuli zen lanera, baina bost urte badira atzera Ramallan bizi dela. Gobernuz Kanpoko Erakunde amerikar batean dihardu, molde bereko erakunde palestinarrei laguntzen, aholkularitza lanetan. 30 urte ditu.

Adinik ez dit aitortu Zarak, baina gaztexeagoa da. Ama Irangoa du –hortik izen pertsiarra–, baina bera estatubatuarra da goitik behera. Filadelfiakoa.

Hiru logela handi, bi egongela, bi komun eta sukaldea ditu datozen bi hilabeteotan bizileku izango dudan etxeak. Ez da pisua, inguruan olibondo eta sagarrondo batzuk eta lur sail koskorra dituen bizitza bakarreko etxea baizik. Pisu

gutxi daude herri palestinarretan, etxetan bizitzen ohituta baitaude. Nork bere etxea eraikitzeko ohitura dago: ezkondu orduko lurra erosi eta etxea eraiki. Ahal duenak.

Zarak alde eginda, Imanen begi ilunei so geratu naiz. Ile labur beltza du eta azala beltzarana. Palestinar baino brasildar itxura handiagoa hartzen diot, baina badu arabiar kutsua ere, zertan ez dakidan arren.

– Garagardo bat?

– Garagardoa duzue? –bero izugarriaren gainean egarri izugarriagoa sentitzen hasi naiz, eskaintza entzutearekin bat.

– Bertakoa, gainera, Taibeh. Ramallan egiten dute.

– Hiri musulman batean garagardo fabrika?

– Tira, Ramallan kristau asko bizi dira. Garai batean herri kristaua zen eta, gaur egun ere, musulmanak gehiengo diren arren, beste herri palestinarren aldean kristau asko dago.

– Kristauak diozunean, kristau palestinarrez ari zara, ezta?

– Noski. Arabiarrak dira, musulmanak bezain arabiarrak, baina erlijioz kristauak. Belenen eta

Ramallan bizi dira gehienak. Alkohola saltzen duten jatetxe eta denda ugari aurkituko dituzu hemen; jabea kristaua duten seinale.

Ez diot bere sinesmenez galdetu. Politikaz ere ez, baina galdetu gabe hasi zait Agintaritza palestinarrari buruz: Arafatek bere eskuetan biltzen du aginte osoa, zilar-urretan bizi dira Arafaten ministroak, ustelkeria oso zabaldua dago funtzionarioen artean... baina eskerrak Arafat hor dagoen.

– Ez dizut ulertzen.

– Arafat diktadorea da, bere ministroak ere irainka tratatzen ditu baina, kanpora begira, itzal sinestezina du. Eta berak baino ezin diezaioke Fatah alderdiaren batasunari eutsi. Ordezkatuko duen inor ez dago. Nork har lezake Arafaten lekua? Abu Mazenek? Ez. Faisal Husseinik? Ez. Abdul Shafik? Ezta! Eta txarrena mundu honetatik ia joanean dela; oso gaixo dago, azaleko gaitz txar batek jota. Eta hiltzen denean, gerra gure artean. Gerra zibila ez dakit, baina Palestina autonomoko segurtasun indarren arteko borroka bai. Badakizu zenbat fakzio dauden Polizia pales-

tinarrean? Eta denak armatuta. Jai daukagu, Arafat hiltzen denean.

Madrilen erabakitzekoa

Reagan eta Breznev Jainkoarengana joan ziren, eta bi herrien artean bakerik izango ote zen galdetu zioten. Zera erantzun zien Jainkoak: «Bai, izango da bakerik, baina ez zuek bizi zareten artean». Jasser Arafatek elkarrizketa haren berri izan zuen eta Jainkoarengana galdera berarekin joan da orain. Jainkoak, iturri fidagarriek diotenez, hauxe erantzun dio Arafati: «Bai, izango da bakerik, baina ez ni bizi naizen artean».

Bake prozesuari buruz baikortasun handirik ez da sumatzen prentsa palestinarrean. Egunkari palestinarrik ez da ingelesez, baina *Jerusalem Times* astekaria dugu aukeran ostegunetan, eta *Palestine Report* ostiraletan. *Times* palestinarrean irakurri dut txistea, baina *Post* juduan ere berdin-berdin irakur nezakeela otu zait. Netanyahu joango litzateke Goi-goikoari galdezka, horixe aldea.

Aldizkaria mahai gainean utzi dut, Albert Aghazarian agertu zaidanean. Azal beltzarana eta kokospeko bizar beltza du Aghazarianek, Bir

Zeit-eko Unibertsitateko Harreman Publikoetarako Saileko buruak. Ramallatik 15 kilometrora dago Bir Zeit, Zisjordaniako unibertsitate ospetsuena dagoen herria.

Parean eseri zait, bion artean egunkariz eta aldizkariz betetako mahai txikia dugula. Duela sei urte bizitakoa azaltzeko eskatu diot.

–Madrilgo Konferentzia hasi baino lau egun lehenago Hannan Ashrawiren deia jaso nuen: Palestinako ordezkaritzako prentsa taldearen buru aukeratu ninduten. Arrastorik ere ez nuen horrek zer demontre esan nahi zuen, baina Hannanek «gurekin etorri behar duzu» esan zidan eta ni, joan.

Palestinar-israeldar negoziazio prozesua Madrilgo Konferentzian hasi zen, 1991ko azaroan. Artean Israelek, Palestinako Askapenerako Erakundea (PAE) aintzat ez hartzeaz gain, ordezkaritza baterako eskubidea ere ez zien aitortzen palestinarrei. Jordaniarrekin batera osatu behar izan zuten ordezkaritza, PAErekin lotura ageriko-rik ez zuten «barneko» –Lurralde Okupatuen barruan bizi zirenak– pertsonalitateak bidaliz. Ga-

zako Heider Abdul Shafi, Jerusalemgo Faisal Husseini eta Ramallako Hannan Ashrawi.

– Ordezkaritza palestinarraren bizkarrezurra Bir Zeiteko Unibertsitatea zen! Lan-taldearen erdia baino gehiago hemengoak ginen.

Hannan Ashrawi kristaua, Palestinako Agintaritzako Goi Hezkuntza ministroa gaur egun, Unibertsitatean ingeles irakaslea zen orduan.

Prentsarekiko gorabehera guztiak xehe-xehe kontatu dizkit Aghazarianek.

– Arrautza gainetan genbiltzan: pauso oker batek, edozein adierazpen desegokik, dena pikutara bota zezakeen.

Madrilen abiatutako bidetik egin ziren elkarrizketa eta bilera gehiago, Washingtonen batik bat, baina azkenean Oslon isilpean ereindako haziak eman zuen fruitua. Israelgo Gobernua, 1992ko uztailetik Yitzhak Rabin laborista buru zela, Arafatek izendatutako PAEko ordezkariekin negoziatzen hasi zen Norvegiako hiriburuan, jendaurrean PAE onartu gabe segitzen zuen arren. 1993ko urtarrilean PAE legeztatu egin zuen Knesset-ak –Israelgo Parlamentua– eta, ondorioz, Osloko elkarrizketak publiko egin zituzten.

Urte bereko irailean, Arafatek eta Rabinek bostekoa eman zioten elkarri Washingtongo Etxe Zurian, Bill Clinton aitabitxi zutela.

«Oslo I» izena eman zitzaion itunaren ondorioz, Israelgo soldaduak irten egin ziren Gazako lerrotik eta Jeriko hiritik, eta Palestinako Agintaritza osatu zen bi lurralde hauetan gobernu lana egiteko; gainera, beste lurralde okupatuen etorkizuna erabakitzeko negoziazio prozesurako hitza eman zuten bi aldeek. Bi urtera, 1995eko irailean, «Oslo II» itunarekin Zisjordania A, B eta C eremuetan banatu zen, zortzi hiri nagusiak autonomo bilakatuz.

Baina Intifadako borroketan orpoz orpo jokatu zuten fakzio palestinarrak banatu egin dira Osloko hitzarmenak direla medio. Oposizioko alderdi nagusiak –Hamas, Jihad Islamikoa, Fronte Popularra eta Fronte Demokratikoa–, akordioen kontra agertu dira eta boikota egin zieten 1996an autonomiako lehen hauteskundeei. Hamasen beso armatuak, Izz al Din Qassam brigadak, borroka armatuarekin segitu du, ahulagoa den Jihadekin batera. Besteak beste, sinatutako hitzarmenean errefuxiatu palestinarren itzulera-

eskubidea aipatu ere ez dela egiten eta palestinarren autodeterminazio eskubidea ez dela onartzen leporatzen diote Jasser Arafati. Nahi duena ezin duenak ahal duena egiten duela erantzun die Arafatek: «Akordioa txarra da, baina lor genezakeen onena da».

Kristaua da Aghazarian, jatorri armeniarrekoa, eta Jerusalemgo Hiri Zaharrean, harresi barneko gunean alegia, bizi da. Madrilgo Konferentziarako bidean egin zioten galderarentzat ez du oraindik erantzun zuzenik aurkitu.

– Hegazkinean Madrilerantz gindoazela, paper bana eman ziguten bidaiarioi, gure datuekin betetzeko. Gure nazionalitatea zein zen galdetzen zuen papertxoak. Nire nazionalitatea! Zein da nire nazionalitatea?

Gazako eta Zisjordaniako herritarrak, Israelek 1967tik mendean hartuak dituen lurraldeetan bizi diren arren, ez dute inoiz israeldar hiritartasunik, pasaporterik, izan. Israelgo lege militarraren pean bizi dira, baina ez dira israeldar. Aghazarian bezala Jerusalemen bizi diren palestinarrek, Jerusalemgo herritarraren eskubideak badituzte, udal hauteskundeetan bozka dezake-

te adibidez, baina ez dira israeldartzat hartuak eta, esate baterako, ez daukate hauteskunde orokorretan bozkatzerik, eta pasaporterik ere ez dute.

Eki Jerusalemgo eta Zisjordaniako palestinarrak «jordaniar» eta Gazakoak «egipziar» izan ziren 1967ra arte. 1948ko gerran, Israelgo Estatua sortu zen urte berean, Jordaniak Zisjordania eta Egiptok Gaza hartu zituzten, ordura arte Palestina osoan agintari izan zituzten britainiarrek alde egin ondoren. 1967ko Sei Eguneko gerrara arte. 1967an lurrok Israelek bereganatu zituen eta, beraz, «jordaniar» eta «egipziar» izateari utzi zioten palestinarrek, baina ez ziren «israeldar» bilakatu eta, jakina, inolaz ere ez «palestinar». 24 urte geroago, Aghazarian Barajasen lurreratzear zegoela, egoera ez zen aldatu.

– Zer demontre erantzun behar nuen? «To be determined in Madrid» idatzi nuen!

Barre egin diogu biok ateraldiari. «Ni ez naiz inongoa» ere idatz zezakeen.

– Palestinar jartzen badut, ez naiz existitzen, israeldar jartzen badut, inposatu egin didate, jordaniar jartzen badut, nola uler dezakezu zure he-

rrian hilabete baino gehiago egon ezina? Ez baitaukat eskubiderik Jordanian hilabete baino gehiago egoteko! Beraz, «to be determined in Madrid». Erabaki dezagun Madrilen!

Zauri zaharra

Munduaren erdian zegoen Jerusalem antzinako mapetan eta ez da harritzekoa. Juduek hemen eraiki zituzten bi tenplu sakratu gero suntsituak, Jesukristo hemen gurutziltzatu zuten eta Mahoma hemendik abiatu zen zerurantz. Minareteak, eliza kristauak eta bandera israeldarrak elkarren ondoan ikusiko dituzu harresiz inguratutako Hiri Zaharrean barneratuz gero. Tenplu Sakratuaren eraistea aieneka madarikatu Mendebaldeko Harresian, Mahoma zerurantz abiatu zen Haitzaren aldamenean Korana irakurri eta, egurrezko gurutzea bizkarrean hartuta Via Dolorosan gora joan ondoren aita gurea errezatu Hilobi Santuan; hirurak egin ditzakezu, bata bestearen atzetik, goiz batean.

Juduen gune sakratuena da Mendebaldeko Harresia –edo Deitoreen Harresia–, duela bi mila urte bigarren tenplua eraitsi zutenetik zutik gelditu den horma bakarra. Musulmanen hirugarren gune santua osatzen dute, Meka eta Medinaren ondoren, alde-alde dauden Haitzaren Domoak

–Omar-en meskita izenez ere ezaguna– eta Al Aqsa meskitak. Eta Jesukristoren hilobia dago Hilobi Santuaren elizan. Kasik elkar ukitzen daude hiru gune gurtuak, Jerusalemgo hiri zaharreko harresiak inguratuta.

Harresiaren ateetako baten aurrean utzi nau sheerut taxiak: Damascoko atea. Sarrera ezagunena da, arkitektonikoki ikusgarriena eta hiriaren alde arabiarrera ematen du, Eki Jerusalemera. Mendebaldean Jaffako atea da sarrera erabiliena, hiriaren alde juduranzko irteera nagusia baita berau.

Azoka baten sarreraren traza du Damascoren ataurreak. Saltzaile-erosleak sartu irtenean ari dira, inor gutxi geldirik, inor gutxi esku hutsik: frutaz betetako gurdia darama batek, opilez betetako erretilua buru gainean urliak, bizkar gaineko ontzitik datil zukua eskaintzen dizu berendiak. Arropa eta barazki-saltzaileak dira ugarienak: salgaiak lurrean zabalik dituzte, atera gerturatu ahala estutzen doan bidean.

Hiri Zaharra den gotorlekura sartu gabe Herodesko aterantz abiatu naiz, harresiaren kanpoko bidetik. Jerusalem arabiarraren ardatzetakoa

da Damascotik Herodesera doan errepidea. Saltzaile franko biltzen da bidearen bi aldeetan, eta Zisjordaniako hirietarako edo Jerusalemgo auzo arabiarretarako sheerut taxien geltokiak hemen inguruan dira. Ramallarako joan-etorria egiten duten furgoneta zurien errenkatik, sartzeko gonbita egin dit eskuarekin gidari batek, «Ramalla!, Ramalla!» oihukatzen duen bitartean. Etengabeko klaxon hotsekin nahasten dira orroak. Espezie-lurrinak merkatuaren berri ematen duen bezalaxe ematen du isiltzen ez den bozina-burrunbak Jerusalemgo alde arabiarraren berri.

Herodes atearen ingurura heldu naizelarik, Postetxera jo dut telefono txartela erosteko asmoz, baina errepide erdian ez aurrera ez atzera gelditu naiz: Uzi subfusilak ondo agerian daramatzaten soldaduz betetako bi jeep heldu dira arrapaladan, lehendik hor zegoen polizi taldeari laguntzera nonbait. Gazte bat dakarte helduka eta bultzaka poliziek; borraz jo du batek, nire aurretik pasatu direnean. Beste gazte bat lasterka ihesi joan da, baina ez poliziek ez soldaduek ez diote segitu.

Postetxe ondoan, Jerusalemgo alde arabiarraren bihotzean, Israelgo Poliziaren komisaria dagoela jabetu naiz, bizkarra ondo berotutako gaztea han sartu dutenean. Soineko more eta buruko zuridun emakume bikain batek, arabiarra nabarmen, zuzen jo du komisariara, erdi korrika izerditan, masailetako mamiak dardarka. Baina zaindari dauden bi soldadu beltzek gerarazi egin dute, eta sesioan hasi. Eszena mutua da niretzat. Ez dakit arabieraz edo hebreeraz ari ote diren ere.

Bideo-kamera batekin dabilen arabiar itxurako gaztearengana hurbildu naiz:

– Zergatik atxilotu duten ba al dakizu?

– Emakume hori fruta saltzen ari zen kalean eta poliziek han ezin duela saldu edo baimena behar duela edo horrelako zer edo zer esango zioten, ez dakit. Inguruan egokitu den gazteak aurre egin die soldaduei eta...

Esplikazioak eten eta begia kameraren bisorera eraman du bizkor, eta kamerak polizi-etxera gidatu gaitu. Soldaduekin ika-mikan ari zen emakumea harrizko eskaileratan luze etzanda dago. Jendetza batu da inguruan, oihuka batzuk,

soldaduei kargu hartzen. Soldaduak –zortzi dira orain– jendea atzera bota nahian dabiltza, subfusilekin bultzaka.

– Soldadu batek ostikoz jo omen du, eta kordea galduta ziplo erori da –gertatuaren berri jasota zintzo itzuli zait kameraduna aldamenera–. Haurdun dago andrea! Nola izan daiteke horren astoa? Barkatu, ez naiz aurkeztu: Daniel naiz –bostekoa luzatu dit.

Ingelesetik gaztelerara pasa gara, Venezuelan jaiotako palestinarra dela esan didanean. Venezuelan jaio eta Kanadan bizi. Oporretan etorri da Palestinara, eta Kanadara hemengo berri eraman nahi duelako ari da kamerarekin batetik bestera.

– Ikusten soldadu beltz horiek? Etiopiarrak. Afrikatik etorri dira, guri lurra kendu eta orain gure kontra borrokatzen dira. Ulertzen duzu? Ezin da ulertu!

Trafiko ataskoan barrena Ilargierdi Gorriko anbulantzia heldu da, baina gelditu barik aurrera egin du. Militar israeldarren aginduz izan dela azaldu dit Danielek, Daviden izarra duen anbulantzia iritsi denean:

– Horrela ospitale judu batera eramango dute.

Daniel gero eritetxe musulman batera joatekoa da, Hebrongo istiluetan zauritutako mutiko batengana. Ez naiz gonbitei ezetz esatera etorri.

Olibondoen Mendiaren gainean dagoen Maqassed Ospitale Islamikora joan aurretik, ordea, Haitzaren Domoaren alboan dagoen Al Aqsa meskitara jo dugu Tarek-ek eta biok. Ez baita Daniel.

– Kanadan Daniel erabiltzen dut, eta hemen ere inoiz atzerritarrekin. Zenbaitetan hobe da jatorri arabiarra ezkutatzea.

Tareken gurasoak Rasit herri palestinarrekoak dira. Herria britainiarren agindupean zegoela jaio ziren bertan –Palestina osoa, gaur egungo Israel barne, Erresuma Batuaren mende izan zen bi mundu gerren artean–, baina ume gorritan ospa egin zuten, Israelen sorreraren gerraren (1948) ondoren. Israelgo Estatuaren mugak ezarri zirenean, *marra berdeak* Rasit herria bitan banatu zuen: zati handiena estatu juduaren aldean,

eta zati txikiago bat jordaniarren esku. Venezuelara jo zuten eta han jaio zen Tarek.

– 5 urte nituela, aita hil zelarik, amak Palestinara itzultzea erabaki zuen, Ramallara. Hemen egin nituen hurrengo hamahiru urteak. Gero, 18 urterekin, Kanadara joatea lortu nuen. Nekaneka eginda nindukan hemengo giroak.

– Intifadaren urteak hemen egin zenituen orduan?

Azkar atera ditut kontuak: 1980tik 1993ra izan zen Ramallan; 12 urte zituen 1987an, Intifada hasi zenean.

Eskuineko besoa erakutsi dit, aparra baino harroago. Eskumuturra zeharkatzen dio ondo sendatu gabeko zauriaren orbainak. Isilik egin ditugu metro batzuk, orbainari begira ni, besoa erakutsiz bera.

– Intifada ostekoa da. Goldsteinen sarraskiaren ondorengo istiluetan zauritu ninduten bala batekin, orain lau urte. Badakizu nor zen Goldstein, ezta?

– Meskita batean palestinar mordoa hil zuen israeldarra?

– Hebronen, 29 garbitu zituen. Liskar handiak izan ziren ondoren eta niri bala bat sartu zidaten. Eta neuk ez nuen harririk bota!

Hiri Zaharreko kale bihurrietan barrena, aldapa leunean gora, heldu gara Haitzaren Domoaren eta Al Aqsa meskitaren ordokira; juduen Tenpluaren Mendira. Musulmanentzat leku sakratua baldin bada, are sakratuagoa da Moriah mendia juduentzat: Bigarren Tenpluaren hondarren gainean daude eraikita Domoa eta Al Aqsa. Gune gurtua ez ezik, Jerusalemen sinbolo ezagun eta ikusgarriena ere bada Moriah muinoaren gain laua, Haitzaren Domoaren urrezko kupula distiratsuari esker.

Arabiarrak eta turista mendebaldetarrak dabiltza inguruan, baina judurik ez. Ez behintzat agerikorik. Izan ere, juduek debekatua dute eremu hau zapaltzea, sakratuegia baita tenplu suntsituaren mendia mundutarrarentzat.

– Begira zulo hauek! –Domoaren horman bost zentimetroko diametroa duen zuloa erakutsi dit– 1990eko sarraskiaren arrastoak dira. Otoitzean ari ziren musulmanak eraso zituzten judu batzuek, hauek aurre egin zieten, eta ordai-

nean soldadu israeldarrek musulmanak tirokatu. Hamazazpi lagun hil zituzten!

Intifada garaiko egunik odoltsuena izan zen 1990eko urriaren 8ko hura. Moriah mendian Hirugarren Tenplu judua eraikitzeko eskubidea aldarrikatzen duten «Tenpluaren Mendiko Fededunek» tenplu berriaren lehenengo harria paratuko zutela iragarri zuten; Tabernakuloen Festaren egunean egin nahi zuten zeremonia. Haitzaren Domoa lehergailuz suntsitzeko saioak maiz egin dituzte era honetako taldeen jarraitzaileek, 1980ko hamarkadaren hasierako urteetan batik bat. Batzuk espetxean daude oraindik.

Al Aqsa meskitako xekeak, Fadlalah Silwadik, ostiraleko sermoian, «Tenpluaren Mendiko Fededunei» gune musulmanean sartzea eragozteko jendea bil zedin deia egin zuen. Urriaren 8an, Moriah mendirantz zetozen mila juduek hiru mila palestinar zituzten zain Haitzaren Domoaren inguruan. Tentsio handiko giroan, zenbait palestinarrek, mendiaren magaletik, harriak jaurti zizkieten Harresian otoitzean ari ziren juduei. Poliziak ke-poteekin erantzun zien hasieran baina, istiluak gogortu zirenean, tiroka ekin zie-

ten; poliziek estreina, arma aldean eraman ohi duten zenbait juduk gero. Emaitza: hamazazpi palestinar gorpu eta 150 zauritu. Hogei juduk ere eritetxean amaitu zuten. Beste lau palestinar erori ziren israeldarren balen pean gero Eki Jerusalemera hedatu ziren liskarretan.

Dozena bat balen arrastoak ukitu ditugu Domoa eusten duen horman. Oinarri oktogonaleko eraikina da, kupula doratu batek estalia. Haitzaren Domoa deritzo, barnean daukana harri zabal zapala baita. Tradizioak dioenez handik abiatu zen Mahoma zerurantz. Legendak, bestalde, bertan kokatu nahi du Abraham bere seme Isaak sakrifikatzen, eta beraz hiru erlijio monoteista nagusiek gurtzeko moduko gunea da.
Handik ehun bat metrora dagoen Al Aqsako meskitara jo dugu gero, han daude-eta Tarekek bideo-kamerarekin hartu nahi dituen irudiak: 1990eko sarraskian hildakoen argazkiak eta hil zituztenean zeramatzaten arropa odolduak.

Hamazazpi biktimetatik hamabi ageri dira argazkitan. Bost ume koskorrak dira.

Damasco atearen ingurura itzuli gara, Olibondoen Mendirako furgoneta-taxia hartzeko. Sheeruta, ohi bezala, ez da abiatu jendez bete den arte. Hamabi eserlekuko furgoneta da eta, kolektiboa denez, ibilbide finkoa du. Ez du geltoki jakinik eta, amaieraraino joan nahi ez duenak, behar duenean adierazten dio gidariari non geratu. Kobratzailearen lana denon artean egiten dugu, taxia behin abiatu ondoren. Gidariarengandik gertuen dauden eserlekuetakoek biltzen dituzte gainerakoen sosak, eta hauek banatzen dituzte itzuli beharreko txanponak ere. Lan osoa ibilgailuan martxan dagoela egiten da. Gidariaren atzeko errenkan jarri gara eta Tareki egokitu zaio kobratzailearen erantzukizuna bere gain hartzea.

Ospitale islamikoaren barruan, korridoreko egongelan topatu dugu Hebronen zauritutako gaztea, gurpildun aulkian eserita, senideez inguratuta. Amari azaldu dio Tarekek semearen testigantza grabatu nahi duela. 16 urte ditu Anwarek. Ezkerreko masaila handitua duela ezagun du, bendajeak aurpegi erdia estaltzen dion arren, eta ezkerreko besoan txertatua duen

gazur-poltsatxoa sorbalda gainean du. Tareken kamerari begira, lepoa zurrun du erabat eta ezpainak nekez mugi ditzake, baina hitz egiten du, poliki. Amak, paperezko zapi batekin, lerdea kentzen dio tarteka.

Amman hiriburu jordaniarrean bizi da Anwar, baina ahaideak bisitatzera etorri ziren Hebronera. Lagunak soldadu israeldarrei harriak botatzera irten ziren eta Anwar beraiekin. Manifestariak sakabanatzeko soldadu israeldarrek erabili ohi dituzten bi balek jo zuten, oso hurbiletik.

Plastikoz estalitako metalezko balak dira: urrutitik tiraz gero ez dira hain arriskutsuak baina hurbiletik bai: jaurtigaia matrailezurretik barrena sartu eta ahotik atera zitzaion. Erakutsi diguten erradiografian garbi ageri da balak matrailezurrean egin dion zuloa. Bigarren bala batek ezkerreko saihetsetan jo zuen, baina ez zitzaion barrura sartu. Saihetsa hautsi besterik ez dio egin, zorionez.

Anwar utzita, Tareken lagun zahar baten bila abiatu gara: duela lau urte Tarek zauritu zutenean ospitalean ezagutu zuen Ahmed, bera be-

zala istiluetan min hartua. Zauria ez da nolanahikoa: lau urte egin ditu ospitalean.

– Noizbait irten izan da, baina denboraldi luzeenak hemen egin behar izan ditu. Dum-dum bala batek hanka txikitu zion. Badakizu zer diren dum-dum balak? Gorputzean sartu ondoren lehertu egiten dira. Debekatuta daude baina israeldarrek erruz erabiltzen dituzte.

Aurkezpena arabieraz egin du Tarekek.

– Zer, hobeto?

Bekainak gora eraman ditu, ingelesez hitzerdirik ez duela ulertzen adieraziz-edo. Hobe nago isil-isilik, mintza daitezela lagunak.

Ahmedek eskuineko zangoan, belaunaren azpian, duen aparailuari begira gelditu naiz: metalezko lau uztai, bi ardatz eta torloju moduko batzuk dira bizkar-zangoaren euskarri. Aparailuaren azpitik gasa batzuekin estalia du zauria.

– Zauritu zutenetik ezin izan du ezer egin –atzerritarrari azalpenak emateko ordua dela begitandu zaio Tareki–. Lau urte estudiatu gabe, lanik egin gabe... eta ezkondu gabe!

Zisjordania iparraldeko Nablus hirian zauritu zuten Ahmed, 1993ko istiluetan. Dum-dum bala

zangoan sartu eta, barruan lehertuta, giharrak eta hezurrak txiki-txiki egin zizkion. Hiru ebakuntza egin dizkiote geroztik.

– Hanka ez moztea lortu zuten eta gaitzerdi –dio Tarekek, burua ezker-eskuin mugituz.

Baina ezkerrekoa baino laburragoa du orain eskuinekoa. Gelarantz herrenka doala, antigoalekoak iruditzen zaizkidan egurrezko bi makuluren laguntzaz dabil Ahmed, hanka zaurituarekin lurrik zapaldu gabe. Bideo-kameran bere testigantza gorde nahi du Tarekek eta grabaketa ohean egitea erabaki dute.

Ohean erdi etzanda, metalezko aparailua kendu gabe, zauria estaltzen dioten gasak askatu ditu Ahmedek. Ikusgarria da zauria. Lau zulo ditu agerian, denak haragi gorritan. Erdikoa itzela da, zabalean eta sakonean, eta handienaren albo-alboan duena ere bai. Aho bete hortz nago. Bala bakarrak hau? Lau urte pasatu dira, hiru ebakuntza egin dizkiote eta oraindik horrela?

Tareken kamerak ondo jasotzeko moduan jarri du zauria eta, begiak kamerari zuzendurik, hizketan hasi da, goibel, begitarte tristez.

Arabieraz ari da baina ulertzen zaio. Ulertzen zaionez.

Eraikuntzaren aita

Jasser Arafat bizkarzainez inguratuta gelara sartzea eta zain ginen berrehunen bat pertsonak zutik jarri eta txaloka hastea bat izan da. Txalo egiteari utzi eta jendea atzera eseri arte ez dugu, hala ere, palestinarren lider nagusi eta bakarra ikusterik izan. Txikia baita Arafat, estaturaz.

Bina mahaikide eseri zaizkio ezker-eskuin eta, atzean, militar jantzian zutik, bost ofiziale. Beste zortzi ofiziale, poliziburu edo segurtasun arduradun itxurako, alboko mahai batean jesarri dira. Arafatek inguruan zerbait ibiltzen badu, segurtasun agenteak ibiltzen baititu.

Nablusko Udaletxeko aretora sartzeko hiru aldiz miatu didate poltsa, hiru aldiz piztarazi didate magnetofoia eta argazkia ere atera behar izan diot horma biluziari, kamera benetakoa dela egiaztatzeko. Ondo zaindua dute, gero, Abu Ammar.

Gerra izenez deitzen diote palestinarrek Jasser Arafati: Abu Ammar, «eraikuntzaren aita».

Arafatek berak aukeratu zuen goitizena, kartzelan, gero urtetan laguntzaile estuenak izango zituen Khalil Wazir eta Salah Khalal-ekin batera atxilotu zutenean. Kairon ikasle izan ziren garaitik adiskide, 1959an Kuwaiten elkarrekin egokitu zirenean erabaki zuten hirurek Fatah mugimendua sortzea. Harkat al Tahrir al Falastini-ren (Palestinaren Askapenerako Mugimendua) akronimoa, alderantziz jarria, da Fatah. Arabieraz garaipena esan nahi du *fatah* hitzak.

1965eko urtarrilaren lehen egunean egin zuen Fatah-k lehenengo ekintza, Israelgo ur hodi batzuen aurka. Arrakastarik ez zuen izan ekintzak eta hirurak preso hartu zituzten gainera, Fatah-kide gehiagorekin batera. Giltzapeturik zeudela erabaki zuten gerra izenak behar zituztela: Abu Iyad (jaien aita) hautatu zuen Khalalek, Abu Jihad (borrokaren aita) Wazirrek eta Abu Ammar, orduan 36 urte zituen Arafatek. Ogibidez ingeniaria delako eman zion «eraikuntzaren aita» izena bere buruari.

Jaioterria duen Kairon egin zituen ingeniari ikasketak. Aita Gazakoa zuen, Jerusalemen bizi eta lan egindakoa, baina Jasser jaio zenerako

Kairon ziren. Izena ez zioten Jasser jarri; Muhammad Abdul Raouf Arafat al Qudwa da palestinarren lehendakariaren izen osoa. Jasser ere goitizena da: «Kezkarik gabea». Haurtzaroko lauzpabost urte Jerusalemgo Hiri Zaharrean egin zituen Jasserrek senitarteko batzuekin, baina bederatzi urte zituenerako Kairora itzuli zen. Horregatik du azentu egipziarra, gaur egun ere, arabieraz mintzo denean.

Sarrera-hitzaldi laburra zutik egin du Arafatek, atzeko horman zintzilikatutako bi metroko bere erretratu erraldoia erdi tapatuz. Mahaitik hizketan ari zaigun bitartean, Arafat bera guri so dago ezkerreko hormako beste hiru afixetako argazkietatik ere. Ez da harritzekoa. Abu Ammarren irudiak nonahi eta noiznahi ikusten dira Palestina autonomoan. Udaletxerako bidean ere ikusi ditut batzuk Nablusko kaleetan.

200.000 lagun dituen Nablus, Zisjordaniako hiririk populatuena, Palestinako Agintaritzaren mendeko segurtasun indar koloretsuek hartua dago larunbat eguerdi honetan. Urdin koloreko kamuflaje-uniformedun poliziak dira ugarienak: hamar metroro bat ageri da udaletxe inguruko

kale nagusietan, uniforme urdin soileko poliziek trafikoa zaintzen duten bitartean. Uniforme berde eta txapel granatedunak ere badira bazterretan, kamuflajeko jantzi marroi eta berdedunak bezala. Udaletxera zenbat eta gehiago hurbildu, orduan eta «beltz» gehiago. Arafaten itzala dira «beltzak»: 17 Indarra, lehendakariaren segurtasun zerbitzu berezia.

Ez da erraz zehatz jakiten Palestinako Agintaritzak zenbat polizia mota dituen: bederatzi dio honek, hamahiru beste horrek, hamalau direla hango hark... Bizkarrean edo eskuartean daramaten tresnan egiten dute bat denek, baita trafikoa zaintzen dutenek ere: oldartsuena ere otzanduko lukeen kalashnikova, edo tankerako arma.

Entzuleak hizlari eta hizlaria entzule bilakatu dira sarri. Sei-zortzi beso altxatzen dira hitz eske Arafat isildu orduko eta, moderatzailearen gidaritzagatik baino eskuz esku dabilen mikrofonoa bereganatzeko zenbaitek duten trebeziagatik, Nablusko entzule ez-kazetariengandik heldu zaizkio galdera gehienak, eta ele zuri franko, Abu Ammarri. Losintxa losintxaren gainean, lai-

noetan gora ezarri dute liderra entzuleek, Fatahko kideak gehienak seguruenik.

Nekea eta adina nabari zaizkio mugimendu geldoetan, aurpegi zimurtuan, ile eta bizar zilartuetan, baina sendoa du ahotsa. Zahartzaroaren zantzuak bai, baina gaitz txar aipatuaren arrastorik ez. Heriori hainbeste aldiz itzuri egin dion gizona ez dela oraindik errendituko ematen du. Katuek baino bizitza gehiago omen, izenak ere ez gutxi dituenak: «Bederatzi bizitzako gizona» ere esaten diote.

Atxiloketari, eta akaso heriotzari, ihes egin zion lehen aldi ezaguna 1968koa da, Palestinako Askapenerako Erakundeko (PAE) presidente hautatu zuten urtekoa. Ramallaren ondo-ondoan dagoen Al Bireh herrian ezkutaleku zuen etxera soldadu israeldarrak aurreko atetik sartzen ari ziren une berean, emakume jantzita atzeko leihotik hanka egitea lortu omen zuen Arafatek.

Arrisku gorriagoan egon zen, besteak beste, Libanoko Gerran (1982), Ariel Sharon Defentsa ministro israeldarrak PAEko palestinarrak Beirutetik botatzeko ez ezik Arafat hiltzeko erabaki sendoa hartu zuenean. Tai gabe batera eta bes-

tera zebilen auto batean bizi izan zen Arafat Beiruteko bonbardaketa trinkoen egunetan. Sharonen agindupeko hegazkinek zortzi etxe suntsitu eta ehundaka lagun hil zituzten, Arafat non baino non harrapatuko. Burua lepo gainean haztatu ahal zuela irten zen ordea Beirutetik. Hurrengo urtean, Arafat Libanoko Tripolira itzuli zelarik, israeldarrek itsasoz eraso zioten, gerraontzietatik. Baina heriotzari zorrean berriro, Abu Ammar.

Israeldarrei Jasser Arafat aipatzea infernuko sua aipatzea baino okerragoa zen orduan, eta laboristen gobernuak ere egin zuen lider palestinarra akabatzeko eginahalik. 1985eko urriaren lehenean sei F-15 bidali zituen Simon Peresen Gobernuak Tunisiara, PAEren etxe nagusia bonbakatu eta Arafat hiltzeko helburuz. Goizeko hamarretan izan zen bonbardaketa, bulegoak jendez gainezka zeudenean. 56 palestinar eta 17 tunisiar hil zituzten lehergailuek. Baina Arafatek larrua osorik, orain ere.

1992an jazo zen azkena. Apirilaren 8an, Arafat hegazkin istripuz hil ote zen zabaldu zuten nazioarteko berri agentziek. Lider palestinarra

Khartumdik (Sudan) Tunisiara zeraman An-26 hegazkin sobietarra Saharako basamortuaren erdian erori zen, Sudan eta Libia arteko mugatik gertu. Hegazkinak istripu larria izan zuela besterik ez zen jakin ordu batzuetan. Pilotoak eta kopilotoak azken arnasa eman zuten. Arafatek ez. Zaharraren zaharrez hiltzeko asmoa du, inondik ere.

Asmo bera baldin bazuten, kukuak oker jo zien Fatah-ren sorreran eta PAEren gidaritzan lankide eta lagunmin izan zituen Abu Jihadi eta Abu Iyadi. Intifadaren hastapenetan, 1988ko apirilean, Tunisiara horretara propio joandako Israelgo elite komando batek tiroz josi zuen Abu Jihad. Golkoko Gerra lehertu baino bi egun lehenago, 1991ko urtarrilaren 14an, Abu Iyad erori zen: Abu Nidal gerrillari palestinar disidentearen taldeko kide batek kalashnikov batekin tirokatuz hil zuen «jaien aita». PAEren adar militarraren burua zen Abu Jihad zendu zenean, eta PAEren Inteligentzia aparailuaren arduradun, berriz, Abu Iyad. Bakarrik utzi zuten Abu Ammar.

Nablusen ez dago bakarrik, bere giroan baizik. Maiz eten ditu galdegileen hizjario luzeak

txisteak eginez. Publikoak barre, noski, liderraren ateraldi guztiei. Nazio Batuetan asentamendu juduak gaitzestearen aurka bozkatu zuten hiru estatuak aipatu dituenean bezala:

– Amerika, Mikronesia eta Mikronesia Handia.

Mikronesia Handia, jakina, Israel da.

Zenbait galdera erantzunik gabe ere utzi ditu.

– Netanyahu bigarrenez gobernuburu aukeratuko duten kezkarik ba al duzu? –galdegin dio zutik jarrita ABC News-ko kazetari gazteak.

– Ez naiz besteen barne arazoetan sartzen.

Eta kazetari berak:

– Benetako bakea lortzeko zer litzateke hobea, Netanyahuk bere kargua uztea edo Clintonek uztea berea?

Irribarrea besterik ez ordainetan. Hurrengo galdera.

Ordu eta erdiko jardunaren ondoren, aski entzun dugula deliberatu baitu aurkezleak, etorri bezala alde egin du Arafatek: txalo eta zutitutako jendetzaren artean, ikusten ez dugula.

Horixe egin nahi du Nablusko Udaletxe atarian bildutako jendetzak: Abu Ammar ikusi. Udaletxe barruko eskaileretako ertzak ere bilera aretora sartu ezin izan duten langileek hartuak dituzte, aurreneko errenkakoek segurtasun lerroa egiten dutela, lehendakariari bertatik bertara so egiteko. Kanpoan, kamuflajeko eta ez-kamuflajeko uniforme urdin, berde, marroi eta beltzeko poliziek ate nagusitik hamar-hamabost metrora eusten diete han bildutako ehundaka herritarrei.

Protesta girorik ez dago. Sarri entzuten dira palestinarren artean Arafaten aurkako kritikak, baina Nablusko Udaletxe aitzinera etorri direnek liderra txalotu baino ez dute nahi. Atean mugimendua nabari denetik hasi dira txaloak eta oihuak, saltoak eta brinkoak, Abu Ammarri deiadarka denak. Atzenerako irten denean, kanpoko eskaileretan gelditu, eskuarekin denei diosal egin, eta zain zuen automobilean desagertu da ziztu batean.

Arafaten autoaren gurpilak jiraka hasi ahala, dozenaka polizia lasterka abiatu dira, Abu Ammarren atzetik joango diren ibilgailuetan lekua hartzera. Arafaten autoak 17 Indarreko sei

«beltz» ditu ezker-eskuin, lasterka autoarekin batera, nagusiaren leihoak babesten. Atzerago, «beltzen» jeep bat eta kamuflajeko uniforme urdineko polizien dozenerdi jeep, anbulantzia bat eta beste zenbait autorekin batera.

Atasko polita utzi dute Nablusen. Baina trafiko ataskoa, bozina hotsa, uztaileko bero itogarria bezain arrotza da hiri palestinarretan.

Harriak ahitu arte

– Misila erori dela Tel Aviv-en? Airean Tel Avivera!

Ingeles traketsean mintzo zait Bassem, eskuineko eskuarekin betaurreko beltzak jartzen dituen bitartean, Hebrongo bidean.

– Horrelaxe ibiltzen nintzen Golkoko Gerraren garaian. Zoro samarra izan behar da horretarako, eta beldurra irentsi, baina dirua erruz egiten da. Golkoko Gerraren urtean 100.000 dolar irabazi eta hiru apartamentu erosi nituen. Goldstein hil ondorengo hiru hilabeteak ere oso emankorrak izan ziren.

Kazetariekin egin ohi du lan Bassem taxi-gidariak, BBC, NBC eta Reuter-ekoekin normalean. Gaur, *Euskaldunon Egunkaria*-rekin. Eguneko 200 dolar (30.000 pezeta) kobratzen ditu «bake garaian», baina «berandu» hasi omen garenez –goizeko 9.30ak dira–, 170 baino ez dizkit hartuko. Jerusalemdik Hebronera joan-etorria eta Hebronen batetik bestera eramatea sartzen da prezioan. Aste osoko aurrekontua hautsi dit, triskan-

tza egin dit, baina ez dut beste erremediorik, Hebronera sartu nahi badut. Egunotan tiroka eta harrika ari dira soldadu israeldarrak eta gazte palestinarrak hirigunean, eta militarki itxia dute hiria israeldarrek. Garraiobide arruntekin ez dago sartzerik. Bassemek «prentsa-laguntzaile» agiria du eta Hebrongo zirrikitu guztiak ezagutzen bide ditu.

Eta Golkoko Gerraren ondoren erositako hiru apartamentuak ez ditu aski.

Planta oneko gizona da Bassem jerusalemdarra, indartsua. 32 urterekin, 20 urteko emaztea eta hiru seme-alaba ditu. Orain lau urte ezkondu ziren.

– Ez dakizu ze emakume azkarra dudan! Arin baino arinago ikasi du etxeko lanak egiten eta sukaldean primeran moldatzen da! Orain Jordanian daude. Hara bidaltzen ditut lan handia dudanean, denok lasaiago ibiltzeko.

«Press» dioen txarteltzarra eserleku azpitik atera eta bolante aurrean jarri du, kanpotik aise ikusteko moduan, urrutira soldaduen kontroleko auto-ilara bistaratu dugunean. Ilaran itxoin gabe aurrera egin du Bassemek. Soldaduak ez dira

asaldatu –«Press» gara–, baina agiriak eskatu dizkigute, fidakaitz. Aurrera.

Klaxon hotsak eta trafiko nahaspilak egin digute ongi etorria Hebron hirigunean. Eta tiroen danbatekoek. Autotik jaitsi orduko entzun ditugu lehenengoak, azokaren ondoan. Eguneroko ogia dute: tirorik entzun ez balu bezala jarraitu du saltzaileak saltzen eta erosleak erosten. Entzun ere ez zuten egingo gainera. Igandea da. Lan eguna.

Taxista lanari utzi eta kazetari laguntzailearen zereginari lotu zaio berehala Bassem handia:

– Kale honetan barrena joz gero helduko ginateke borrokagunera, baina bekokian tiroren bat jasotzeko arriskuan geundeke. Bestaldetik sartuta israeldarren atzean ipiniko gara, arrisku izpirik gabe.

Alde zaharreko merkatuko kaleetan barrena eraman nau, israeldarren agindupeko eremuan.

– Begira, jabea arabiarra delako dago itxita gasolindegi hau –burdin saretan bilduta daude gasolina-hornigailu guztiak–. Palestinarren autoek hona sartu ezin dutenez, eta kolono israeldarrek berari erosten ez ziotenez, zarratu egin du.

Jeep militarrak babestuta, autobus bat heldu da atarian hamar bandera israeldar dituen etxe aurrera: banan-banan jaitsi dira bidaiari gazteak, pistolak eta arma luzeak agerian dakartzatela.

– Ikasle juduak dira. Nesken eskola arabiarra zena *yeshiva* bihurtu dute juduek; badakizu, judutarren erlijio-eskola. Inguruetako kokagunetatik etortzen dira. Etxeari bi solairu gehiago erantsiko dizkiote laster, obretan hasiak dira.

Autobus geltokia zena israeldarren kuartel militar bilakatua erakutsi dit Bassemek. Aldamenean zeuden barazki eta fruta saltokiak ez daude dagoeneko.

– Txikitan aitarekin astero etortzen ginen Shuhada kaleko barazki azokara. Barazkia hemen bezain freskoa ez zen aurkitzen Jerusalemen.

Israeldarren kontrolpeko lurra da, baina merkatu arabiarra da. Palestinarren saltokiz ingurratuta gaude eta batik bat palestinarrak ditugu inguruan, baina Bassemek israeldarrak baino ez ditu ikusten. «Begira, soldaduak», esan dit. «Begira, tankeak», gero. «Begira, Daviden izarra». «Begira, soldadu gehiago. Shallalla kalera doaz,

erreleboa ematera». Gero eta ozenago entzuten dira tiroak.

120.000 palestinar bizi dira Hebronen. Arafaten Gobernuaren esku dago hiria aurten bertan sinatutako protokoloaz geroztik, baina hiriaren erdigunean ehundaka gutxi kolono judu bizi direnez, asentamenduaren inguruko eremu zabal bat israeldarren agindupean dago. Musulmanek Ibrahimen meskita eta juduek Patriarken Hilobia esaten dioten tenplua lur israeldarrean dago. Azokako kale nagusia, Shallalla kalea, erdibituta. Soldadu israeldarrak alde batean, gazte palestinarrak bestean.

Kalearen erdian, muga-mugan, zortzi soldadu daude. Ezker-eskuineko etxeen teilatuetan etzanda bi, kale erdian ipinitako harritzar errektangularretan babestuta beste seiak. Haien atzean, hogei bat metrora, hartu dugu babesa Bassemek eta biok, beste dozenerdi kazetariren arrimuan. Armen ahoak kalearen bukaerara begira dituzte soldaduek, Hebron autonomora begira. Tarteka, azken etxeko kantoian dauden gaztetxoetako batek harriren bat edo botilaren bat jaurtitzen duenean, tiroz erantzuten dute

soldaduek. Harriak eta botilak ez dira soldaduengana inguratu ere egiten.

Soldaduen ezkerretara, bospasei metrora baino ez, 50 urtetik gorako lau palestinar aulki banatan daude egun pasa, atzean duten etxearen gerizak bizkarrak zaintzen dizkiela, egunerokо ikuskizunari zeharka begira. Ikusle gehiago bada: kazetariok baino atzerago, baina gugandik gero eta gertuago, hogei bat haur eta gazte palestinar ari dira zokomiran.

Polizia palestinarrik ez dabil inguruotan. Liskarretatik urruti dabiltza, trafikoa zuzentzen. Kalearen erdikada palestinarrean zabalik daude dendak, baina hutsik. Erdikada israeldarrean, militarren aginduz, hertsita daude ate guztiak.

Molotov koktel pare bat bata bestearen atzetik erori dira militarrengandik ondo hurbil; harritzarretako batean jo du batek. Tiroka erantzun diete israeldarrek eta –heldu baita eguneko irudia hartzeko tenorea– argazki nahiz telebista kamerak soldaduen aldameneraino joan dira. Tiroa orain tiroa gero, danbateko bakoitzean jauzi egiten dut. Bakarra naiz. Ez naiz gerra kazetaria.

Bi argazkilari, kasko eta guzti, soldadu lerroaren atzealdea utzi eta aurrez aurre jarri zazkie, metro eskasera, hormaren kontra bizkarra. Bala fusilaren ahotik irteten den unea izoztu nahi dute klik batekin. Bala kameratik barrena ahoko zuloraino sartuko zaiela ematen du, gure ikuspuntutik. Urrutira, kale kantoitik harria edo botila jaurtitzen duen besoa baino ez da sumatzen lantzean behin.

«Ikusleak» guganaino heldu direnean soldadu bat etorri eta denak atzera bidaltzen hasi da, ordu laurdenero errepikatzen den operazioan. Ezaguna egin zaio haur baten musua soldadu gazteari.

– Zergatik ez haiz gaur harri botatzen ari? –barrez ari da soldadua, mutikoari atzera bultzatzen dion bitartean–. Gaur lasaiago hago orduan?

– Ezagutu egin du! Ezagutu egin du! –algaraka egin dit itzulpena Bassemek–. Seguru alde honetan begira dauden umeetako asko atzo bestaldean ari zirela, harriak jaurtitzen!

Ez da Bassem txantxarako gogoz dagoen bakarra. Beste soldaduak arma behar den tokira

zuzenduta adi-adi zeudela, pauso batzuk atzerantz, gure aldera, eman ditu soldadu batek: botila huts bat hartu du, eta bere bi lagunen ondoko hormara indartsu jaurtiz txikitu du. Beira hautsiaren zaratak ustekabean harrapatu ditu soldaduak eta, jiratuz, fusilak inguruko teilatuetara begira jarri dituzte, eskuin ezker mugituz, botila nondik bota duten asmatu ezinik. Berehala konturatu dira lagunak ziria sartu diela eta barrezka hasi dira denak. Gure aldean ez da algararik entzun. Ni seko harrituta eta Bassem sutan, udako trumoia baino amorratuago:

– Gure aldera tiro egin zezaketen ero horiek!

Albotik arabieraz antzeko zerbait esan diote. Badirudi, imintzioengatik, ados daudela haserrean.

Mugak erdiz erdi harrapatzen duen etxetik irten den palestinarra ez dakit ziur ze umorez datorren, bi besoak altxatuz eta barre eginez datorren arren. Egunotako bizimoduaz galdera egiteko beta izan dut.

– Bizi? Hemen ez dago bizitzerik! Nola bizi gerra honen erdian? Eta nola hazi gure umeak?

Soldaduetako batek, bitartean, haren etxeko teilatutik egiten die tiro gaztetxoei. Leihoetako kristal guztiak hautsita daude.

Bestaldetik heldu zaigun anbulantzia hotsak gerrara itzularazi gaitu. Eskuan ohatila daramatela lasterka batean zeharkatu dute errepidea laranja kolore biziko petoko bi gaztek. Plastikoz estalitako burdinazko baletako batek norbait jo du, nonbait. Harriak eta botilak ugaritu egin dira, gure alderantz hegan, baina ez dira jomugara ailegatzen. Orroak bai, orroak ondo ailegatzen dira. «Putakumeak!», oihukatzen dute gazteek behin eta berriro, arabieraz. Soldaduak, kieto. Ezin dute harritzarrek markatzen duten muga pasatu, ez daukate Palestina autonomoan sartzerik.

Avraham Avinu kokagunearen defentsarako daude soldadu israeldarrak Hebrongo hirigunean. 1.500 soldadu 400 judu babesteko.

Adreilu zuriko etxe berri eta handia da asentamenduaren gunea. Beste etxe bat baino ez dut

ikusten inguruan. Sarreraren kaleko denda guztiak, dozena bat bai, itxita daude.

– Ez daukate bezerorik.

Urduri puntua sumatu diot Bassemi. Barrura lagunduko dit, hebreeraz moldatzen omen da eta.

«*The market was built on Jewish property, stolen by Arabs, after the 1929 Masacre*».

Urrutitik irakur daiteke etxearen goiko aldean paratu duten esaldia, hebreeraz nahiz ingelesez. Juduen jabegoa zela, alegia, orain palestinarrek merkatua jarria duten lurra. 1929ko sarraskian lapurtu zietela arabiarrek. Kokagunea arabiarren azokaren erdian ipintzean juduena zena juduentzat hartu besterik ez dutela egin.

Juduen komunitatea luzaroan bizi izan zen Hebronen, 1929ko arabiarren altxamenduko gertaera odoltsuen ondoren –palestinarrek 67 judu hil zituzten–, Agintaritza Britainiarraren Poliziak juduak ebakuatzea erabaki zuen arte. Ia mila judu bizi ziren orduan Hebronen.

1968an lau familiak Hebrongo hotel zahar bat hartu zutenean itzuli ziren juduak hirira. Hiri-

gunean, orain Avraham Avinu asentamendua dagoen lekuan, ez ziren 1980ra arte kokatu.

Soldaduek bi aldiz galdetu eta behin miatu gaituzte, sartzen utzi diguten arte. Bozeramailearekin hitz egin nahi dugula esan die Bassemek, hebreera txukunean antza, hebreera ezin hobean bere hitzetan.

– Ez dira konturatzen arabiarra naizela. Judua naizela uste dute! –bihurri aurpegia jarri du.

Baina alferrik etorri gara. Jerusalemera joanak dira denak, Netanyahu lehen ministroaren egoitzaren aurrean protestaldia egitera. Segurtasun neurri zorrotzagoak behar dituzte. Soldadu gehiago.

Merkatua zeharkatuz eremu autonomo palestinarrera jo dugu atzera, Shallalla kalearen kontrako ertzera hain zuzen. Beste kolore bat, arriskuaren kolore bizia, dute istiluek hemendik behatuta: soldaduen arma luzeek, urrutitik, guri begiratzen digute, noiznahi tu egiteko prest.

– Hurbildu egingo naiz. Itxoin hemen minutu bat –baiezkoa egin dit buruarekin. Kazetarion «ausardiara» ohitua dago Bassem.

Hamabi bat mutil koskor, ume gorriak batzuk, zenbatu ditut kale kantoian pilatuta. Hamar urte? Zortzi? Lumatzen hasi baino lehenago oldartzen zaizkie okupazioari mutiko palestinarrak.

Haurretako batek, erasorako leku onena hartua duenak, txardangoa darabil harriak jaurtitzeko, baina txikiena eskean ari zaio behin eta berriro. Jaramonik ez dio egin luzaroan, baina azkenean bai, itzuli egin dio txardangoa txikiari. Berea zen, zer demontre!

Zapata denda baten atarian hartu dut babesa, tiro bat gertu samar igarri dudanean.

– Erreportaria? Zergatik ez duzu guri buruz idazten? –denda barrutik etorri da gonbita.

Aulki banatan eserita daude Mussa, dendako nagusia, eta bere adiskidea, Samih. Aurrez aurre eseri natzaie, Mussak ekarri didan aulkian.

– Negozio handirik ez duzu egingo egunotan –denda hutsari begiratua bota diot.

– Egoera honetan ez dago etorkizunik nire dendarentzat. Etortzen den edonork opari berezia eraman dezake: bala bat buruan. Soldaduek ez dute bereizten: emakumeak, umeak, agu-

reak... Eta, jakina, zapata pare batek, onena eta merkeena izanda ere, ez du horrenbeste merezi.

– Harriak jaurtitzen dituzten palestinarrak oso gazteak direla iruditu zait.

– Haurrak dira! Eta soldaduek tiro egiten diete!

– Zortzi-hamar urte baino gehiago ez dituzte –hitza kendu dio Samih lagunak, lehor.

– Sei urtekoak ere badabiltza tartean! Eta soldaduek tiro!

– Bassem! –oihu egin diot denda barrutik, ataritik pasatu denean.

– A! Hor zaude. Minutu bat esan didazu!

Ahaztua neukan gizonkotea.

– Tira, bagoaz –zutitu egin naiz, Samih-ri aurrena eta Mussari gero bostekoa luzatuz–. Ea istilu hauek amaitzen zaizkizuen.

– Istilu hauek ez dute akaberarik izango, juduen kokaguneak hemen dirauen bitartean. Alde egiten ez badute, ez dago irtenbiderik. Eta kaleko borrokek hor segituko dute, harriak ahitzen ez diren artean behintzat.

– Goldsteinen hilobia bisitatu nahi? –Bassem planak egiten ari zait berriro– Qiryat Arban dago.

Hiriaren irteerako muinoan nabarmentzen den herria da Qiryat Arba, Hebron inguruko kolono kokagune nagusia. Harako bidean, kolono gazte bat norbaiten zain-edo dago bideguru-tzean. Burugaina estaltzen dion *kippa*-k adierazten digu judu erlijiosoa dela. Auto-stop egiten ari ote den iruditu zaio Bassemi.

– Hartuko dugu? –kazetari laguntzailearen agiria ez du alferrik Bassemek.

Kippa, bizarra eta betaurrekoak urrutiagotik ikusiak nizkion, baina automobilera arrimatu den arte ez naiz jabetu pistola daramala, ondo agerian eraman ere, praka bakeroetako gerrian sartuta. Behin auto barruan, jatorriaz galdetu diot.

– Israel iparraldeko herri batekoa –hizketarako gogo handirik ez du.

– Nolatan etorri zinen Hebronera, Israelen muga barruko herri batetik? Hemengo bizimoduak ez dirudi oso lasaia...

– Yeshivan ikastera etorri naiz.

Bizar luzeak oso aurpegi gaztea ezkutatzen diola ohartu naiz. Hogei urte asko jota.

– Hemengo gorabeherekin amaitzeko modurik ba ote da?

– Pazientzia da giltza.

– Helduko da noizbait irtenbidea?

– Zer irtenbide bilatzen duzun. Israeldarrok gure lurrean bizitzeko bidea bilatzen dut nik, eta hori helduko da. Pazientzia besterik ez dugu behar.

Ikaslea sarreran utzi eta Qiryat Arba barrura jo dugu guk, autoz. Herri erne berriaren itxura du 1971n eraikitzen hasitako asentamenduak. Adreilu zurizkoak dira etxe guztiak, kokagune gehienetan bezala. 4.000 judu inguru bizi dira hemen.

Kaleko jantzian oinez doazen gizonezko askok armaren bat daramate aldean. Pistola bat, edo subfusila. Eta armarik erakusten ez dutenek, motxilatxoa dute bizkarrean.

Baruch Goldsteinen gorpua ez zuten hilerrian lurperatu, Qiryat Arbaren erdigunean baizik, hilobiarentzat propio eraikitako plazatxoan. Ezker-eskuin lorategiak dituen pasagunetik barrena iritsi gara hobira. Zortzi bat metroko diametroa duen harrizko biribila da zorua, zutabe

batzuk inguruan eta, erdi-erdian, bi farol alboetan dituela, Goldstein.

– Heroiaren hilobia egin diote! –ahapeka mintzo zait Bassem. Etsaiaren lurrean dago.

Hilarriak dioena itzultzeko eskatu diot.

– «Aqadosh doctor Bruj Kafel Goldstein». Aqadosh hitzak «santu» esan nahi du. «Bere bizia eman zuen Israelgo herri osoaren alde. Juduen erlijioaren alde hil zen. Eskuak garbi eta bihotza aratz zituen» –itzulpena gutxi gorabeherakoa egin didala adierazi didate Bassemek duda-mudek, baina balio dit–. Toraren aipamena dator gero, baina ez dut ulertzen. Korana bezala da Tora, baina juduena, badakizu.

Alde egitean bi lagun gurutzatu ditugula, are isilago hitz egiten dit Bassemek, sisibasan:

– Bi horiek Goldstein gurtzera doaz! 29 lagun hil zituen eta heroitzat daukate! Santutzat!

Ardi haragia arrozarekin eskatu dugu biok, eskatu gabe ateratzen dizkizuten lau entsaladekin batera jateko. *Hummus*-a ere nahi du Bassemek. Garbantzo egosi xehetuz egiten da hummusa,

sesamo eta espezieez ondua. Mahonesa zuri baten itxurakoa, olio gordinaz lagunduta jaten dute, ogitan jarrita maiz. Bi Coca-Cola edan ditu Bassemek, eta litro t'erdiko ur botila ia osorik nik. Palestinan nabilenetik egin dudan otordurik ederrena. Bassemek badaki non dabilen. Kazetari profesionalak ordaindu du kontua, noski.

Avraham Avinutik bertatik bertara dagoen Ibrahimen meskitara –Patriarken Hilobia juduentzat– jo dugu bazkari-meriendaren ostean. Tenplu honetan, juduen bigarren gune sakratua Mendebaldeko Harresiaren ondoren, Abraham eta Sara, Isaak eta Rebeka, eta Jakob eta Lea patriarkak ei daude lurperatuta. Musulmanen leku gurtuen artean laugarrena da, Meka, Medina eta Jerusalemen ostean.

Banatua dute tenplua, zati txikiena musulmanentzat da eta zabalena juduentzat, baina soldadu israeldarren mendean dago osorik, alde musulmanera sartzeko pasatu behar izan ditugun bi kontrol militarrek argi adierazi digutenez.

– Kristaua zara? –nire pasaporteari begira egin du galdera soldaduak.

– Bai.

– Aurrera. Grabagailua hemen utzi behar duzu; irtetean itzuliko dizugu.

Zaindari musulmanak hartu gaitu, zapatak erantzita sartu garenean. Dozena bat lagun daude, meskita barruan, otoitzean eta Korana irakurtzen. Meskitan bertan dituzu eskura neurri eta kolore desberdinetako Koranak, arabierazko kaligrafia ederrean, errezatu barik ikusteko ere.

– Ni errezatzera noa, zaindariak erakutsiko dizu meskita.

Baina zaindariak ez dit meskitari buruzko azalpenik eman. «Hemen duzu tiro baten arrastoa». Boligrafoz egindako biribilak inguratzen du zuloa. «Hemen beste bat», «han goian beste bat»... Atzamarrekin seinalatu dizkit banan-banan Goldsteinen tiroen aztarnak.

Bassem, guri bizkarra emanda, hormari begira dago, belauniko eta burua makurtuta. Horma berean pausatu ditut begiak, eta Meka ikusi dut. Zaindari zaharraren keinuek alfonbra batzuetara eraman didate begirada: orain gutxi arte odolez egon dira.

– Garbitu berriak dira –ez dakit barkamena eskatzen ari zaidan–. Hara, tiro gehiago hemen

–lurrean eserita metro koadroko Koran erraldoia irakurtzen ari zena mugiarazi du, kazetari arrotzak bala arrastoak aisago ikus ditzan.

111 tiro egin zituen Baruch Goldstein medikuak asaltorako erriflearekin, erreserbako soldaduaren uniformea jantzita, 1994ko otsailaren 25eko goizeko bostetan, ehundaka palestinar errezuan ari zirenean. 29 lagun hil eta 67 zauritu zituen. Palestinarrek, beren herioan, bertan garbitu zuten Qiryat Arbako kolonoa.

– Sarraskia gorabehera, bederatzi hilabetez itxi zuten meskita. Eta zabaldu dutenean, zatituta egin dute. Sarraskiaren aurretik, osorik zen musulmanentzat. 1.500 kabitzen ginen. Orain, aldiz, 300, eta estu.

Shallalla kalera joan gara berriro, Jerusalemerako bidea hartu aurretik. Erretiradan ari dira azken txandako zortzi soldaduak. Karramarroaren tankeran atzerantz ibiliz datoz, bidean zabalik topatzen dituzten ate irekieetara subfusila destatuz.

Hamabost lagun zauritu dituzte gaur. Amaitu dute lana gaurkoz.

«Diktadura izugarria dugu»

Lehendik ezagunak nituen bere bekoki luze-zabala, ile urri urdindua eta begitarte tristea. Asko ikusiaren poderioz nekatuta baleuzka bezala pausatzen zaizkio begiak begizulo handietan. Madrilgo Konferentzian ordezkaritza palestinarreko buruzagi gisa ikusia nuen telebistaz 1991n. Sei urte geroago, bekoz beko daukat Heider Abdul Shafi medikua, Palestinako politikari errespetatuenetakoa.

Palestinako Kontseilu Legegilerako hauteskundeetan, 1996an, bera izan zen hautagai bozkatuena –58.119 gazatarrek eman zioten botoa–, independente gisa aurkeztuta, Fatah alderdiko hautagai guztiak atzean utzita. Palestinaren Askapenerako Erakundearen (PAE) fundatzaileetakoa eta aurreneko zuzendaritzako kide izan zen 1964an. Madrilgo eta Washingtongo konferentzietan ordezkaritza palestinarreko burua izan zen baina, Osloko akordioekin bat ez zetorrenez, elkarrizketen azken txanpan utzi egin zuen ne-

goziazio taldea. Palestinako Ilargierdi Gorriko lehendakaria da orain.

Gazan jaio zen duela 78 urte eta han bizi da. Gaur Ramallara etorri da, Palestinako Legebiltzarreko saiora. Hormak zuri dituen gelatxoan eseri gara, bulegoetako mahai eta eserleku merketan.

I.M.U: Palestinako ordezkaritzaren buru zinen baina azkenean utzi egin zenituen negoziazioak.

Heider Abdul Shafi: Madrilgo Konferentziaren ondoren Washingtongo negoziazioak hasi zirenean, kolonoen asentamenduen hedatzea gera zezala eskatu genion Israeli, Nazio Batuetako 242. ebazpenean oinarrituta. Gainera, Lurralde Okupatuen behin-betiko estatusa erabakiko duten azken negoziazioetan eragingo lukeen aldaketarik ez egitea hitzartuta zegoen prozesuaren hasieran. Baina Israelek uko egin zion. Gure liderrari, Arafati, adierazi nion ez zuela zentzurik negoziazioekin jarraitzeak. Israelek bakea nahi zuela pentsatuz eseri baikinen mahaian. Baina lidergo politikoak ez zuen uste negoziazioak bertan behera utzi behar genituenik. Gero, usteka-

bean, ezkutuan akordioa lortu zela jakin genuen. Nik ez nuen negoziazio haien berririk.

I.M.U: Ordezkaritzaren buru zinen eta ez zenekien ezer?

H.A.S: Ez zidaten informazio hori eman. Ez nintzen horregatik ernegatu, baina espero nuen lortutakoa, Osloko akordioa, ona izango zela. Alta, irakurri nuenean, txarra zela jabetu nintzen, eta horixe esan nuen. Nik ez nuen sinatu. Ez daukat zerikusirik Osloko akordioekin. Hutsune asko ditu, eta larriena kolonoen kokaguneen auziari ez diola aurre egiten. Washingtongo sinatze-ekitaldian akordioa izugarri ona zela esan zuten, bakerako bidea zabaldu zuela. Ospakizun liluragarria. Ikusita ere ez sinestekoa; harri eta zur nengoen. Aurrerago, ordurako negoziazio taldea utzita, Arafatengana jo eta esan nion: «Zer ari da gertatzen? Ez dut uste jendeari dena ondo doala esaterik dagoenik, negoziazioei berrekitean Israelek asentamenduak hedatzen segi duenean. Negoziazioak utzi behar dituzu, sinatze ekitaldian emandako irudia zuzendu dadin, eta nazioarteko komunitateak jakin dezan zer ari den gertatzen». Baina ez zen ezer gertatu. Zain-

du beharreko bake prozesu sinesgarria zela eta abar esanez segi zuten. Beraz, gure lidergo politikoak ez zion kokaguneen politikari kontra egin, eta ondorioz, Israelek bere jokaerari eutsi dio Lurralde Okupatuetan.

I.M.U: Oslo sinatu zen, eta horixe dago gaur. Nola egin aurrera?

H.A.S: Oso egoera zailean gaude. Premiazkoena batzea da, denon arteko akordioa lortu eta horren arabera jokatzea. Jakina da Hamasek indarkeriaz borrokatu nahi duela. Ni ez nago, printzipioz, aurka. Izan ere, Israelen jarrera, modu egokian ulertzen badugu, borrokarako gonbita da. Baina ez dut uste guretzat baliagarria izango denik orain indarkeria erabiltzea. Ezin duzu borroka egin prestaketarik gabe, plangintzarik gabe, antolaketarik gabe. Borrokara jotzekotan, aho bateko akordioa lortu beharko genuke aurretik.

I.M.U: Batasunerako bidean bada zerbait egina?

H.A.S: Ni neu horretan ari naiz. Gure lidergo politikoa hondoa jota dago, sinesgarritasuna galdu du eta, egun, ez da gauza egoera honi

aurre egiteko. Demokraziaren behar gorria dugu.

I.M.U: Palestinako Agintaritzan, esan nahi duzu?

H.A.S: Diktadura izugarria dugu. Horixe dugu.

I.M.U: Lau urte daramazue Arafaten Gobernuaren agindupean. Balantzea?

H.A.S: Galtzen joan gara etengabe. Lorpenik ez, oso gaizki. Eta Israel palestinarren gune populatuetatik erretiratu izana ez da lorpena. Israeldarrak, nolanahi, lur horietatik erretiratzeko desiratzen zeuden, nekatuta zeuden palestinarrei aurre egiten. Negoziazioak etengo bagenitu ere, israeldarrak oso uzkur leudeke Zisjordaniako hiri barneetara itzultzeko.

I.M.U: Badirudi Israel prest egon daitekeela Gaza osoa palestinarren esku uzteko, baina ez du jarrera bera Zisjordaniarekin.

H.A.S: Hori da gure ustea. Azken batean Gazan ez dute interesik, baina prezioa ordainarazi nahi digute: Gaza osorik utziko ligukete guk beste arloetan amore ematearen truke.

I.M.U: Zisjordaniako zortzi hiri autonomo dira, baina inguru osoa israeldarren esku dago. Hiri autonomoek Zisjordaniako lurraren %3 baino ez dute osatzen.

H.A.S: Bantustanak ditugu! Estatu palestinarrak etorkizunik ez du bide honetan. Israel ahal duen oztopo guztiak jartzen ari da guri mugimendurako aukera murrizteko. Kolonoen asentamenduetako populazioa %40 hazi da Osloko akordioetatik hona. Ehundaka mila kilometro koadro konfiskatu ditu Israelek Osloz geroztik. Honek guztiak palestinarren jarraikortasun demografikoa hautsi du, bantustanak sortuz. Azken batean, Israelek bere sustraiak errotu egin ditu Zisjordanian.

Marra berdea

Kibbutz-eko jangelan isil-deiak entzun ditugunean begitartea okertu eta ezpainak zimurtu ditu Soniak. Ostiral gaua da, *sabbath*-a hasi da beraz, eta gazteek otoitz egin nahi dute afaldu aurretik. Baina Megido kibbutza, kibbutz gehienak bezala, laikoa da oso.

– Segi dezagun hizketan. Horixe besterik ez genuen behar! Haiek errezatzeko guk hitzik egin ezin!

Baina gazteek, hogeita hamar bat mahai luze batean, ez dute etsi. Altxa ere egin dira hiruzpalau, atzamar bizkorra ezpainetara eramanez atzera isiltasuna erregutzeko. Asko isilarazi dituzte, baina nire mahaikiderik ez.

– Joan daitezela kanpora isiltasuna nahi badute –Mario ados dago Sonia arrebarekin.

– Jantoki honetan ez da sekula errezatu!

Isiltasun erabatekoa lortu gabe ere hasi egin dira gazteak. Kippa beltza duena dute gidari, eta Tora eskuan dute bakarren batzuek. Otoitzari nola-hala jarraitzen diote gehienek.

– Kibbutzera bisitan etorritako frantziarrak dira –azaldu dit Soniak–. Bertakoak ez dituzu jangelan errezatzen ikusiko.

Otoitz apalaren ondotik kantu ozena etorri denean piztu da kalapita. Eserlekutik altxa gabe burua atzera jiratuta zuzendu zaie Sonia frantziar gazteei:

– Aizue! Errespetu pixka bat! Isilago abestu ezazue.

– Sabbatha da! –ozen, gazte batek.

– Eta?

Bizkarra eman die Soniak, berriro guri begira.

– Ez du zentzurik. Afaltzen ari diren jakiak ere ezingo lituzkete jan, arau erlijiosoei jarraituta.

Azpilari begiratu diot: ez dago txerrikirik; barazki-zopa eta txahal-haragia saltsan arrozarekin. Horixe dugu afaltzeko denok kibbutzeko jantokian.

– Ez da *kosher* janaria. Judu erlijiosoek ezin dituzte zenbait jaki nahasi, eta jangai pila bat aparteko eltzetan egin behar dituzte. Ez duzu kosher jatetxerik ezagutu Jerusalemen?

Jerusalemdik urrun gaude, Megidon, Israelen eta Zisjordaniaren arteko iparraldeko mugaren ondo-ondoan, Israelgo Estatuaren barruan. Antzinako arkeologi aztarna garrantzitsuengatik da ezaguna Megido munduan. Bertako espetxe handian ehundaka preso palestinar egon direlako, eta oraindik daudelako, da ezaguna Megido palestinarren artean. Baina ez aztarnek ez kartzelak ekarri naute hona: holokaustotik ihesi etorritako hirurogei judu poloniarrek Lajun herri palestinarraren hondarren gainean 1949an sortutako komunitate sozialista, kibbutza, ezagutzera etorri naiz.

Urbanizazio aberatsaren itxura du Megidok. Oinezkoen bideek hamaika puskatan zatitzen duen berdegune handia da kibbutza. Palestinako lurraren gorrira ohitzen hasi diren begioi atsedena ematen die kibbutzaren berde hezeak.

Berdin-berdinak dira etxebizitza guztiak, familibakarrak deritzotenak, eta lorategidunak. Umeentzako zabuak dituzte han eta hemen, eta igerilekua ere bada kibbutzaren erdian, bisitarientzako hoteltxo txukunetik oso hurbil. Hortxe hartu dut ostatu.

Hirurehun lagun bizi dira kibbutzean. Gehienek bertan egiten dute lan, eta hilero soldata bera jasotzen dute guzti-guztiek: 700 xekel (30.000 pezeta hor nonbait). Hasierako urteetan nekazaritzak ematen zuenetik bizi ziren, eta gaur egun bitxitegi fabrika da diru eta lanpostu iturri nagusia. Batzuek kibbutzetik at egiten dute beharra, baina kanpoan irabazitako soldata osoa komunitateari eman eta 700 xekel jasotzen dituzte hileroko gastuetarako.

Dirutan eskuratzen ez dutena zerbitzutan jasotzen dute, ordea. Jantokian ia doan egiten dituzte otordu guztiak, auzolanean arropa garbitu, lisatu eta, behar izanez gero, josi egiten diete, hogei auto ditu komunitateak behar duenak noiznahi erabiltzeko, ikasketa guztiak –unibertsitatea barne– kibbutzak ordaintzen ditu, osasun zerbitzu guztiak ere bai... Komunismoa bizi dute, Israel kapitalistaren barruan.

– Alderdi laborista baino ezkerrago dagoen Meretz alderdiari ematen diogu botoa gehienok, baina kibbutzeko hautestontzietan alderdi erlijiosoentzat eta Likudentzako botoak ere agertu izan dira. Nolanahi ere, kibbutzeko kide ez diren

batzuek ere gure leku berean bozkatzen dutenez, ezin jakin guretakoak diren edo kanpokoak –kikara kafez betetzen didan bitartean mintzo zait Mario.

– Alderdi erlijiosoentzako botoak kanpotik etorriko ziren, soldaduak seguruenik, baina ni seguru nago gure auzoak, Estherrek, Likudi ematen diola botoa. Beldurrak airean bizi da, arabiarrek eraso noiz egingo zain. Segurtasuna nahi du. Soldaduak, Polizia.

Zisjordaniako muga, *marra berdea*, bost kilometrora du Megidok. Halaxe daude kibbutz asko, 1948ko gerraren ostean ezarritako muga defendatzeko eratu baitzen orduan kibbutz andana bat, mugaren ertzean segurtasun-lerroa osatuz. Gaur egun ere, Israelgo Armadak soldadu bat jartzen du egunero sarrerako langa metalikoaren ondoan, zaindari lanak egin ditzan. Kibbutzeko kideek, txandaka, bikotea egiten dute soldaduarekin. Egunez irekita egon ohi da langa, baina iluntzetik aurrera ez. Zaintza egiten ari direnen baimena behar da sartzeko eta irteteko.

– Nik ere soldaduak nahi ditut –dio Mariok–. Inguruan zenbat eta soldadu gehiago, orduan eta lasaiago ni.

Jerusalemgo autobus geltoki nagusiarekin gogoratu naiz. Bizkarrean asaltorako fusil bana zeramaten soldaduak –gizaseme nahiz emakume– baino ez zebiltzan inguruan. Megidora gerturatu nauen autobusaren barruan ere mordoska zetorren, eta zibil askok ere arma agerian zekarten.

– Harrigarria egiten zait kalean-eta hainbeste soldadu armatu ikustea. Ez nago ohitua eta, egia esan, urduri jartzen nau. Autobusean, zibil jantziko batek gerrian zuen pistolari begira etorri naiz bide osoan, begiak apartatu ezinik.

– Ni ere ez naute lasaitzen soldaduek, baina uler iezaiozu nire nebari: soldadua da.

Gazte aspaldi izandakoa da Mario, berrogei urtetik gora baditu lepoan, baina gizonezko guztiek bezala, gaztaroan hiru urteko soldadutza bete zuenetik urtero hilabeteko zerbitzua egiten ari da Armadan. 51 urte betetzean utziko dio erreserbako soldadu izateari. Emakumeek ere

egiten dute soldadutza, urte t'erdikoa, baina erreserbako zerbitzurik ez gero.

– Soniari ere ulertu egin behar zaio, alaba intsumisoa irten zaio-eta –ezpainak okertuz barre txikia egin du Mariok, arrebari zeharka behatuz.

– Oso intsumiso gutxi dira hemen, eta oso gaizki hartuak. Nire alabak uko egin zion soldadutzari, eta azkenean kibbutza utzi behar izan zuen, komunitateak onartzen ez zuelako. Ez dakizu Armadak gure gizartean, kibbutzetan bereziki, zer garrantzi duen! Nablusen atzo gertatuaren berri baduzu?

Labanaz eraso egin zien palestinarra tiroz hil zutela bi soldaduk irakurria nago egunkarian.

– Gure kibbutzekoa da bi soldadu horietako bat. Heroia hemengo jendearentzat.

– Irakurri dudanagatik, badirudi palestinarra hil beste irtenbiderik bazutela soldaduek –eztabaida pizten saiatzera ausartu naiz–. Soldadu batek palestinarra ostikoka mendean hartu zuela dio egunkariak, eta ondoren tirokatu zuela besteak.

– Hala dirudi, baina aitortu behar dut neronek ere ulertu egiten dudala soldaduaren jokae-

ra. Izuaren izuz honela erreakzionatzea normala da.

Harritu egin nau Sonia soldaduaren aldera lerratzea. Mariok ez. Soldadua da, israeldar gehienak bezala. Haurrak eta agureak salbu, zibilik ez da Israelgo gizasemeen artean.

– Arauak oso zorrotzak dira Armadan, armen erabilerari dagokionez. Inork tiro egiten badizu eta kale egin, zuk ezin duzu hiltzera tirokatu. Aurreneko tiroa gora egin behar duzu, gaztigu gisa, gero hanketara, eta ondoren bakarrik tira dezakezu gorputzera.

Ezkertiar bezain sionista dira kibbuztarrak, eta sionismoak Israelen defentsa esan nahi du. Kibbutzak beti nabarmendu dira defentsa lanetan, Israelgo Armadan. Israeldarren artean %3 baino ez da bizi kibbutzetan, baina azken mende erdian herri arabiarrekin izan dituzten gerretan (Estatuaren sorrerakoa 1948an, Sei Egunekoa 1967an, Jom Kippur 1973an eta Libanokoa 1982an) hil diren soldadu israeldarren laurdenak kibbutzetakoak izan dira.

Militarrei buruz ari ginela, gerri buelta ederreko gizontxoa eseri da Soniaren aldamenean. Ayalon da.

– Daniel zen Argentinatik etorri zenean, baina izen berria hartu zuen hemen eta hori baino ez du erabiltzen –azaldu dit Soniak, Ayalonek buruarekin baietz egiten duen bitartean–. Mariok berak ere izen berria hartu zuen etorri zenean! Moshe. Baina izen zaharrez deitzen diogu denok.

– Ia denok. Armadan Moshe esaten didate.

– Zergatik izena aldatu, Mario?

Duda egin du, nire galderari erantzun aurretik.

– Israeldarrago izateko.

Soniak eta Mariok hebreeraz egiten dute elkarrekin, Txilen sortutako neba-arrebak diren arren. Txekoslovakiakoak zituzten gurasoak, beste judu asko bezala Mundu Gerrarekin batera Hegoameriketara ihes eginak. Hogeita hamar urte geroago, baina, berriro jazarpena: Hitlerri ihes egindako aitak ezin izan zion Pinocheti alde egin. Hobi komun batean aurkitu berri dute haren gorpua, desagertu eta hainbat urtera. Aita

hilda, seme-alabek hanka egin behar izan zuten: Txekoslovakiara nahi zuen Soniak, baina ez zioten sartzen utzi; Israel zen beste aukera.

– Baina zu ez zara sionista, Mario –eztenkada eman dio Ayalonek–. Ni, bai.

– Nik ez dakit banaizen, baina zu seguru zaude bazarela? Gu ez gara erlijiosoak. Eta nik ez daukat zerikusirik aitzindari poloniarrekin. Non dago orduan gure arteko lotura? Zerk egiten gaitu herri?

– Ez da erlijioa, baina tradizio erlijiosoak batzen gaitu. Herri bat osatzen dugun sentimendua, eta elkarrekin komunitatea osatzeko nahia. Mundu guztiko juduak gure arbasoen lurrera etortzea da nire ideala. Pertsonaren errealizazioa Israelera bizitzera etortzea da.

– Israelen bizitzea izango da ideala Ayalon, baina bizitoki ideala Euskal Herria –ur handitan igeri egiteko gogo handirik ez du gure herrian egona den Soniak–. Ederra benetan! Eguraldi eguzkitsua dute udan, baina eguzkiak ez du erretzen. Eta itsasoko ura ez da Tiberiadeskoa bezain beroa, ezta Txilekoa bezain hotza ere.

– Ideala! –egin du oihu Ayalonek.

– Erratu egin zineten! –adarra jotzeko makina piztu zait–. Sion Euskal Herrian dago!

– Hala beharko du! –jarraitu dio txantxari Mariok–. Nik beti esan dut: lurralde lehor eta bero hau baldin bada Jainkoaren lurralde aukeratua, ez dut pentsatu ere egin nahi nolakoak diren ez-aukeratuak!

Espetxeari argazkia atera nahi diot –debekatua beti desiratua–, eta bizpahiru kilometro egin ditut kibbutzetik oinez, asfalto lehorrean eguerdiko bero sapan. Gainean arantzadun alanbrea duen hesiak inguratzen du presoen eremu zabal eta lehorra, basamortuaren kolorekoa, eta kanpin-denda moduko batzuk ageri dira urrutira. Sarrera nagusian, jakina, militarrak daude.

Hesia inguratuz pasieran abiatu naiz, argazkitarako ikusmira aproposaren bila, baina leku egokian nengoela uste izan dudanean soldadu bat agertu da, nik ez dakit nondik, Uzi subfusila sorbaldan zintzilik. Inozentearena egitea onena.

– Hau kartzela da, ezta?

– Zer iruditzen zaizu zuri?

– Argazkia atera dezaket?

– Arazorik nahi ez baduzu, ez ezazu bakar bat ere atera. Debekatua dago erabat.

– Ongi da –ez naiz mugitu; bera ere ez–. Hango denda haietan daude presoak?

– Presoak oso ondo bizi dira, janari ona dute. Aire egokitua badute, eta ping-pong mahaiak ere bai.

Jamal Tawil, Al Bireh-ko ikastetxe islamiko bateko 35 urteko zuzendaria, hiru seme-alabaren aita, ping-pongean jokatzen imajinatzen ahalegindu naiz. 16 hilabete egin berri ditu hemen, Megidoko espetxean, joan den hilean, uztailean, askatu duten arte. Jamalek egin zidan kontakizunean ez dut ping-pong partidarik irudikatzen.

«Gure egoera salatzeko oihu eginez protestaka ari ginela, gasekin eraso ziguten. Orduan zerbait erre genuen gure sekzioaren atean eta, erantzuna hain bortitza izan zen, zazpi denda kiskali zituztela. Gu denda horietan bizi ginen! Gasek zauritutakoak denda barruan artatzen ari ginela erre zituzten dendak! Jainkoari eskerrak bizirik atera ginen denok. Gure Jainkoagatik ez

balitz, denak hilda geundeke. Hori joan den martxoan izan zen.

»Megidoko presondegi barruan egindako hilabeteotan horrelako asko jasan nituen, baina garratzena lehenengo sei hilabeteak bete ondoren libre utzi nindutenekoa izan zen. Ni bezalako preso administratiboak akusaziorik gabe giltzaperatzen dituzte, “segurtasun arrazoiengatik”, urte erdirako, eta epe horren ondoren, edo kalera zoaz, edo zigorra berritzen dizute. Azalpenik eman gabe. Lehenengo sei hilabeteak egin ondoren libre utziko nindutela esan zidaten eta, izan ere, espetxeko atean utzi ninduten, aske. “Zoaz etxera”. Autobusa hartzera nindoala, Poliziak atxilotu eta berriro barrura! “Zer egin dut bost minutu hauetan?”, galdetzen nien. Bost minutu! Oso latza da hori. Etxekoak zain nituen Al Bireh-n: seme-alabak, emaztea, ama, anai-arrebak.... Errepideari begira zeuden, eta auto bat begiztatzen zuten bakoitzean, “badator Jamal!”. Eta hurrengoa zetorrenean, “badator Jamal!”, berriro. Baina iluntzeko zazpietan erabaki zuten: “Jamal ez dator. Beharbada bihar”, pentsatu

zuten. Beste hamar hilabete egin nituen Megidoko infernuan.

»Orain aske naiz, baina ez dakit zer dela eta naizen aske. Ez dakit berriro atxilotu nahi nauten ere. Agian hiru ordu barru etorriko dira.

»Ez da justua, baina ulertzen dut, gure etsaiak direla badakidalako. Zauritu egingo gaituzte, atxilotu egingo gaituzte, torturatu egingo gaituzte, hil egingo gaituzte, denetik egingo digute. Badakit. Egin dezakete. Ni neu torturatu ninduten preso hartu nindutenean. Onartzen dut, ez da gogorra niretzat, badakidalako gure etsaiak direla. Kartzelara joan behar badut, joango naiz. Arrazoirik gabe? Arrazoirik gabe. Epaiketarik gabe? Epaiketarik gabe. Akusaziorik gabe? Akusaziorik gabe.

»Baina umeak daude. Ez dira ari gure aurka borrokatzen, gure umeen aurka baizik. Duela egun gutxi bi auto militar etxe ondoan geratu ziren eta 4 urteko alabak nire izterra bere bi besotxoekin bilduz oratu zidan, estu, eta oihuka hasi zen: “Ez eraman nire aita! Ez eraman nire aita!”. Ez ninduten eraman, baina alabatxoak bazekien agian eramango nindutela. Gure seme-

alabek badakite zer gertatzen ari den gurekin; eta hori ez da ona juduen etorkizunerako. Inori axola bazaio juduen etorkizuna, gaztigatu behar die ez gaitzatela horrela tratatu, luzera euren kalterako izango da eta.

»3.500 palestinar daude preso Israelgo espetxeetan. Pentsa zenbat seme-alaba denen artean! Eta horietako 300 preso administratiboak dira, preso zergatik dauden ez dakitenak, noiz etxeratuko diren ez dakitenak. Neuk ere mila aldiz galdetu nien: “Zergatik naukazue preso?”. Beti erantzun bera: “Sekretua da. Segurtasun arrazoiak”.

»Segurtasun arrazoiak? Nik baditut nire iritziak, baina ez naiz inongo mugimenduko kide. Egia da preso administratibo gehienak Osloko akordioen aurka gaudela, Oslo oso gogorra baita irensteko, eta garbi dago ni akordioen aurka egoteak zerikusia duela nire atxilotzearekin. Baina nik ez al dut eskubiderik Osloko akordioen aurka egoteko? Netanyahu bera ere aurka dago eta!».

Argazki eskas batzuk atera dizkiot presondegia inguratzen duten hesiei, ping-ponga aipatu didan soldaduak alde egin duenean.

Ruth eta Joseph-ek telebista, bideo eta musika-aparailuak dituzte etxean. Orain mende erdi Megidora heldu zirenean, ezer ez zegoen orain etxea duten lurrean. Lajun herri arabiarraren hondakinak baino ez. Hegazkin israeldarrek suntsitutako herriaren hondarrak. Eta inguruetako muinoetan, Irak-eko Armadako soldaduak. Gerra zen.

Kibbutzaren aitzindarietakoa da Ruth, eta komunitatea sortu eta urte gutxira bertaratua Joseph. Bide paraleloak egin zituzten, Megidoko kibbutzean bat egin eta ezkondu ziren arte.

Ruthek, Megido kibbutza eratu zuten beste hirurogei judu poloniarrek bezala, II. Mundu Gerran holokaustotik onik irten ondoren jo zuen Palestinako lurretara, artean Israel sortu gabe zegoela. Jaioterrian, Poloniako Czestochowan, harrapatu zuen nazien inbasioak 11 urte zituela, eta hango ghettoan eduki zuten gerrak iraun

zuen urteetan. Naziek aita-amak nola eraman zizkioten ikusi zuen, eta betirako galdu zituela konturatu. Ruthek sarritan gainditu behar izan zituen naziek juduen artean egiten zituzten «selekzioak», bizirik segiko zutenen eta gas ganberan amaituko zutenen arteko hautaketa beldurgarriak. 1945eko urtarrilean errusiarrek Polonia liberatu zutenean Czestochowako Hasag lan-esparruan zegoen Ruth.

Amerikarrek liberatutako Mathaussen kontzentrazio esparruan zegoen, aldiz, Joseph txekiar gaztea. Gurasoek, ordurako, Auschwitzen galdua zuten bizia. Ruth eta Joseph bizirik eta aske zeuden gerraren akaberan, baina bakarrik, beste milaka haur judutar bezala. Nora joanik ez.

– Inor ez nuen herrian eta juduok Europan lekurik ez geneukan –dio Ruthek, egongelako besaulkietako batean eserita–. Irtenbidea gure antzinako lurrera itzultzea zen.

– Eta horretarako bidea erakunde juduetara biltzea. Israelerako emigrazioa prestatzen ari ziren erakundeak ziren gure babes bakarra –ozen hitz egiten digu Josephek, Sonia eta biok ondo-ondoan eserita gauden arren.

1946an heldu ziren Palestinara, bakoitza bere kasa, 17 urterekin Ruth eta 21ekin Joseph. Bidea ez zen hesi eta langarik gabea izan. Erresuma Batuaren agindupean zegoen Palestina eta inmigrazioa mugatua zegoen: 80.000 judu etor zitezkeen Palestinara urtero.

– Legez kanpo etorri nintzen. Joseph ere bai. Gure erakundeak ontzi batzuk erosi zituen, merkeak eta txarrak. Marseillan hartu genuen ontzia...

– Guk Genoan, Italian.

–...oso baldintza eskasetan: 750 lagun etorri ginen ontzi kaskar batean, sardinak bezala, bakoitzarentzat 40 zentrimetro genituela.

Britainiarrek Palestinako kontzentrazio esparru batera eraman zituzten Ruth eta berarekin etorritakoak, baina zazpi egun baino ez zituzten egin han. Tel Avivera joan zen, kibbutzera lanera joan aurretik prestakuntza ikastaroak egitera. Lehendik sortua zegoen kibbutz batera joan ziren aurrena, kibbutzen mugimendua koordinatzen zuen erakundeak Megidokoa eratzea agindu zien arte. 1948ko gerra bukatu eta berehala heldu ziren Lajun herri palestinarra izan zenaren

lurretara. Inguruko muinoetan soldadu irakiarrak talaian zeuden oraindik.

– Armistizioa 1949ko urtarrilean sinatu zen eta otsailean kibbutza ezarri genuen. Erdi nekazari eta erdi soldadu ginen. Muga defendatzea gure lana zen, Armada ez baitzen heltzen muga osoa zaintzera.

– Horregatik daude kibbutz gehienak mugan zehar! –Josephek erraz kentzen dio hitza emazteari–. Kibbutza dagoen lekuan baldin badago, helburu militarrengatik da.

– Laborariak ginen baina gerrarako ere prestatuta geunden. Entrenatuta eta armatuta. Lubakiak egin genituen, eta alanbrezko hesiez inguratu gure lurra. Baina armistizioa ez zen hautsi, eta irakiarrek alde egin zuten, eraso egin gabe.

Goian zerua eta behean lurra, besterik ez zuten kibbutzeko lehenengo bizilagunek, hirurogei gazte poloniarrek. Egurrezko etxolak eraiki eta barazkiak lantzen hasi ziren. Armadak sos batzuk ematen zizkion kibbutzari mugazain egiten zuen lanagatik, eta kibbutz zaharrago batek behi bat oparitu zienean abeltzain ere bilakatu

ziren. Bazkaritan arrautza erdi bana jaten hasi ziren oilaskoak hazten hasi zirenean.

Bizimodua gogorra izaki, bi urteren buruan batzuek utzi egin zuten erkidegoa, eta kibbutzen erakundeak hogei poloniar gehiago bidali zituen. Jerusalemgo jendea ere bai gero, *sabra*-k –Israelen jaiotako juduak; kaktusa, hebreeraz–. Bi urte geroago Mexikotik etorri ziren familia batzuk, eta Libanotik. Joseph txekiarra bere kabuz heldu zen, kibbutz batetik bestera ibili ondoren. Kontraste handiko komunitate bihurtzen ari zen Megido.

– Hebreera zen hizkuntza komuna. Ni hebreeraren jabe etorri nintzen Israelera, Polonian eskola juduan ikasia bainuen, baina askok ez zekiten. Gazteek eskolan ikasten zuten, baina helduek, lanagatik, nahikoa astirik ez eta ez zuten behar bezala ikasi; hitzari hitza erantsi ezinik aritu dira batzuk urtetan. Ongi ala gaizki, ordea, jendea berehala hasi zen hebreeraz mintzatzen. Askorentzat ama-hizkuntza ez, alaba-hizkuntza izan da hebreera, euren umeengandik ikasi baitute.

– Baina mexikarrak etorri zirenean, eta gero txiletarrak... –Soniari begiratu dio Josephek–. Oraindik espainolez hitz egiten dute!

Asean eta betean ez dira bizi Joseph eta Ruth, baina ezeren faltan ez direla ematen du. Telebista, bideoa, musika-aparailua... eta, lehen ez bezala, sukalde txikia ere bai, jantoki kolektibora joan beharrean janaria eurek prestatu nahi dutenerako. Automobilik ez dute atarian. Kibbutzean inork ez du ibilgailurik, nahiz eta autoa erostea debekatzen zien araua bertan behera utzi berria duten. Hilean 30.000 pezeta jasota nekez erosiko dute inoiz autoa. Aski dute komunitatekoekin. Kibbutzeko arau kolektibisten indarrarekin harrituta nagoela aitortu diet.

– Ba hau ez da ezer, garai batekoaren aldean. Komunismoa genuen lehen –harro ari da Joseph–. Ez zen Errusiako komunismoa, komunismo hutsa baizik, berdintasun osoa. Eta dena demokraziaz erabakitzen genuen, botoen bitartez, larunbat gaueroko asanbleatan. Legea garbia zen: bakoitzak norbere ahalmenen arabera ematen du, eta kibbutzak eman diezaiokeena ja-

sotzen du. Aberatsa izan zintezke, edo txiroa. Gu txiroak ginen, kibbutza txiroa zelako.

– Jantziak ere ez ziren norberarenak. Astero arropa zikina garbitegira eraman eta garbia jasotzen zenuen, baina ez norberaren arropa, kibbutzekoa baizik. Ez zegoen jabego pribaturik.

– Eta haurrak. Bazen arau bat haurrekin...

Bide erdian gelditu da Ruth, eta orain arte entzule hutsa izandako Soniak hartu du hitza.

– Jaio orduko Haurren Etxera eramaten zen umea, soldadutzarako garaia heldu bitartean han hazi eta hezi zedin. Duela gutxi arteko araua izan da. Eta egunero, arratsalde-iluntzean, haurrek hiru bat ordu egiten zituzten gurasoekin. Gauez, erremediorik gabe, umeek Haurren Etxera joan behar zuten. Ni kibbutzera heldu nintzenean jaio berria neukan alaba, eta aukera izan nuen hasieran etxean edukitzeko, pixkanaka ohitzen joan zedin. Haurra ohitzeko zela nioen, baina uste dut ni ohitzeko zela. Gero, Haurren Etxera joaten hasi zenean, gauez esna pasatzen nituen orduak. Katuaren marrakak entzun eta alabaren negarra zela uste izaten nuen.

Hasieran gela bakarra zuen familia bakoitzak, egurrezko barraketan. Gero etxeak eraiki zituzten, eta estreinako altzariak heldu ziren, denentzat berdinak.

– Eta baten batek zerbait berezia nahi bazuen, ezinezkoa! –algaran lehertu da Ruth.

– Niretzako etxea eraiki zutenean–dio Soniak–, beste etxeen berdin-berdina egin zuten. Sukaldea eta egongela leiho batek bereizten zituen, eta nik ate irristatzaile bat jarri nahi nuen. Asanbleak ez zuen onartu! Horrela hasiz gero, ezberdintasunak sortuko zirela gure artean!

– Beste batek apartamentua gorri eta beltz pintatu nahi zuen –Ruth barre zoroan hasi da, senarraren hitzei buruarekin baietz egiten dion bitartean–: sabaia beltz eta hormak gorri. Asanblean eztabaidatu genuen! Eta ezetz esan genion!

– Indibidualismorik ez! Berdintasun osoa!

Megidotik Jerusalemerako autobusean natorrela, kibbutzean izandako solasaldietan 1948an

Lajun herria izandakotik ihes egindako palestina-rrak aipatu ere ez ditugula egin ohartu naiz.

Lapurreta

Ramallatik Jerusalemerako errepidetik bertatik begizta daiteke Nazio Batuetako bandera urdin argia, Qalandia errefuxiatu esparruaren sarreran, UNRWAren (errefuxiatu palestinarren aldeko nazioarteko erakundea) bulegoaren ataurrean. Aurreraxeago, farmaziaren aurrealdean zintzilik, bi bandera palestinar zuri-gorri-berde-beltz ageri dira. Zahartua dago, higatua, bandera internazionala. Kolore bizikoak dira palestinarrak, klandestinitatetik atera berriak.

Botikaren ondoan jaki eta edari denda xume bat dago. Kanpotik ere ozen entzuten da barruan ipinita duten musika arabiarra. Meskita bat eraikitzen ari dira metro batzuk aurrerago. Handia izan gabe, inguruko eraikin handiena izango da.

Behe solairua baino ez dute etxeek. Edo txabolek. Ez dakit nola deitu. Porlanezko horma mehez eraikita, ez dute teilazko estalkirik. Bukatu gabe daudela dirudi: habeetako burdinak, hezurdura, agerian dituzte ia denek, zerura begira.

Bigarren solairu bat eraiki ahal izatea eskatzen duten besoak iruditu zaizkit.

Bideak asfaltatu gabe daude eta, haizeak indar handirik ez dakarren arren, hautsa batera eta bestera altxatzeko lain bada. Kaleen zikina baino gogaikarriagoa zait hautsa etengabe arnastu beharra. Grisa litzateke kolore bakarra, etxe gehienetan zintzilik ageri diren arropa anitzengatik ez balitz. Ezagun du, zabaldutako arroparen ugariagatik, handiak direla familiak, zortzi-hamabi kidekoak.

Familia bat, osorik, badoa: gaina maletaz beteta eta barrua jendez gainezka, asfaltatu gabeko bide estuetan doi-doi sartzen den taxi kolektiboa han doa, hautsa areago harrotuz, hirirantz seguruenik, errefuxiatu esparruko miseriatik ihesi seguru.

UNRWAren bulegora itzuli naizenean, tunika eta durbante zuridun bost agure daude sarreran. Sasoian aurrera joanek baino ez dituzte janzten, nonbait, arabiarren arropa tradizionalok. Ghazi ere, bisitatzeko asmoa dudan Mustafa zaharraren iloba, nire moduan jantzita etorri da: praka bakeroak eta elastiko besamotza.

Osabaren bizilekurako bidean errefuxiatuguneko bizi-baldintza estuak nabarmendu dizkit behin eta berriro Ghazik, etxe hau eta hura erakutsiz. «Hemen, gela bakar honetan, 11 lagun bizi ziren», 16 metro koadro baino gehiago ez dituen gelaz, «beste honetan bederatzi bizi ziren lehen», «gela honetan, berriz, bi familia»...

Qalandiaren sorrera urtean eraikitako zenbait gela eta gela-hondar ikusarazi dizkit Ghazik, osabarenera eraman aurretik. Etxe zahar hauen hormen meheaz ohartarazten nau behin eta berriro: bost-sei zentimetroko zabalera dute zementoz eta hartxintxarrez egindako hormek. Hotzean hotz eta beroan bero, etxola hauetan.

– Udan beroak akabatzen eta neguan hezurretarainoko hotzez egoten ginen gela hauetan. Orain ere halatsu, gauzak hobera egin duten arren!

1952an sortu zuten Qalandia errefuxiatu esparrua, 1948an lurrik eta etxerik gabe geratutako errefuxiatuen artean oraindik noraezean zebiltzan milaka batzuei babes behin-behinekoa eskaintzeko. Dendetan bizi izan ziren hasieran,

baina epe laburrean jaso zituzten zementozko aterpeak.

Duela 45 urte Qalandian babesa hartu zutenen artean zegoen Mustafa, 87 urteko agurea. 39 zituen Israelen sorreraren gerra lehertu zenean, 1948an. Etxalde oparoa eta lur aberatsa zuen sendiak Khirbet al-Lawz-en, Jerusalemdik hurbil zegoen herritxoan: bihitegiak, frutarbolak, mahastiak, ardiak, behiak... Gerraren oihartzunak gero eta ozenagoak ziren –juduak herri arabiarretan hil eta herio sartzen ari zirela entzun zuten– eta, beldurraren beldurrez, herria utzi eta mendira jo zuten. Bizi egin nahi zuten. Hiru hilabeteren ondoan, liskarrak baretu zirelakoan, etxera itzuli ziren.

Ez luzerako. Kastelgo guduan Jerusalem Mendebaldea defendatzen ari ziren indar arabiarrak mendean hartu zituzten juduek eta inguruko herrixkak bata bestearen atzetik erori ziren. Khirbet al-Lawz bonbakatu zutenean, Mustafak, honen bi emazteek, bi anaiek, hauen emazteek eta gurasoek, ardiak eta behiak hartuta, etxe suntsitua atzean utzita, norabiderik gabeko ihe-

sari ekin zioten, behin-behineko aterpearen bila, bakea itzultzean etxeratuko zirelakoan.

Esperantza berarekin utzi zuten etxea beste milioi bat palestinarrek, Israel sortu berriaren mugen barruan bizi ziren arabiar gehienek. Mende erdi geroago, errefuxiatuok eta berauen ondorengoak lau milioi dira. Milioi eta erdi Libanoko, Siriako, Jordaniako eta Palestinako errefuxiatuguneetan bizi dira, eta munduan zehar barreiatuta daude gainerakoak. Palestinako lurralde okupatuetan 27 errefuxiatu esparru daude: 19 Zisjordanian eta 8 Gazan. 10.000 lagun inguru bizi dira hemen, Qalandian.

Jordaniaren mende geratutako Zisjordaniako lurretara jo zuen Mustafak, eta Ramalla mendebaldeko esparru batean egin zituzten gerraosteko aurreneko hilabeteak. Handik, Jeriko inguruko errefuxiatugune batera jo zuten, baina urtebete eta gutxira, hango errefuxiatu gehienek Jordaniara alde egin zuten, beste herri arabiarretara jo zuten beste batzuek eta Zisjordania barruko lurretan sakabanatu ziren gainerakoak. Hauen artean ziren Mustafa eta bere senideak: hilabe-

tetan harat-honat ibili ondoren, orain etxea duten esparrura heldu ziren: Qalandia.

Bi gelatan sartu ziren denak: bederatzi lagun gehi abereak. Ez urik ez argindarrik ez dute izan luzaroan. 1975ean heldu zen argindarra Qalandiako etxe guztietara. Gauzek hobera egin duten seinale, telebista antenak ohikoak dira orain Qalandian.

Ohetik azaldu digu istorioa Mustafak, Ghazi ilobaren laguntzaz. Bi emazte ditu Mustafak, baina seme-alabarik ez. Hanka apurtua du eta bost hilabete daramatza jaiki gabe. Bizar zuri eta luzea du, kolore bereko durbantea buruan eta tunika soinean. Gelan bi ohe besterik ez daude, Mustafarena eta nik eserlekutzat daukadana. Gainerakoan biluzia da gela. Mustafaren emazteetako bat, izenik ez didate esan, gelaren bazter batean eseri da propio ekarritako plastikozko aulkian, galdetu gabe ekarritako kafeak banatu ondoren. Ghazi ere plastikozko aulki batean eseri da, osabaren ohe buruan. Eguzkiak goia jo du dagoeneko, baina oilarra kukurrukuka ari da oraindik.

Khirbet al-Lawz-ko soroen kolore biziak berriro begietara eramateko aukerarik ez du izan Mustafak; Qalandiako grisa baino ez, mende erdi honetan. Ghazi ilobaren ahotik daki hangoaren berri.

– Ez dago etxerik, ez herririk. Dena desegin zuten eta ez dute ezer eraiki. Seme-alabekin egona naiz Khirbet al-Lawz-en, orain gutxi. Esan nien nire gurasoak, euren aiton-amonak, han jaio eta bizi izan zirela. Nire aiton-amonak ere han sortu eta hazi zirela eta nire aiton-amonen gurasoak ere hangoak zirela. Eta oso leku polita iruditu zitzaien, ez zuten alde egin nahi –begiak alaitzen ari zaizkio Ghaziri, Khirbet al-Lawz ikusten ari da berriro–. Oso pozik zeuden euren arbasoak jaio, hazi eta bizi ziren lekua zapaltzearekin. Berriro noizbait eramango nituela agindu behar izan nien, nirekin itzuliko baziren.

– Guk gazteei erakutsi diegu gure lurra zein den, non dagoen –dio Mustafak, orain niri begira–. Orain eurak ari dira seme-alabei gauza bera erakusten, eta hauek euren ondorengoei erakutsiko diete...

– Berebiziko garrantzia du horrek! –moztu dio ilobak–. Gure etxea gure begiekin ikusi behar dugu, gure arbolak gure eskuekin ukitu behar ditugu, gure lurra gure oinekin zapaldu... Horrela, gure lurra sentitu egiten dugu, barru-barruan, eta ulertu egiten dugu: lapurtu egin digute.

Hamalau eta bi

Nabil Sha’ath Kooperazio ministroaren buru handi ilerik gabeari jarraitzen dion kazetari olatuak Parlamentuko areto nagusiaren atean zigarroa erretzen harrapatu du Hannan Ashrawi Goi Hezkuntza ministroa eta, jende uholdeak erremediorik gabe barrurantz bultzatzen duela oharturik, laguntza eskatuz bezala zigarrotxoa erakusten ari zaigu oraindik kanpoan gaudenoi. Hartzeko, mesedez. Hartu eta korridoreko hautsontzi batean itzali diot. Faborea zor dit ministroak.

Gainezka dago Palestinako Legebiltzarreko aretoa, parlamentarien ia aulki guztiak beteta. 60 bat kazetari zenbatu ditut. Arafaten ministro batzuk ustelkeria kontuetan nahasi ditu Asanbleako batzorde batek eta, salaketa larrienak egin dizkieten bi ministro, Jamil Tarifi eta Nabil Sha’ath, azalpenak ematekoak dira.

Ramalla hirigunetik kilometro pare batera dagoen aretoak ez du parlamentu-egoitzaren itxurarik. Bulegoetako mahai eta aulki merketan

daude eserita ordezkariak. Ilargierdiaren forma hartzen duten hiru ilara luze osatzen dituzte 88 ordezkarien mahaiek, denak maila berean, plastikozko ur botila bana dutela. Denen aurrean, metro bat goragoko oholtzan, bost mahai daude elkarren ondoan Asanbleako buruentzat, eta hizlariaren mikrofonoa albo batean.

Hara! Abu Ala (Ala-ren aita) Parlamentuko lehendakaria ez da garaiz etorri eta ordekoak, Abu Aitak, egingo du buru. Aitaren aita, alajaina. Aitaita.

Belusezko errezel granateek estalita dituzte atzeko leiho handiak. Aurrean, presidentziako aulkien gibelean, bandera palestinarra eta urre koloreko hitz batzuk, arabieraz eta ingelesez: *Palestinian Legislative Council. Second Period. First Term.* Mahuka hutsean daude parlamentari gehienak, gutxi batzuek jaka eta gorbata daramate, eta hiru durbantedun baino ez. Bost emakumezkoak dira eta horietatik bi, Hannan Ashrawi eta Intizar Wazir, ministro. Bakarrak darama buruko zuria.

1996an aukeratu zuten palestinarrek Autonomiako lehenengo Legebiltzarra. Ez palestinar

guztiek, Gaza eta Zisjordaniakoek baizik. Eta ez Gaza eta Zisjordaniako guztiek, oposizioko indar nagusiek, islamistek nahiz ezkerrekoek, boikota egin batzieten bozketei. Ez da harritzekoa, beraz, Fatah alderdiak erabateko gehiengoa izatea: 88 aulkietatik 66tan Arafaten alderdikideak jesartzen dira. Oposizioko lau erakunde nagusiek –Hamas, Jihad Islamikoa, Fronte Popularra eta Fronte Demokratikoa–, boikota dela eta, ez dute batere ordezkaririk.

Hala eta guztiz ere, Arafaten Gobernuari arazoak sortzen ari zaizkio kolore bakarreko parlamentu hau. Batzorde parlamentario batek egindako txostenak salatu du Gobernuaren zenbait ministeriotako diru kontuak ez daudela argi. Begi eta kamera guztiak Jamil Tarifi eta Nabil Sha'ath ministroei zuzentzen zaizkie gaur. Ez dira edonor, gainera. Tarifi, Arazo Zibiletarako ministroa, Ramallako barrutian Fatah-ko hautagai nagusia izan zen. Bere bibotea erakusten digu oraindik Ramallako kaleetatik kendu ez dituzten hauteskunde-afixa ugarietatik. Sha'ath, Nazioarteko Kooperaziorako ministroa, israeldarrekin negoziazioak berbideratzeko ardura duen

batzordeko burua da. Palestinarren ordezkari gorena, Arafaten ondoren noski, Israelgo negoziatzaileen aurrean. Bi hauen dimisioa ez ezik espetxeratzea ere eskatu dute txostengileek. Tentsioa nabaria da aretoan. Bekosko ilunez etorri parlamentarioak.

Uniforme belzdun bi polizia, kalashnikov eta guzti, atea zaintzen ari dira. Sarreran agiririk ez didate eskatu eta ez naute batere miatu, argazki-makina eta beste ekartzeko eskuko poltsa ekarri dudan arren. Arafat tartean ez bada, segurtasun neurriak ondo laxoak dituzte palestinarrek.

Sesioan ari dira parlamentarioak Abu Aitak bilera zabaldu duenetik. Txandaz txanda taula gainera igotzen ari dira hizlariak, baina hizlariei eserlekuetatik erantzuten diete sarri, atzamarrarekin hitza eskatuta batzuek, baimenik gabe oihuka suharrenek. Arabieraz ulertzen ditudan hitz urrietako batzuk errepikatzen ditu horrelakoetan Abu Aitak: «*Xuai, xuai...*». Lasai, lasai.

Filmeko *gaiztoetako* bat, Jamil Tarifi, begitarte goibelez taula gainetik hizketan hasi denean, ordea, isiltasuna osoa izan da. Txistu irenstea

ere entzun egiten zaio. Sakelako telefonoen hotsak hautsi du isiltasuna.

– Atentatua Jerusalemen –entzun diot trepetak jasotzen hasi den argazkilari bati.

Elastikoa aldatzeko etxeratu egin naiz, Jerusalemera abiatu aurretik. Ez da kuxidadea izango Palestinako Nazioarteko Jaialdiaren irudia duen elastikoarekin agertzea palestinarrek bonba bat lehertarazi duten auzo judura.

– Bi suizida izan dira. Sei hil direla diote. Eta zauritu piloa.

Irratia entzuten ari da Zara etxean. Mahane Yehuda merkatuan izan da leherketa, Jerusalem Berriko erdigunean. Jerusalem juduko merkaturik zahar, eta merkeenean.

– Auzo horretan bizi izan nintzen urtebete iaz, eta han egiten nituen erosketak. Arabiar pilo batek egiten du lan bertan! –begiak gorritu zaizkio Zara amerikarrari–. Zenbait arabiarrek zer dioten jakin nahi nuke orain. Batzuek ospatu egiten dute, badakizu? Ezin dut jasan inork hori ospatzea!

Mahane Yehudara nondik nora heldu azaldu dit Zarak.

Lehenengo kontrola aldameneko errepide estu batetik barrena joanez saihestu du taxistak, baina errepide nagusira irten garenean zain dugu soldadu israeldarren jeepa. Atzera egiteko, ez dagoela pasatzerik, ez dagoela Jerusalemera joaterik. Kontrola oinez zeharkatzea deliberatu dut. Gero gerokoak. Pasaporteari arretaz begiratu dio soldaduak, Jerusalemen bizi naizen galdetu, eta nik baietz. Aurrera. Oinez ehun bat metro egin ditudanean, aurreraxeago beste bidexka batetik zenbait ibilgailu errepide nagusira ageri direla ohartu eta hara joan naiz, taxi bat noiz agertuko.

Badator bat, eta gelditzeko keinua egin diot... Hara, duela bost minutu utzi dudan taxi bera! Militarren aginduei muzin eginez hiri santura doa, egoskor. Azkar asko saihestu ditu kontrolak! Barrez dator gidaria, ni errepide bazterrean ikusita, eta irri eginez begiratu didate bidaiariek ere. Barregarri, orain ere. Zerbait ikasi dut behintzat: ez utzi taxia hain bizkor.

Arratsaldeko lauretan gainditu dut Mahane Yehuda merkatuaren sarrerako polizi hesia. Ordu bata inguruan lehertu dira bi bonbak eta, noski, biktimen arrastorik ez dago jada. Edo agian bai. Polizia eta soldadu ugari ez ezik peto berde deigarria jantzirik duten ultraortodoxo asko dabil inguruan. Patilla luze kiribilduengatik ezagutu ditut ultraortodoxoak, *harediak*. Hildakoen gorpuzkin ñimiñoenak jasotzen ari dira. Munta handia du judu fededunentzat hilotza osorik ehorzteak eta, atentaturen bat gertatzen denero, ohikoa da haredi talde hauek gorpu zatien peskizan aritzea.

Petorik gabeko harediak ere, bizar derrigorrezko, jaka luze eta kapel beltzekin, ugari dira ikusleen artean, baita ultra ez diren ortodoxoak ere, kippa besterik ez daramatenak.

Xextran ari dira nire aldameneko haredia eta kippaduna. Israelgo juduak arrisku handiagoan bizi direla ari zaio esaka hogeita gutxi urteko haredia. Kippadunak, azentu iparramerikar nabarmenarekin, palestinarrek inon diren judu guztien aurka egiten dutela, eta inor ez dagoela salbu.

– Zertan ari zarete elkarren aurka zaunkaka? –kippa du honek ere, patilla luzerik ez–. Judua eta judua zarete, horrek du garrantzia. Beste guztia huskeriak dira.

Okindegi aurretik garbiketa lanei begira ari den 60 urteko gizonaren alboan jarri naiz. Orain-dik ez dakit zenbat jende hil den.

– Hamalau pertsona eta bi arabiar.

– Hamasei?

– Hamalau, eta bi arabiar.

Ezagun du eztandetako bat non izan den: oliba eta mahaspasa hondatuak sumatzen dira ezkerreko saltokian, sandia eta letxuga aztarnak eskuinean. Pareko dendan –kosmetikoak saltzen dituzte– sabaiaren zati bat eroria dute, eta atariko estalpea erdi erorian. Arropa eta oihal batzuek teilaturaino egin dute hegan.

Merkatu barreneko ondoko kalean izan da beste leherketa, soldaduek itxita daukaten estalpedun kalean. Egurrezko estalpearen zati handi bat jausia dago, eta lurra barazki, fruta, oihal eta abarren hondakinez betea. Soldaduak, poliziak eta bolondresak garbiketa lanean ari dira.

– BBC? ABC? –paper zurian zerbait idazten ari naizela ohartu da galdezka dudan soldadua.

– Ez, Espainiakoa –harrituta erantzun diot; ez da ohikoa soldadua hain gozo mintzatzea.

– Gure familiaren negozioa da hau –kosmetiko dendara zuzendu ditu begiak.

– Hemen zinen gertatu denean? –galdera zorrotzak beti prest, kazetariak.

– Ni ez, baina anaia bai. Bera da jabea.

Sakelako telefonotik hizketan ari da anaia, nekea azpegietan. Telefonoa utzi eta atarira atera da: ukaldia eman dio burdinazko hodi bati eta egur pusketa bat jausi da aterpe gainetik. Atzera eta aurrera arnasa hartzeko betarik gabe, ez da berarekin solastatzeko unea.

– Hara! Hor dago alaba. Berak azalduko dizu. Rakel!

18 urte inguruko neska ilehoria osaba eta bion ondora etorri da. Artega dago.

– Gure familian ondo dira denak, zorionez, baina denda hankaz gora dago eta hildakoen artean ezagun asko ditut. Seguru bihar egunkaria zabaltzean aurpegi asko ezagunak egingo zaizkidala.

Makurtu eta iltze bat hartu du Rakelek.

– Begira –belztua eta okertua dago iltzea–. Bonbaren zati bat.

Gorde egin du.

Atentatua egin genuen

– Zer moduz atzo Jerusalemen?

Presatua dabil Iman, goizero bezala, eta erantzunaren zain gelditu gabe alde egin dit sukaldetik. Zirt-zart batean itzuli da, laranja zukuaren kaxa hozkailutik atera eta, kartoizko ontzitik zuzenean edanez, zutik gosaltzeko.

– Israelgo Gobernua, gutxienez, konplizea da.

Bonbak zeramatzaten bi palestinarrak Hebrongoak zirela zabaldu da. Bataren berri ez omen zuen familiak azken 15 urtean, eta bestearen berririk ez dute izan etxean hiru urtean.

– Litekeena da israeldarren esku egotea aldi horretan, eta atentatua egitera behartzea orain. Nazioartean presio handia jasaten ari zen Israel azken aldian, eta arreta desbideratu beharra zuen. Munduaren aurrean biktima gisa agertzea primeran datorkie.

Jerusalemerako asmoarekin jaiki naiz, baina hiri autonomoetako palestinarrok setiatuta gaude. Israelen eta Lurralde Okupatuen arteko

muga goitik behera zarratzeaz gain, hiri autonomoen sarrera-irteera guztiak itxi egin dituzte israeldarrek. Ez dago Ramallatik irteterik. Ez dago Jerusalemera joaterik. Horregatik erabaki dut Ramallatik irtetea. Jerusalemera joatea.

Ez naiz bakarra. Bidaiari guztiak emakumezkoak dituen taxia topatu dut, ondo kostata. Errepide nagusian abiatu eta kilometro pare batera egin dugu topo israeldarren lehenengo kontrolarekin. Atzera egiteko, ez dagoela pasatzerik. Ez da inor harritu. Setiatuta gaude. Atentatua egin genuen atzo.

Atzera egin du furgonetak, bidaiari guztiak isilik, Ramallara itzultzeko etsita bageunde bezala. Baina oraingoan taxia ez dut utzi, eta gidariak bidezidorren bat noiz hartuko zain gelditu naiz.

Ramallaraino itzuli, hiri barruan jiratu eta bidexka batean sartu da. Errepide estuan barrena abiatu gara, bidezidor kaskar bilakatu da aurrerago eta batere asfaltorik gabeko mendibide aldapatsu gero. Furgoneta eta kamioneten errenka luzean joan gara, eguzkiak idorturiko bide zartatuan triki-traka, Jerusalem aldera: bide batean abiatu eta, ibilgailuak bueltan datozela ja-

betuta, atzera egin eta beste bide batetik sartu. Makina bat aldiz sartu du gidariak atzera-martxa, aurrez aurre zetozkion ibilgailuak bide meharrean saihestu ezinda. Baina izkin egin diegu israeldarrek errepide nagusian paratu dituzten bost kontrolei.

Agintari israeldarrek badakite, ondo jakin ere, inguruetako bidezidorrak hartuz Jerusalemera joan-etorrian gabiltzala hainbat palestinar, baina bide nagusia ondo kontrolatua dute. Mendibideetan doazen ibilgailuak kontrol puntuetatik begiztatu ere egiten dituztela egingo nuke.

Xekel bana eskatu digu estra gidariak helmugaratu garenean. Lan estra egin du, izan ere. Baina zer dira hamar hogerleko soldadu israeldarren atzaparretatik ihestearen truke?

«Ez dago erreportari hau geldiaraziko duen armadarik», izkiriatu dut koadernoan.

Segurtasun neurri handiagoak eskatuz Udaletxeko plazan batutako talde bat salbu, ez dut Jerusalemgo kaleetan atzoko atentatuaren zantzurik nabari. Bai, ordea, etxerako bidean.

Atentaturik gabeko garaietan ere kontrola egon ohi den puntuan, Ram herriaren parean –Israelen eta Lurralde Okupatuen arteko mugan–, jaitsi naiz oraingoan taxitik. Sei palestinar geldiarazita dituzte bide-bazterrean kontrolaren ardura duten zortzi soldadu gazteek. Kazetari agiria eskuan dudala zuzendu natzaio bati.

– Baimenik gabe Jerusalemera sartzen saiatu dira, eta nortasun agiriak aztertzen ari gara ordenadorean. Garbi baldin badaude, atzera Ramallara bidaliko ditugu. Orain ura eman diegu, ikusten duzu, eta gero agian jateko zerbait.

Bidoi batetik txandaka edaten ari dira, errepideari bizkarra emanda, lerroan. Ramallatik Jerusalemerako bidea zorrotz zaintzen ari dira militarrak, auto guztiak geldiaraziz eta miatuz, baina nire aurrean bederen ez dute inor atzera bota. Baimen berezia dutenak baino ez dira etorriko kontrolera, pentsatu dut. Alderantzizko bidea, aldiz, soldadu bakarrak zaintzen du, baina ia batere automobilik ez dator Ramallara. Ibilgailuz beteta imajinatu ditut inguruetako bidexkak. Bi norabideetan.

Soldadu zintzoarengana jotzen asmatu dut nonbait, palestinarrekin hitz egiteko baimena eman baitit. Baina agurtzeko beta baino ez dut izan, soldadu handiago bat, kankailu halakoa, imintzioka gainera etorri zaidanean.

– Zer egiten duzu hemen?!

Ez dago hebreeraz jakin beharrik galdera batzuk ulertzeko.

– Hauekin hitz egiteko baimena duzula?! Utikan hemendik!

Jaramon egin diot, zintzo.

Ordu parea egin dut mugan. Kontrolean, kontrolpean. Eta etorri naizenean bezala daude palestinarrak joan naizenean: errepideari bizkarra emanda, bidezidorrez betetako maldei begira.

Hurrengoan asmatuko ahal dute Jerusalemerako bidearekin!

Yerushalayim eta Al Quds

David Cassuto arkitektoa Jerusalemgo alkate-ordeetako bat da, auzapez Likud-eko Ehud Olmert duen korporazioan. Jerusalem 2020 plan estrategikoaren arduradun gisa, hirigintza proiektu handien diseinatzaile nagusia da Cassuto. Florentzian jaio eta zazpi urterekin etorri zen Israelera, 1945ean.

Jerusalem Handiari zerutik egindako argazkia du Udaletxeko bere bulegoko mahaiaren atzeko horman, eta Israelgo banderatxoa mahai gainean. Arrano sudurra nabarmentzen zaio musu zurbilean, begi urdinen zubi. Kippa berdeak estaltzen dio buru soila.

Lau egun baino ez dira Mahane Yehudako atentatua gertatu zela.

I.M.U: Nor da zure ustez Mahane Yehudako atentatuaren erantzule?

David Cassuto: Ez dit axola Hamas edo Jihad izan den, kontua da hau lider palestinarren erantzukizuna dela eta euren gain hartu behar dutela indarkeria eragozteko ardura. Arafatek badaki

ostiralero, meskitetan, imam arabiarrek terroristak akuilatzen dituztela, eta ez dute horren aurka ezer egiten. Arafat erantzule da meskitetan sartu, indarkeriaren alde otoitz egiten dutenak atxilotu eta kartzelan jartzen ez dituelako.

I.M.U: Zer zentzu dauka hiri palestinarrak hainbeste egunetan itxita edukitzeak?

D.C: Galdera erretorikoa da, badakizu zergatik. Terroristak infiltratzen ari dira gure lurretan eta hori eragotzi behar dugu. Nire ustez hermetikoki itxi behar ditugu gainera, ez orain arte bezala, alde guztietatik sartzen ari dira eta. Baimenik gabe gure lurraldean dagoen oro kartzelan sartu behar dugu, edo kanpora bota. Eta egiteko gauza gara.

I.M.U: Negoziazioak etenda zeuden lehendik. Orain, atentatuarekin, are zailago izango da prozesuan aurrera egitea.

D.C: Eraso terroristen erantzuleak gure esku jartzen dituztenean, Osloko akordioek agintzen duten bezala, orduan elkarrizketetara itzuliko gara. Guri gauzak egiteko eskatzen digute, baina ez dute eurei dagokiena betetzen. Gu amore ematen ari gara, lurrak ematen ari gara, gu sun-

tsitzeko eraso gintuztenean menderatu genituen lurraldeak hain zuzen, eta beraiek ez dute euren zatia betetzen. Nire iritziz, batere elkarrizketarik ez, eta kontzesio bakar bat ere ez, Osloko akordioetan idatzita dagoena betetzen ez duten bitartean.

I.M.U: Jerusalemgo Ras al-amud auzo arabiarrean urbanizazio judua eraikitzeko baimena eman du Udalak, baina Gobernua kontra agertu da.

D.C: Udal garen neurrian gure betebeharra lurra prestatzea da, bikote gazteentzako etxeak eraiki daitezen. Etxebizitzak egin behar ditugu, arabiarrentzat eta juduentzat. Eta egiten ari gara, berdin arabiarrentzat eta juduentzat. Ras al-amud Olibondoen Mendiaren zati bat da, eta mendi horretan, musulmanak ez ezik, ortodoxo grekoak, katolikoak, armeniarrak... daude. Zergatik ez juduak? Juduentzat itxia den lurraldea da? Gaur egun onar dezakezu baten batek munduko zati batean sarrerarik ez izatea bere erlijioagatik? Ezta pentsatu ere! Juduen presentziak antagonismoa sortuko duela diote. Zer du txarra auzo judu bat izatea gizarte arabiar baten ba-

rruan? Edo auzo arabiar bat gizarte judu baten barruan? Zergatik ez? Ez dut ulertzen. Horrek esan nahi du ez dituztela asmo onak. Gerran segitzeko asmoa dute.

I.M.U: Osloko akordioen arabera Jerusalemen estatusa aldatuko duen eraikuntzarik ezin dela egin argudiatzen dute palestinarrek.

D.C: Osloko akordioetan argi eta garbi idatzita dagoenaren kontrakoa da argudio hori. Osloren arabera eraikitzen segi dezakegu, lehen bezala, Jerusalemen. Beraiek ere nahi duten guztia eraiki dezakete, baina Udalaren baimena behar dute horretarako. Eta baimenik gabe ari dira eraikitzen. Agintzen dizut suntsitu egingo ditugula baimenik gabe eraiki diren etxe guztiak. Baimena baduzu, eraiki dezakezu; bestela ez.

I.M.U: Udalak Eki Jerusalemgo 300 etxe eraisteko asmoa duela irakurri dut.

D.C: Dagoeneko baimenik gabe eraikitako 800 etxe topatu ditugu, eta erabakita dugu denak botatzea. Beraiek esaten ari zazkizue, kazetarioi, baimenik ez dutela jasotzen ahal. Faltsua da, gezurra erabat. Baimena eskatzen dutenen %99k eskuratzen dute.

I.M.U: Esan dezakegu Udalak berdin tratatzen dituela arabiarrak eta juduak, eraikitzeko baimenei dagokienez?

D.C: Erabat. Bai, noski. Ziur egon zaitezke.

I.M.U: Nola doaz Har Homa asentamendu berriaren eraikuntza lanak?

D.C: Azpiegiturak eraikitzen ari gara: kaleak, errepideak... Askoz pozikago izango nintzateke bizkorrago joango balira, baina horrelako lanak poliki egin behar dira, kalitatezko urbanizazioa egin nahi badugu.

I.M.U: Nazio Batuen Erakundeak gaitzetsi egin ditu asentamendu berrirako lanak. Badirudi Nazio Batuen ebazpenek batere eraginik ez dutela Jerusalemgo Udalean.

D.C: Batere ez. Ez dakite hemen zer gertatzen den. Gu gaitzetsi eta gaitzetsi ari dira, egiten duguna egiten dugula. Arnasa hartzen badugu, arnasa hartzen dugulako gaitzesten gaituzte Nazio Batuek. Guk badakigu lelokeriak direla.

I.M.U: Nazio Batuetako idazkari nagusiaren txostenak dio Har Homa azken urratsa dela Jerusalem Zisjordaniatik isolatzeko.

D.C: Guretzat garrantzitsua da Har Homa. Mapa honetan [Jerusalemenen planoa] erraz ikus dezakegu, Har Homan kokagune judua jarriz gero lerro bat osatzen dugula. Jerusalemek ahalik eta lurralde zabalena edukitzea lortu nahi dugu eta uste dut Har Homak pasagune bat emango digula Itsaso Hilerantz eta Jordan Ibarrerantz, zati hori beste herri batek ez duela moztuko ziurtatzeko. Gure interesa hori da, bai. Ez zaitut engainatuko. Gaur hori eraiki beharra dugu, negoziazioetan behin-betiko erabakietara heltzen garenean, zati hori Jerusalemgo lurraldea izan dadin; ziur izateko Jerusalem ez dutela zatituko.

I.M.U: Demagun negoziazioek aurrera egiten dutela eta azken elkarrizketetan Jerusalemen behin-betiko estatusa zehazten dela. Nola irudikatzen duzu Jerusalem berria?

D.C: Jerusalemek Israelgo Estatuaren eskuetan iraun behar du, zabalik hona etorri nahi duen jende guztiarentzat, juduentzat, musulmanentzat eta kristauentzat. Terrorismorik ez badago, hiria zabalik egongo da erlijio guztientzat, kultura guztientzat, baina Israelgo Estatuaren mende

jarraituko duela ziurtatuz. Esango didazu: irekita dago baina Belengo urliari eta sandiari ez diozu sartzen uzten. Asmo onez datorrenean eta Jerusalementzat mehatxua ez denean, orduan sartuko da, baina asmo gaiztoz datozenak kanporatu egin behar dira eta sartzen utzi ez.

I.M.U: Jerusalemgo erantzukizun politikoak komunitate palestinarrarekin partekatzeko batere aukerarik ez?

D.C: Batere ez. Hiria hiri bezala administratu behar da, enpresa bat bailitzan. Bi patroi, bi agintari... ez luke funtzionatuko. Erantzule bat behar da, bakarra.

I.M.U: Imajina dezakezu palestinar ordezkaritza Jerusalemerako zure irtenbide hau onartzen?

D.C: Denbora beharko da. Ulertzen baldin badute nahikoa indartsu garela, orduan onartuko dute.

Faisal Husseini Arafatek Jerusalemen duen gizona da. Legearen arabera Palestinako Agintaritzak ez du batere eskumenik Jerusalemgo kontuetan eta Husseini jerusalemdarra ez da Aginta-

ritzako kide, baina modu ez ofizialean Arafaten Gobernuaren barruan Husseini da Jerusalemgo arazoetarako «ministro». Heider Abdul Shafi eta Hanan Ashrawirekin batera, ordezkaritza palestinarreko hirukote buruzagia osatu zuen Madrilgo eta Washingtongo konferentzietan.

Ospe handiko leinuko kide da Faisal: XIII. mendean Mekatik Jerusalemera etorri ziren Husseinitarrak. Luzaroan, belaunetik belaunera, Husseinitarra izan da Jerusalemgo alkatea eta muftia (buruzagi erlijiosoa). Faisalen aita, Abdul Qadir, 1936ko matxinada arabiarraren buruzagia izan zen eta, 1948an sionisten aurkako Kastelgo guduan hil zenean, erresistentzia arabiarreko buruzagietakoa zen.

Zortzi urte lehenago jaio zen Faisal Bagdaden, eta Kairon hazi. Erbestean sortu eta erbestean hezi. Ikasketak bukatu ondoan itzuli zen arbasoen etxera, Jerusalemera, orduan jordaniarren mende. Haritzetik ezpala, PAEren bulegoan aritu zen lanean etorri berritan eta, 1967ko gerraren ondoren –Israelek Jerusalem osoa mendean hartu zuelarik– klandestinitatean aritu zen erresistentziarako lanean. 1979an Ikasketa Ara-

biarren Zentroa sortu zuen, PAEren bulego ez-ofiziala askoren –Polizia israeldarra horien artean– ustez: hainbat aldiz atxilotu eta espetxeratu zuten orduan.

Gau eta egun soldadu israeldarren kontrol batek zaintzen duen Orient House du egoitza ofizial, Eki Jerusalemen.

I.M.U: Zer esan dezakezu Mahane Yehudako atentatuari buruz?

Faisal Husseini: Onartezina da erasoa, israeldarrek egin izan dituzten beste hainbat eraso bezala, hala nola Goldsteinen erasoa edo Estatu terrorismoa. Horiek denak ari gara gaitzesten erabat, palestinarrengandik etorri edo israeldarrengandik etorri. Israeldarrek atentatuaren ondorioz hartu dituzten neurriak uler ditzakegu lehen egunean, bigarren egunean, saiatzeko erantzulea aurkitzen, jendea baretzeko, babesteko ere bai... Baina palestinarren aurkako, Palestinako Agintaritzaren aurkako zigor honekin aurrera egitea ez dugu onartzen, ezin dugu onartu.

I.M.U: Talde islamikoen eremu autonomoetako azpiegitura desegiteko ahalegin handiagoa eskatzen dio Israelek zuen Agintaritzari.

F.H: Agintaritza ahal den guztia egiten ari da ekintza horiek geldiarazteko. Badakigu arazo honi aurre nola egin. Israel 30 urtez saiatu zen eta ez zuen lortu. Eta beraien politika ezartzea nahi dute, inora ez daraman politika. Jendea ez dugu atxilotuko bizarra duelako, meskitara joan delako edo, besterik gabe, bake prozesuaren aurka dagoelako. Gainera, nola geldiaraziko ditugu halako ekintzak israeldarrek egunero guk eraikitako etxeak suntsitzen badituzte? Palestinarrak Jerusalemdik botatzen badituzte? Urte hauetan guztietan jendea atxilotu dute, jendea hil dute... Zer ari dira egiten? Israelgo Gobernuak ez du interesik Osloko akordioetan, ez du interesik bakean. Asentamendu gehiago eraiki eta Jerusalemgo biztanleria palestinarra murriztea da beren nahia. Beren mezua zera da: hau da gure politika eta palestinarrok irentsi beharra duzue. Eta orain jazotzen ari dena jarrera horren ondorioa da. Terrorismorako girorik egokiena sortzen ari dira.

I.M.U: Gudu berri baterako gertu egoteko ohartarazi die Arafatek palestinarrei.

F.H: Netanyahuk egoera berria ezarri du, diru iturriak moztuz, hiriak bakartuz. Eta honi ezin diogu aurre egin besterik gabe, begira egonez. Ahaleginduko gara gure jabetzak defendatzen, gure eskubideak defendatzen: prest gaude israeldarrei aurre egiteko. Oso sinplea da: Netanyahuk giro berria behartu du eta, beraz, Arafat jendeari eskatzen ari zaio prest egoteko egoera berri honi aurre egiteko.

I.M.U: Agintaritzaren orain arteko lanarekin palestinarrak gustura daudela uste duzu?

F.H: Ez dut esango pozik gaudenik orain arte egindako guztiarekin. Baina egoera ez da egunkarietan agertzen den bezain txarra. Ez da hondamendia.

I.M.U: Palestinarrak orain jasaten ari diren arazoen jatorria Osloko akordioak direla aipatu zidan Heider Abdul Shafik, zurekin batera ordezkaritza palestinarreko buruzagi Madrilgo eta Washingtongo konferentzietan.

F.H: Arazoa ez da Oslo bera, Osloko akordioak ez betetzea baizik. Israel ipintzen ari den oztopoak dira arazo. Akordioak ez dira israeldarrak orain erakusten ari diren bezain txarrak.

I.M.U: Israeldarrek, Har Homa edo Ras al-amud-i buruz hitz egitean, bikote gazteentzako urbanizazioak egitea bekatu ez dela argudiatzen dute.

F.H: Eta gure bikote gazteak? Komunitate israeldarrak bikote gazteak ditu eta komunitate palestinarrak ez? Eta horiek dira juduentzako etxeak eraikitzeko leku bakarrak? Behar hutsean bizi diren auzo arabiarretan eraiki behar dituzte jende horrentzako etxe ederrak? Netanyahu jaunak edo Olmert jaunak (Jerusalemgo alkatea) pentsatzen badute eraiki dezaketela Eki Jerusalemen, onetsiko al dute Mendebaldeko Jerusalemen gure jabetzako diren lurretan palestinarrentzako auzoak eraikitzea? Ala eskubide guztiak israeldarrentzat diren eta palestinarrentzat eskubiderik ez dagoen lurraldean bizi gara? Bide honetan nahi dute bakea eraiki? Jarrera aldatzen ez badute, eta gu gizaki gisa tratatzen hasten ez badira, luzerako izango dira arazoak. Gu ez gara esklabuak, hori nahi badute ere. Gure seme-alabak duintasunean hazi nahi ditugu.

I.M.U: Baimenik gabe eraikitako ehundaka etxe eraisteko asmoa du Jerusalemgo Udalak. Dagoeneko hasia da.

F.H: Israeldarrek ez digute uzten eraikitzen, ez digute baimenik ematen, ezta gure lurretan eraikitzeko ere. Etxeak eraiki dituzte 150.000 israeldarrentzat Eki Jerusalemgo mugen barruan azken 30 urteotan. Ez dute ezer eraiki guretzat. Eta guk bikote gazteak ditugu, eta bikote gazteok haur txikiak dituzte, eta haur txikiek logelak behar dituzte. Eta ezin diegu logelarik eman. Beraz, Jerusalemgo mugetatik kanpo bizi beharrean daude jerusalemdar asko. Eta Jerusalemdik kanpo bizi bazara, israeldarrek esango dizute: «Hiritik alde egin duzunez, hirian egoteko eskubidea galdu duzu». Zer egin dezakete? Eraiki egingo dute, hemen bizitzeko eskubideari eutsi nahi diotelako. Uste dute presio hau eginez Jerusalemdik kanpora bidaliko gaituztela? Ez! Eutsi egingo diogu! Nahiago dugu hemen Jerusalemen bala israeldarrek hil gaitzaten, israeldarrek bidalita alde egitea baino.

I.M.U: Noizko estatu palestinarra?

F.H: Netanyahuk atzeratu dezake denboran estatu palestinarraren sortzea, behartu gaitzake prezio ekonomikoa ordaintzera, baina azkenean iritsiko da. Uste dut bost urteren buruan estatu palestinarra izango dugula.

I.M.U: Nola irudikatzen duzu Jerusalem azken negoziazioen ondoren?

F.H: Irtenbidea bi hiriburu izatea da, sarrera libreko hiri ireki batean. Bi hiriburu hiri batean.

I.M.U: Israelek onartuko luke irtenbide hau?

F.H: Ez dakit. Edo bide hau aukeratzen dute, elkarrekin bizi ahal izateko, elkarren pare, edo orain artekoari eusten diote, nagusiaren eta esklabuaren arteko erlazioan bizitzeari. Baina bigarren kasu honetan bi aldeok garesti ordainduko dugu.

Oasia Judeako basamortuan

Hiri berri, garbi, moderno eta baketsua iruditu zait Maaleh Adumim (bide gorria, hebreeraz), Gashon auto gidariak eta Dalia laguntzaileak asentamenduan alde batetik bestera eraman nautenean. Berdeguneak zabalak eta ugariak dira Maaleh Adumimen, eta kale ertzetan enbor meheko arbol gazteak ageri dira.

– Begira –abiada mantsotu du Gashonek, eskuarekin nire begiak eskuinaldera eramanez–. Lehen horrelakoa zen hau dena.

Basamortua ikusi dut.

– Judeako desertua da. Ekialdera desertua baino ez dugu.

Gashon, aita poloniar eta ama irakiarreko *sabra* da, Israelen jaiotako judutarra; Dalia, Argentinara ihesitako judu errusiarren alaba. Maaleh Adumimen bizi dira biak. Kolonoak dira.

Jerusalemdik ekialdera dago Maaleh Adumim, Jerikorako bidean dagoen muino batean, Judeako basamortuaren mendebaldeko ertzean. Zisjordania da, lurralde okupatua, baina Israelgo

lege zibilak agintzen du hemen eta hiritar israeldarraren eskubide guztiak dituzte bertako bizilagunek, juduen asentamendu guztietako kolonoek bezala.

1967ko Sei Eguneko Gerran Israelek Eki Jerusalem, Zisjordania, Gaza eta Golango lurraldeak hartu zituenetik, berrehun kokagune inguru ezarri dituzte kolono juduek lurralde okupatuotan; 300.000 kolono judu bizi dira egun herri berri hauetan. Eta Jerusalem inguruan asentamendu jendetsuak finkatzeko ahalegin berezia egin dute juduek urteotan, hiri santuaren eta Zisjordania palestinarraren artean «asentamenduen gerrikoa» osatzeraino. Eginahal horren fruitueta-ko bat da, hain zuzen, Maaleh Adumim: 1975ean 23 familia aitzindariek sortutako kanpamentua, 20.000 bizilaguneko hiria da 1997an.

– Auzo berriena da, muino horretan ikusten duzun hori –gelditu egin gara–. Azken hiru urteotan eraiki da eta jendea jada etxebizitzetan sartzen hasi da. Lanak bukatu aurretik saltzen dira etxeak, Jerusalemen etxebizitza eskaintza eskasa eta garestia baita. Datorren urterako erabat

populatua izango da urbanizazio berria, eta 30.000 lagun izango gara Maaleh Adumimen.

Hiria etengabe ari da hedatzen: etxe bukatu berrien auzoak metro gehiago kendu dizkio desertu gorriari, eta beste eremu batean lurra harrotzen hasiak dira, auzo berri baterako eraikuntza-lanen atari.

– 45 kilometro koadro lur badugu –atzeko eserlekutik ari zait Dalia–, hurrengo ehun urteetan hazten segitzeko adina lur badugu! Baina ez dugu nahi 70.000 lagun baino gehiagoko hiri bilakatzerik. Hori da gure neurria.

Kolono «ekonomikoak» –etxebizitza merkeek erakarritakoak– dira Maaleh Adumimeko bizilagun gehienak, eta sekularrak. Erlijiosoak %20-25 baino ez dira, eta ultraortodoxorik ez dago.

Gashonek Industria Ministerioan egiten zuen lan, Jerusalemen, eta Unibertsitatean ezagututako andregaiarekin ezkondu zenean, hiriburuan etxebizitzak garestiegi eta Maaleh Adumimen erosi zuten bat, orain bederatzi urte. Urte berean etorri ziren Argentinatik Israelera Dalia eta senarra, bi haur txikirekin; sei urtez Jerusalemen bizi

izan ziren, errentan, eta duela hiru urte hiru logelako pisua erosi ahal izan zuten Maaleh Adumimen. Udal langileak dira biak orain.

Arimarik ez dabil kalean. Lotarako herria da, goizetan jendez husten eta gauez atzera betetzen dena, Jerusalem inguruko asentamendu gehienak bezala. 1985ean errepide berria eraiki zenetik oso eroso etor daiteke Jerusalemdik, ordu erdi eskasean, lau karrileko bide zabalean; Al-azariyya herri palestinarra zeharkatu behar izan gabe gainera.

Maaleh Adumimeko industrialdea begiztatu dugu urrutira, desertuan, kilometro parera edo. Orain industrialdea baino ez dagoen lekuan sortu zen asentamendua 1975ean, 1973ko Jom Kippurreko gerraren ostean. Jerusalem inguruko industrialde handienetakoa da: ehun lantegi baino gehiago, bi mila langile ingururentzat. Langileen erdiak palestinarrak dira.

– Jerikoko lanpostu hornitzaile garrantzitsuena gara. Horregatik da Maaleh Adumim leku lasaia. Ez dago terrorismorik, ez dago istilurik. Ez lukete ezer egingo lanpostuak arriskuan jartzeko –Daliari begiratu dio Gashonek, adostasuna bila.

– Herrian ere egiten dute lan arabiar gutxi batzuek, Udalarentzat. Beduinoak, gehienbat –automobilera itzultzeko keinua egin du Daliak–. Goazen?

– Eta bizi? Palestinarrik bizi al da hemen? –badakit ezetz.

– Ez, baina atea ez dute itxirik. Edonork eros dezake apartamentua, merkatu irekia da. Baina jabetzen naiz palestinar batentzat ez dela oso erosoa izango hemen bizitzea.

Autoek herrigunean ez daukate sartzerik, eta herria inguratuz bisitatu ditugu asentamenduko bazterrak, parkez parke, lorategiz lorategi, hostoz jantzitako arbolek gerizpea eskaintzen digutela, itzala zer den ez dakien basamortua ia ukitu egiten dugula.

– Geratu hemen –agindu du Daliak–. Jerusalem ikusiko dugu.

Zeruertzean agertu zaizkigu hiri santuaren distirak. Unibertsitate Hebraiarraren dorrea eskuinean, Augusta Victoria ospitalekoa erdian, eta Olibondoen Mendiko monastegikoa ezkerrean. Hamar kilometro eskasera dago Jerusalemgo Hiri Zaharra, gotorlekua.

– Eta horko muino hori gure Udalaren eremua da, Jerusalemgo udal lurrekin daukagun lotura zuzen bakarra: berrehun metroetan muga egiten dugu hiriburuarekin.

Ulertzen hasi naiz.

– Garrantzitsuak dira oso. Berrehun metro horiei esker Israelgo Estatuari lotuta gera gaitezke betirako, Zisjordania palestinarren esku geratuko balitz ere.

– Lur horietan bederatzi hotel eraikitzeko asmoa dugu. 2000. urterako turistak bikoiztea espero da, eta Jerusalemen ez dituzte nahikoa hotel. Plangintza ia bukatua dago: Gobernuak azpiegiturak eraikiko ditu, eta ondoren hotelak egiteko inbertsoreak aurkitu behar ditugu. Estatu Batuetako inbertsore bat badugu dagoeneko.

– Beste Har Homa bat? –negoziazio politikoak eten dituen asentamendu berriko lanak etorri zaizkit gogora.

– Egitasmoa ez da gaur goizekoa baina, tamalez, eremu hau Har Homarekin batera arazo bihurtu da, orain, bake prozesuarekin. Palestinarrak aurka daude, baina Gobernuak jarrera tin-

koa du. Espero dut datorren urtearen hasieran errepideak egiten hasiko garela.

Jende armaturik ez zait egokitu Maaleh Adumimen. Hebrongo Qiryat Arban mordoa zebilela aipatu diet.

– Hemen arma gutxi ikusiko duzu. Asentamenduei buruz dagoen irudiarekin puskatu egiten du honek; Judea eta Samariako [Zisjordania, juduen hizkeran] asentamendu galdu eta txikiengandik oso ezberdina da hau: kolono horiek arrazoi ideologikoengatik bizi dira han; gu, arrazoi ekonomiko eta praktikoengatik gaude hemen.

Kokagune laiko eta «ez-ideologiko» honen jatorrian, baina, motibazio ideologiko oso sendoko 23 familiaren ekimena dago. Aitzindari horien artean zegoen Shimon Ansvasher. Maaleh Adumimeko ohiko biztanle laikoa ez dela adierazten dute burua estaltzen dion kippak eta bizar zuri luzeak. Urteetan aurrera joana da; 70 urte inguru.

Lurralde Okupatu guztietan kokagune juduak zabaltzea helburu duen Gush Emunim erakundeko kide egin zen Shimon 1970eko hamarkadan eta 1973ko Jom Kippurreko gerraren ondoren, orain Maaleh Adumim dagoen lurretan komunitate judua ezartzeko taldea antolatzen hasi zen.

– Zergatik hemen, basamortu hutsa bazen?

– Jerusalemen ekialdean dagoelako. Orduan hiri santuaren ekialdean ez zegoen komunitate judurik eta, Jerusalem Israelentzat ziurtatu nahi bagenuen, ezinbestekoa zen.

Israelen urte asko zeramatzan ordurako Alemanian jaiotako Shimonek. 1933an, mukiak kentzeko gauza ez zela artean, Hitlerrengandik ihesi Belgikara joan zen gurasoekin. Gordelekutzat zeukaten etxetik irten ezinik egin zituzten gerrako urte ilunak. Gatazka amaituta, 1949an, Israelera etorri eta kibbutz batean hasi zen bizitzen, marra berdearen mugen barruan oraindik.

Baina 1967ko gerrarekin Judea eta Samariarako ateak zabaldu zitzaizkien. Ez erdiz erdi, hala ere, orduko agintari laboristak asentamendu berriak eraikitzearen aurka baitzeuden nonbait.

Baina helburua eremu industriala ezartzea zutela argudiatuz, Gobernuak ez ikusiarena egitea lortu zuten. 1975eko urte hasieran lehenengo etxea eraiki zuten, egurrezko zenbait barrakarekin batera. Sinagoga bilakatu zuten aurreneko eraikin hura eta taldeko gazteenetako bat zaindari jarri.

– Bera izan zen, 1975eko martxotik aurrera, Maaleh Adumimeko lehen biztanle iraunkorra.

Abenduan, 23 familia fundatzaileak iritsi eta bertan finkatu ziren.

Baina kokagunea sortu eta gutxira, PAEk (Palestinaren Askapenerako Erakundea) asentamenduari eraso egiteko plana zuela jakinarazi zieten Israelgo Inteligentzia Zerbitzuek.

– Hesitu egin genuen erabat asentamendua, zakurrak zaindari jarri eta zaintza zerbitzua antolatu. Kontzentrazio esparruen itxura zuen hark. Hedabideetan oihartzun handia izan zuen gure istorioak: exotikoak ginen munduarentzat, erriflea bizkarrean eta zakurra ondoan genituela ibiltzen ginen estremistak.

Bi urtera, 1977an, Israelgo Gobernuak oniritzi ofiziala eman zion Maaleh Adumimeko asen-

tamenduari eta 1979an udalerri bilakatu zen. Estatus hori hartu zuen Lurralde Okupatuetako lehen kokagune judua izan zen. 1982an jatorrizko lekua utzi eta gaur egun herria dagoen muinora mugitu zuten asentamendua. Geroztik, hazi besterik ez da egin.

Baina ez berez.

– Gogor egin genuen lan asentamendua sendotzeko. Azkar jokatu behar zen, jendea erakarriz eta bizkor eraikiz. Hona etortzen zen familia bakoitzak beste bi ekartzeko betebeharra zuen. Israelgo bikote gazteak dira gehiengo Maaleh Adumimen, baina azken aldian etorkin berri ugari heldu da, Sobiet Batasun ohitik gehienbat.

Horman elkarren ondoan dituen sei argazki erakutsi dizkit Shimonek, alde egiteko asmoa azaldu diodanean. Helikopteroz-edo ateratako argazkiak dira, denak lur eremu berari, orain Maaleh Adumimek hartzen duen muinoari.

Basamortu hutsa oasi populatu bihurtzen ikusi dut.

Palestinar itxurako kale-garbitzailea topatu dut bidegurutze bakarti batean, Jerusalemera itzultzeko autobus geltokirantz noala.

– Ingelesez badakizu? –galdera derrigorrezkoa.

– Ez.

Baina ezin etsi, jakinmina ase gabe.

– Israeldarra ala palestinarra?

– Palestinarra –hainbeste badaki.

Banoala, kazetari sena bizirik nonbait, argazki oina etorri zait burura: «Garbitzaile arabiarra judu kolonoen asentamenduko kaleetako zaborrak biltzen». Kamera atera dut, eta baimena eskatu keinuka.

– Ez.

Elie Barnavi idazle israeldarrak idatzi zuen langile palestinarrak ikusezinak direla judutarrentzat, falta direnean salbu. Ausentzian ikusten dituzte, ez presentzian. Unibertsitateko tabernan plastikozko edalontziak ateratzen zituztenean konturatzen zen, Ramadana edo grebaren bat medio, palestinarrak falta zirela.

«Estatu bat eraiki dugu eta ez gara gauza guk erabiltzen ditugun edalontziak garbitzeko».

Beti errudun

Mugak eta hiri autonomoek itxita darraite, Mahane Yehudako sarraskitik hamar egun joan direnean. Egunetik egunera errazago egin daiteke Jerusalem eta Ramalla arteko bidea, baina zail da, oraindik ere, Lurralde Okupatuen barruan hiritik hirira joatea. Palestinarrentzat behintzat. Ezinezkoa ia Jerikon, Belenen edo Hebronen sartzea. Errazagoa, baina ez trabarik gabea, iparraldeko hirietarako sarrera, Nablus, Tulkarem eta Jenin. Eta gatza gozatzea bezain ezinezkoa, nonbait, Gazarako sartze-irteteak. Israelgo mugen barnean lan egiten duten 40.000 gazatar etxean dira, lanera joan ezinik.

Ramallako zeru beti urdinari begira geratu beharrean Bir Zeit Unibertsitatera iristen saiatuko naiz: hango ikasle mugimenduekin harremanetan jartzeko gogoz nabil eta setio militarrak Unibertsitatea zein egoeratan utzi duen jakin nahi dut. Ramallako eskualdean dago Unibertsitatea, baina eremu autonomotik kanpora.

Hara joaterik ez dagoela esan dit Bir Zeiterako taxien geltokian aurrena topatu dudan gidariak, baina badaezpada ere orroka zerbait galdetu dio urrutixeago duen bati, eta hark baietz, ahaleginduko garela edo. Ni Mercedesean sartu eta hamar bat minutura bete da taxia: hamaika lagun eta gidaria. Ez gara betiko bidetik abiatu, eta xekel bakarra eskatu digu, ohiko hiru beharrean. «Bidearen zati bat egingo du eta handik beste taxi batean joan beharko dugu», pentsatu dut neure kolkorako. Helmugara iritsi aitzin, nola ez, israeldarren kontrolarekin egin dugu topo.

Ez dakit arabieraz edo hebreeraz aritu diren, baina ulertu ez dudan jardun laburra izan dute militarrak eta taxi gidariak. Atzeko leihoetara begira galdezka hasi da gero soldadua, eta gidaria gure izenean arrapostuka. Soldaduak isiltzeko, guk erantzungo dugula. Heldu nire txanda:

– Ez dizut ulertzen.

– Nondik zatoz?

– Ramallatik.

– Ramallan hartu duzu taxia?

– Bai.

Soldaduak, oihuka eta espantuka, irteteko agindu dio gidariari. Ingurukoen begiak gora begira sentitu ditut, «kaka egin dugu» esanez bezala. «Kaka egin duzu», zehazkiago. Kanpoan dago gidaria, taxiaren atzealdean, itaunka baino irainka ari zaizkion bi soldadu zaunkariak bekoz beko dituela.

– Zerbait oker esan dut? –nabarmena dena berrestea eskatu diot aldamenekoari.

– Akats handia –burua behera ekarri du astiro-astiro, begiak bilduz. *Big mistake*.

– Handia? –galtzetan estu naiz, gidaria soldaduek inguratua ikusita.

– Bir Zeitetik gentozela esaten ari zen gidaria, eta zuk, Ramallatik gentozela. Ramallatik datozenek ezin dute kontrol hau zeharkatu. Gezurretan harrapatu dute.

Kolaboratzaile bat naiz.

Kopetilun itzuli da gidaria minutu gutxira. Etorri da, hala ere, eta gaitzerdi. Jiratu eta atzera goaz, israeldarren laguntzaile euskaldun buru handi honen erruz. Inguruan ez dut, hala ere, begitarte ilunegirik sumatzen, eta gidaria azkar asko hasi da Bir Zeiterako bide berria bilatzen.

Bina xekel eskatu digu behintzat, tiketaren prezioa osatzeko. Palestinako taxiek, errekako urak bezala, aurrera egiten baino ez dakitela, alajaina.

Adarra jotzeko kasetea martxan jarri du, gainera, taxistak, ispiluan nire estuasun aurpegierari erreparatu dionean. Arabieraz ulertzen ez diodala jabetu denean, hitz bakarra errepikatu dit, eskuineko atzamarrak elkar ukituz gora eramanez:

– Arabic! Arabic! –eta barre egiten dit, «arabiera ikasi behar duk, gaztea!», esanez bezala.

Hitz eta pitz ari da gidaria, isildu gabe, eta umore ona nagusitu da autoan. Algaraka ere jarri ditu bidaiariak, nire lepotik seguru, eta noizbehinka berriro, ispiluari begira:

– Arabic! Arabic! –segi algaran.

Denok dakigu erruduna nor den. Eta ez naiz ni.

Herrian eta inguruetan jaitsi dira bidaiari guztiak, eta gidaria eta biok bakarrik igo gara herritik kilometro batera-edo dagoen Unibertsitatera. Arratsaldeko laurak dira eta, ez musulman ez kristau, inor ez dabil; sarrerako langaren

bi zaindariak baino ez. Unibertsitatea itxita dago setio militarra dela-eta bertara heltzeko ikasleek dituzten zailtasunengatik. Klaserik ez da izango kontrolak kentzen ez dituzten bitartean. Argazkiak atera dizkiet ikastetxe hilei, eta oinez abiatu naiz, beste taxista ausarten baten bila.

Lehenengo bidegurutzean gelditu zait hutsik doan bat, eta baietz. Bidean ama eta bospasei urteko haurra hartu ditugu eta, konturatu naizenerako, lehenxeago barregarri geratu naizen kontrolean gaude. Baina bestaldetik gatoz orain.

Lehengo soldadu bera etorri zait leihora.

– Kaixo. Zu ez al zinen hemen orain hogei minutu?

– Bai, hala da.

– Eta?

Azalpenak eskatzen ari zaidan susmoa dut, baina ez nago horretarako. Ez dut berriro kolaboratuko.

– Kazetaria naiz –eskua atzeko poltsikora eraman eta Israelgo Gobernuak emandako agiri ofiziala erakutsi diot–. Unibertsitatera etorri naiz argazki batzuk ateratzera, atera ditut, eta orain atzera Ramallara noa.

– Ondo da, joan zaitezke Ramallara, baina oinez pasatu behar duzu kontrola. Taxiak ezin du aurrera egin.

– Oinez? Nola joango naiz oinez Ramallara?

– Kontrolean geratzen bazara, Ramallatik datorren auto batean itzuli ahal izango zara.

Alegia, zuek pasatzen utziko ez diozuen hurrengo automobilean. Gidariari begiratu diot, baina ez dit seinalerik egiten. Ulertzen dut jokaldia: taxiak atzera egingo du eta beste bide batetik joango da Ramallara. Taxian gelditzea komeni zait, baina ez dakit soldaduaren aurrean nola arrazoitu. Egoeraz jabetzen ez naizen plantak egiten hasi naiz, gidariari galdetuz ea jaitsi egin behar dudan, ea berak zer egin behar duen. Besoak zabalduz eta begiekin soldadua seinalatuz, etsi-etsian atzera egingo duela adierazi dit.

Baina atea irekitzear nengoela, zerbait esan dio soldaduari, atzeko emakumeari eta honek besoetan duen umeari begiratuz. Baietz amak, umeari buruan maite-maite eginez. Tira, soldaduak, aurrera egiteko. Gertatua ulertu dudalakoan nago.

– Umea gaixo dagoela esan diozue?

– Ospitalera eraman behar dugula.

– Gaixo dago?

– Ez! –ispilutik emakumeari begiratu dio, konplizitate keinua eginez– Hogei minutu barru kontrolean egoteko agindu dit soldaduak!

– Hogei minutu? Helduko zara?

– Ez naiz joango. Beste bide batetik sartuko naiz gero, Bir Zeitera itzultzeko. Aizu, zu kanpotarra zara... Zer iruditzen zaizu hemengo egoera?

Isatsaren preso

Ordubetean egin dugu Ramallatik Jerikorako bidea, Judeako desertu gorrian barrena, 10 laguneko taxian. Errepidea ona da, zabala, kolonoak asentamendutik asentamendura eroso joateko eraikia. Maaleh Adumimdik gertu pasatu gara aurrena, eta kokagune gehiago ikusi ditugu aurrerago ezker-eskuineko muinoetan. Etxe berri adreilu zurikoek adierazten digute juduen herri berriak direla. Beduinoen akanpalekuak ere begiztatu ditugu errepidearen ertzean. Dendetan bizi dira, basamortuan. Bidegurutze batean, pasaran goazen bidaiarioi begira geldi-geldirik dagoen gamelu dotoreak diosal egin digu, muturrarekin zirkin eginez.

Itsasoaren mailatik behera sartu garela gaztigatu digun ingelesezko bide-seinalea irakurtzearekin bat belarriak itxi zaizkit. Itsaso Hilaren ondoan, itsasoaren maila baino beherago dago Jeriko, munduko lurralde baxuena eta munduko hiririk zaharrena.

– Hemen da –ohartarazi dit Habib itzultzaileak hiriaren sarrerara heldu garenean, gidariari gelditzeko eskatu aurretik.

Kuartel itxura du espetxeak. Horma alturik ez du, baina arantzadun alanbre-hesiak inguratzen du bere osoan. 3 x 2 metroko etxola dugu aurrean, eta ibilgailuei sartzea eragozten dien langa. Ez dirudi kartzela gotorra; Jerikoko tronpetek aise eraitsiko lizkiokete harresiak.

Ibrahim Alqam presoaren senideekin sartzea zen plana, etxekoen laguntzat hartuz gero oztoporik jarriko ez zutelakoan. Baina uste baino beranduago heldu gara, eta senideak barruan dira dagoeneko. Inor ez dugu zain.

– Ez dio axola. Ni izango naiz senidea –esan dit prestu Habibek; ez da Jerikoraino alferrik etorri.

Pasaporte espainiarra eman diot zaindariari, nortasun agiria eskatu digunean.

– Lehengusua dut, Espainian bizi da –galderari itxoin gabe erantzun dio Habibek zaindariaren keinu okerrari.

– Aurrera.

Sartu ahala, oraindik aire librean, dozena bat gazterekin egin dugu topo, zuhaitz baten gerizpean eserita denak. Inork ez du uniformerik, baina kartzelako zaindariak dira. Ez digute jaramonik egin. Aurrerago topatu ditugun barrakoietako ate gutxi batzuk erdiz erdi daude: dozenerdi ohekoak dira batzuk, ohe bakarrekoa bakanen bat. Hauetako batean sartu-irtena egin du Habibek, ohean etzanda dagoen ile urdina agurtzeko.

– Koronela da. Arafatekin arazoren bat izan du eta hemen dago aste batzuetarako: arrastatze militarra.

Ez dakigu zer arazo izan duen Arafatekin, Habibek ez dio galdetu.

– Segurtasun zerbitzuetan lan egin nuenean ezagutu nuen. Nik ere arazoak izan nituen. Azalduko dizut.

Erdi galduta ibili gara barrakoi artean, baina asmatu dugu bidearekin azkenean. Barruan hamar bat teleikusle dituen gelara sartu gara. Inork ez du uniformerik eta ez dakit nor den zaindari, nor preso-senide. Poltsikoak erabat hutsarazi dizkidana ez da preso-senide, orain badakit. Gorputza ondo igurtziz miatu didan elastiko ti-

ranteduneko potoloa ere ez da bisitaria, ziur. Habibek paper eta txartel andana du zorroan eta zorrotz behatu dizkiote denak. Nik ez dut batere ekarri.

Harrizko horma bateko metalezko atearen aurrera ekarri gaituztenean Habibek berak sakatu dio txirrin gorriari, baina ez dugu giltza soinurik entzun. Zaindari bat etorri eta ukabilez hiru kolpe lehor jo dituenean zabaldu da atea, patio handi baterako bidea irekiz. Estalperik gabea da bere zabalean, baina 50 lagun inguruari itzala ematen dien karpa handi bat dago bazterrean. Beroa latza da Jerikon. Izerditan ari dira, ni bezala, espetxeko hormak.

Masailean zazpi musu emanez agurtu du Habibek estalpetik kanpo, eguzkiak erre eta aire astunak ito egiten duen lekuan, dauden gutxietako bat. Soinu eta guztikoak dira Habiben eta gizon gihartsu beltzaranaren arteko musuak.

– Polizia da, Agintaritza utzi egin nahi du nik egin nuen bezala, eta kartzelara sartu dute hiru hilabeterako –soseguz eman dit azalpena Habibek, ez harridura ez amorru–. Aizu, ezagutzen al dituzu elkarrizketatu behar dituzun presoak?

Ezetz egin diot buruarekin.

– Eta haien senideak?

– Ezta ere. Addameer elkartearen bitartez egin nuen hitzordua, familiarekin zuzenean egon gabe.

Bospasei laguneko taldetan eserita daude presoak eta bisitariak, denak nahasian. Alfonbra gainean lurrean daude gehienak, plastikozko eserlekuetan gutxi batzuk. Taldez talde ibili gara galdezka, bibotedun batek «ni naiz Ibrahim Alqam» esan digun arte.

Bibotea beltz eta ilea labur, elastiko beigea eta praka bakeroak ditu soinean Ibrahimek. Adi entzun ditu Habiben azalpenak: zer nahi dudan, noren bitartez etorri garen eta, ustez, elkarrizketa hitzartua genuela berarekin eta bere lagun Masah-rekin. Ez zekiela ezer baina, tira, hartzeko aulki parea. Berehala gureganatu da Ibrahim Masah. Bizarduna da, bekokian ilea galtzen hasia eta argala. Indartsu begiratzen dute bere begiek. 27 urte ditu Masah-k, bere lagunak baino urtebete gehiago. Palestinar gehienekin gertatu ohi zaidan bezala, helduagoak iruditzen zaizkit biak.

Plastikozko lau aulkitan eseri gara, lauki itxia osatuz, elkarrengandik gertu-gertu. Kafe bana atera digu Alqamek, familiak ekarritako termotik. Ahapeka mintzo zaizkigu, ingurukoek entzuterik nahi ez balute bezala.

Ramalla inguruko asentamendu judu bateko hiru laguni tiroz eraso zieten hiru lagunek 1996ko neguan. Emakume judu bat hil egin zuten eta bere bi lagunak zaurituta utzi, ihes egin aurretik. Palestinaren Askapenerako Fronte Popularreko Ramallako hiru militanteri leporatu zieten ekintza Palestinako Agintaritzako segurtasun zerbitzuek. Bi militante berehala atxilotu zituzten. Horietako bat, Ibrahim Alqam.

Preso hartu eta hurrengo bi egunetan epelak hartu zituen Alqamek, gau eta egun, Ramallako atxilotze gunean. Baina zaindari zuen poliziak, Alqamek berak bezala, bi egun zeramatzan begirik bildu gabe eta, loak menderatu zuenean, hanka egitea lortu zuen.

Adiskide baten etxera jo zuen. Hezur eta mami astinduta, gorputza ubel, ospitale batera

eraman zuen lagunak. Baina ospitaleko segurtasunekoek Alqamen berri jakin eta israeldarrengandik babestu ahal izateko segurtasun zerbitzu palestinarren esku egotea hobe zukeela «esan» zioten. Jaramon egin zien. Zer erremedio.

Bere burua entregatu egin zuen. Hurrengo lau egunetan gehiago torturatu zuten: hiru egunez euritan biluzik eduki zuten, abenduko hotzean; buruan kolpeak jaso zituen; eta hanketatik lotuta zintzilikatuta ere eduki zuten.

Kordea galdu zuenean, eritetxera eraman zuten.

Ibrahim Masah ez zegoen etxean Polizia palestinarra bila joan zitzaionean, baina bi anaia gazteagoak eta aita, bai. Eta Poliziak hirurak eraman zituen. Senideak askatzearen truke, komisarian aurkeztu zen Masah. Gau hartan, zuzenean, Jerikoko espetxera eraman zuten Masah gaztea. Han topatu zituen Ibrahim Alqam eta hirugarren laguna.

Goizaldeko lauretan, abokatuari deitzeko aukerarik ere eman gabe, espetxeko gela batean epaitu zituzten hirurak. Agintaritzak jarri zien abokatua. Epaileak militarrak ziren, soinean ze-

ramatzaten uniformeek adierazten zutenez, defentsa eskubideak errespetatu gabe epaiketak gauerdian egiteagatik ezaguna egin den Segurtasun Auzitegiko kideak. Ordu laurden baino ez zuen iraun epaiketak, epaituek ez zuten ahoa zabaltzerik izan eta betirako kartzelara zigortu zituzten hiruretatik bi. Ibrahim Masah-k 15 urteko zigorra du bizkar gainean.

Jerikoko harresiak baino ikusten ez dituztela daude geroztik bi Ibrahim: Alqam eta Masah. Hirugarren laguna ihes eginda dago. Duela hilabete zirrikitu bat aurkitu zuen hormen artean, barruan zazpi hilabete egin ondoren.

– Estatu palestinarraren alde borrokan aritu ondoren Agintaritza palestinarrak espetxeratuta zaudete orain.

– Sekula ez nuen pentsatuko horrelakorik gerta zitekeenik –dio Alqamek–. Sinestezina zait palestinarrek giltzapetuta egotea. Baina, batez ere, inoiz ez nuen begitandu ere egingo atxiloketaren ondorengo egunetan eman zidaten tratua jasango nuenik nire anaien eskutik.

–Pentsa, israeldarren okupazioaren aurkako borrokan burkide izandako bat orain zaindari dugu espetxean. Egoera oso aldrebesa da.

– Prozesu politiko bat bada martxan. Horren ondorioz askatasuna lortzeko esperantzarik?

– Gureak luze joko du –betirako zigorra du Alqamek–. Israeldarrek ez dute onartuko gu askatzea, eta israeldarrek onartzen ez badute, palestinarrek ez gaituzte askatuko.

– Gu bi arrazoirengatik gaude preso. Batetik, Israel gustura edukitzeko; harreman onak eduki nahi dituzte prozesuarekin aurrera jarraitzeko. Eta bestetik, Fronte Popularreko kideak giltzapean eduki nahi gaituzte, Fronteko zuzendaritzari presioa egin ahal izateko.

– Bake prozesu honek ez du gurearen soluziorik ekarriko!

– Zer iritzi duzue prozesu politikoari buruz?

Galdera itzuli barik niri so geratu da Habib:

– Popularrak dira. Garbi dago zer pentsatzen duten: kontra daude.

– Baina euren argudioak entzun nahi nituzke.

– Fronte Popularrekoak hasieratik egon dira prozesuaren kontra –niri jaramonik ez egiteko

beste konfiantza hartu du Habibek–. Nire ustez, laster Agintaritzaren aurka borrokatu beharko da, baina ez militarki.

– Galde iezaiezu, orduan, horri buruz. Ea Arafat etsaitzat duten.

Lortu dut solasaldia presoengana eramatea berriro. Masah-k erantzun dit:

– Ez. Ez dugu nahasi behar. Agintaritza isatsa baino ez da. Gorputza Israelgo Estatua da, eta Israelgo Estatuaren isatsa, Palestinako Agintaritza. Isatsaren kontra ekinez ez dugu ezer lortuko. Gorputzari egin behar diogu eraso.

– Torturatua izan zinela kontatu diguzu, Ibrahim –Alqami ari natzaio–. Salatzeko aukerarik izan duzu?

– Al Haq elkartera joan da nire familia, baina esan diete oso zaila dela auzi bat irekitzea. Nola frogatu? Antzeko kasu asko daude eta gehienetan ez da ezer gertatu. Dena den, ni torturatu nindutenen koronela atxilotu egin zuten, hona ekarri zuten, aldi labur bat egin zuen, gero Ramallara eraman... orain ez dakigu non dagoen. Jende asko torturatu zuen koronel alu horrek.

– Zuen artean izan zen?

– Militarrak aparte daude. Beste guztiok nahasita gaude, ordea. Politikoak zortzi gaude espetxe honetan, Fronteko lau eta Hamaseko lau. Gainerakoak lapurrak, eskaleak, israeldarren informatzaileak eta horrelako jendilajea da.

– Txibatoekin hitzik ez dugu egiten. Egun onik ere ez. Hamar bat daude.

– Hamasekoekin, aldiz, oso ondo konpontzen gara. Frontekoak ziega batean gaude eta Hamasekoak beste batean, baina denok elkarren artean banatzen dugu dena. Gure familiek ekartzen duten guztia denontzako da. Denok bat gara.

Patioaren sarreran Habibek agurtu duen presoa –polizia– etorri zaigu, Habibekin bi hitz egiteko. Txantxetan jardun dute bi adiskideek. Gure bi solaskideak, bitartean, burua makurtuta eduki dute. Alde egin duenean, hitzerdirik ere ez polizia «desertoreari» buruz.

– Palestina autonomoko espetxeetako bizi baldintzak oso txarrak direla entzun dut.

– Txarrak? Bekatua baino txarragoak! Penagarriak! –ahotsa pixka bat altxatzen ausartu da Alqam–. Hiru aldiz egona naiz lehendik Israelgo

kartzeletan, eta hango bizimodua ez da batere santua, baina nahiago nuke haietako batean egon!

– Izateko baino ez izateko hobea da hemengo janaria! Ez dago jaterik! Senideak astean behin ekartzen digutenarekin moldatzen gara. Aste guztirako jatena ekartzen digute. Hemen familiak ordaintzen du dena. Senideek ordaintzen ez duten bakarra argindarra eta ohea da.

– Batzuek ez dute nork bisitatu, edo familiak ezin du honaino etorri, edo janaria erosteko diru-rik ez dute, eta ezinean dabiltza, neketan baino ezin janez.

Tabakoa eskaini digu Alqamek. Nik ezetz. Habibek patrikatik paketea atera du, baina presoak ez dio utzi; beretik erretzeko. Habibek txiskeroa ateratzeko imintzioa egin duenerako ere garra mutur aurrean ipini dio Alqamek.

Ramallatik etortzen zaizkie senitartekoak bi Ibrahimei.

– Tokitan dago. Astero honaino etortzea garestia eta neketsua da. Taxia hartu eta ordubeteko bidea egin behar. Ramallara eramango gintuztela agindu ziguten orain bost hilabete, hori

eskatuz 15 eguneko gose greba egin genuenean. Gaur arte.

Emakume gizen bat hurbildu zaio Masah-ri, ama izan daiteke adinez, eta diru billete bat eman dio ezkutuka. Presoak beraiek hasi dira eserlekuak jasotzen. Bostekoak indartsu estutu dizkiogu elkarri adioan. Zazpina musuko agurrak lagunminen artekoak bide dira. Niri ez dagokit.

Espetxeko itzala utzita, burmuinak urtu beharrean ditut berriro. Irakiten legoke Jeriko bere osoan, eltzea balitz. Bero sapari aurre egitea dugu gaur lanik behinena eta, eztarria garbitu beharko, itoko ez bagara. Eta hau ez da okupazioaren errua, Arafat.

Latako banana-marrubi nektar hotz bana edan dugu, sabela berdintzeko asmoz espezie eta frijiketa usaina darien jatetxe ugarietako batean sartu aurretik. Txurroak frijitzeko egokia dirudien ontzi zabal koipez betea du atarian jatetxeak. *Falafel*-ak frijitzeko da. Garbantzo egosi xehetuarekin egindako kroketa itxurakoak dira falafelak. Entsalada pixkatekin eta saltsaren ba-

tekin hornituta ematen dizute ogitartean edo, nahi izan gero, falafel bola mordoska bere horretan zorro batean. Ez da oso jaki fina, baina merkea da eta bete egiten du.

Frijiketarako ontzitik ez urruti, *sawarma* okelaren trontzoa dute ate ondoan, jatetxe gehienek bezala. Ardatz bertikal baten inguruan, hankaz gorako konoaren forman paratuta erretzen dute espezieekin gozatutako ardikia, gero goitik behera moztutako xerra mehetan zerbitzatzeko. Entsalada eta saltsa apur batekin emango dizute sawarma ogitartekoa eskatuz gero, baina platerean eskatu dugu Habibek eta biok, eta lau entsalada ezberdin atera dizkigute platertxo txikietan, eskatu gabe, sawarma irensten laguntzeko. Ona dago laranja zuku naturala baina, lastima, garagardo freskorik eza.

Hiria baino herria da Jeriko. Herri zaharra. Jendez gainezka dagoen meskita zuri handi baten ondotik pasatu garenean akordatu naiz ostirala dela.

–Jerikoko gazteluaren aztarnak ikusi nahi? Bizikletan joan gaitezke –turismo-gidari lana egiteko prest dago Habib.

– Bizikletaz?

Ramallarako bidean jarri gara segituan, labeari ihesi.

Taxi gidaria ere gogoratzen da ostirala dela. Irratia piztua ekarri du –Loiola Irratia, pentsatu dut–, otoitzak –eta garrasiak– denok entzun ditzagun. Habiben istorioak, ordea, ez dit utzi erosarioari behar bezalako arreta jartzen.

Intifadan «beltzekin» aritu zen. *Kaffiyah* (lepoko palestinarra) beltza eramateagatik bereizten ziren Fatah-ko militanteak altxamenduan. Hiru aldiz espetxeratu zuten israeldarrek eta hiru urte egin zituen giltzapean guztira.

Autonomiaren etorrerarekin, Agintaritzarekin lan egin behar zuela erabaki zuen eta, Polizian sartu zela ulertu diot, «segurtasunean» lan egin zuela esan didanean. Espetxe palestinarretan borrokakide izandakoak giltzapetzen ari zirela konturatu zenean, eta onartzen ez zituen zenbait agindu betetzeko eskatu eta berak uko egin zionean, arazoak izaten hasi zen. Behin baino gehiagotan arrastatu zuten.

Agintaritza uztea erabaki zuenean, hiru hilabete ezkutuan egin behar izan zituen. Ondoren,

Agintaritzarekin mintzatu eta bakean utziko zutela hitz eman zioten. Anaia atzerrian du orain-dik, antzeko arazoengatik.

– Arafatekin eta Fatah-rekin atsekabetuta?

– Ezinaren ezinez ari dira. Arazoak arazo, Oslok zerbait on ekarri du, nahiz eta orain Agintaritza gaizki jokatzen ari den. Ni Fatah-zale naiz orain ere. Jokabidea zuzentzea da kontua. Demokrazia. Agintaritzari aurre egin, baina ez militarki. Ni ez nago prest palestinarrok elkar akabatzeko. Bi mutil hauek? Demagun oker jokatu dutela. Demagun. Baina gutxienez epaiketa justua merezi dute.

Belarriak zabaldu zaizkit itsasoaren mailatik gora etorri garenean. Gamelurik ez dugu zain bidegurutzean. Beduinoen akanpalekuak eta kolonoen kokaguneak lehengo lekuan segitzen dute.

Ramallan, fresko. Hogeita hamar gradu.

Intifadaren semeak

Bir Zeit Unibertsitateko Al Shabibi ikasle-talde indartsueneko kide da Walid. 51 kideko Ikasle Kontseiluan 22 ordezkari ditu Fatah alderdiaren jarraitzaileen erakunde honek; Bloke Islamikoak baino bi gehiago. Alderdi palestinar bakoitzak Zisjordanian zer sostengu duen neurtzeko erreferentzia nagusia –eta garai batean, bakarra– izan dira Bir Zeiteko unibertsitate-hauteskundeak. 1972tik hutsik gabe egin dira urtero, Intifadaren urte latzenetan izan ezik, 53 hilabetez (lau urte t'erdi) itxita egon baitzen Unibertsitatea.

Beltzarana da Walid ilez eta azalez. Txikia baina indartsua, dena zain eta gihar. 30 urte ditu, eta Diruzaintza ikasten ari da.

«18 urterekin sartu ninduten kartzelan eta 26rekin atera. Zortzi urte. Horra zergatik naizen, 30 urterekin, oraindik ikasle. Erakunde ilegaleko kide izatea, komando bateko lider izatea, israeldarren aurka borroka armatua egitea eta eskugranadak jaurtitzea leporatu zidaten. Nablusko

espetxe zentralean egin nituen Intifadako urte gehienak. Luze egiten da zortzi urte. Nire nortasuna eraikitzeko eta nire burua hezteko baliatu nuen garai hura. Borrokarekin aurrera egiteko borondatea, okupazioari aurre egiteko asmoa, sendotu zitzaidan.

»Ramalla inguruko errefuxiatu esparruetako batean, Jelazon-en, munduratu nintzen, eta bertan bizi naiz oraindik. Gure sendiaren azken menderdiko historia, familia palestinar askoren antzekoa da: orain Israelgo mugen barruan dagoen Anaba herrian bizi ziren gure aiton-amonak 1948ko gerrara arte. Israelgo Estatuaren sorrerarekin herria utzi eta, lau urtez behin-behineko errefuxiatugune batetik bestera ibili ondoren, 1952an Jelazonera etorri ziren.

»Joan izan naiz Anabara, eta han bizi ere bai, langile. Juduentzat lan egin nuen Anaban Intifadaren aurretik, nekazari. Aiton-amonen etxea eraikia egon zen lekua zapaldu nuen, baina han ez da etxerik. Birrindu egin zuten. Nire ametsa han bizitzea da. Ez nintzen han jaio, baina Anaba da nire herria, hango parte naiz.

»Al Shabibi fakzioko kide naiz, erakundearen helburuak eta ideologia nireekin uztartzen direnez. Palestinar gisa, ez dut bazter batean geratu nahi, aktibo izan nahi dut eta konpromisoa hartu. Nire helburu nagusia, fakzio honetako kide egitean, iraultzarako borrokarekin bat egitea izan da. Hori bake prozesua baino lehenago zen. Orain borrokak segitzen du, baina modu desberdinean: estatu berri bat eraiki behar dugu.

»Eraikitze horretan laguntzeko, gu Unibertsitatean ari gara lanean: ikasleen arazoak konpontzen ahalegindu bai, baina baita Bir Zeit barneko demokrazia bultzatu, adierazpen askatasuna babestu eta giza eskubideak zaindu ere. Gure lanen artean dago ikasleen mugimenduaren eragina gizarte osora zabaltzea eta etorkizuneko lidergoa prestatzea, Unibertsitatetik aterako baitira herriaren etorkizuneko liderrak.

»Al Shabibiko kideok Fatah alderdiarekin gaude osoki. Ni kritikoa naiz Palestinako Agintaritzaren (PA) politikarekin, baina Fatah naiz hezurretaraino. Egia da Fatah alderdiak eraman zuela lidergoa bake negoziazioetan, eta orain

PAko alderdi nagusia Fatah dela, baina horrek ez du esan nahi Fatah gustura dagoenik PAren orain arteko emaitzekin. Eraikitze prozesuan PA-rekin gaude, baina emaitza negatiboak kritikatu egiten ditugu. Esate baterako, beste fakzioetako jendearen atxiloketa politikoak salatzen ditugu, eta jarrera gogorra hartu genuen Polizia palestinarra Unibertsitate barrura modu txarrean sartu zenean; gogor gaitzetsi genuen.

»Giltzapean egin nituen Intifadaren urte gehienak, baina esan dezaket orduan jendea animo handiz zegoela, indarrez beteta. Altxamendu horren ondorioz zerbait gertatuko zela espero zuen jendeak. Eta halaxe jazo da; izan ere, oraingo bake prozesuaren indar sortzailea Intifada izan baitzen.

»Orain, israeldarren jokaerak negoziazioak izoztera eraman gaitu, palestinarren bizi baldintzen aurreratu ezinera, eta honek jendea etsipenera eraman du. Nolanahi ere, egoerak iraultza berri batera eraman gaitzake, Intifada berri batera. Eta oraingo honetan 1987ko Intifada baino hobeto antolatua izango da, akatsetatik ikasi

egin baitugu. Indarkeria handiagoa, erasotzaileagoa izango da».

Alaeddin-ek ez du palestinar itxurarik: ilea horia du eta begiak urdinak, baina ez nuke esango europarra-edo denik ere; ez nuke jakingo nondarra den esaten, arabiarra dela ez baneki. Komunista ohien alderdiko (PPP, Palestinako Alderdi Herrikoia) kide da Alaeddin, baina Unibertsitatean alderdi ezkertiar guztietako jarraitzaileak biltzen dituen Bloke Progresistan ari da; Fronte Popularreko eta Fronte Demokratikoko kideekin batera, beraz. Zortzi ordezkari dituzte Ikasle Kontseiluan. 28 urte ditu Alaeddinek eta Elektronika Ingeniaritza ari da ikasten.

«Fededuna naizen? Benetan, garrantzirik gabeko galdera da hori. Auzi hori ehundaka urtetan eztabaidatu da eta ez dago jakiterik zein den jarrera zuzena. Hemen Bir Zeiten ez da arazo fededun ez zarela aitortzea, zure barruko kontu gisa planteatzen baduzu, baina beste leku batzuetan ateo zarela aitortzea arazo handia izan daiteke. Bakartu egingo zaituzte, baita familiak ere. Ez

dute ulertuko. Iparraldean, nire herrian adibidez, onartezina litzateke.

»Jeningoa naiz, Zisjordania okupatuaren iparraldeko hiri nagusikoa. Intifada hasi baino lehenago bi aldiz atxilotu ninduten israeldarrek: bi hilabete egin nituen preso 1985ean, 16 urterekin, eta hilabete hurrengo urtean. Intifadaren aurreneko urteak Jeninen egin nituen, baina 1990ean, egoerarekin lur jota, kanpora joateko ahalegina egin nuen, bost axola nora, eta Errusiara alde egitea lortu nuen. Hiru urte egin nituen estudiatzen, eta beste bi Eki Europan barrena, norabide jakinik gabeko bidaian. 1995ean itzuli nintzen Palestinara, Bir Zeitera zuzenean, eta 1996ko irailean atxilotu ninduten berriro. Bost hilabete egin nituen espetxean.

»Intifada lehertu zenean, 1987an, 18 urte nituen. Okupazioaren aurkako mugimendua zen, eta oso argi geneukan zer egin behar genuen. Biolentzia asko eragin zuen, ordea: usu zen 20 urteko soldadu bat, arma handia eskuan, 12 urteko haur baten atzetik ikustea. 12-13 urteko haurrentzat bizitzako esperientzia nagusi eta bakarra zen Intifada, bere indarkeria guztiarekin,

eta horrek ondorioak utzi ditu. Jende honek gauero amesgaiztoak ditu, Intifada garaian begi aurrean lagun bat tiroz hil ziotelako, edo kartzelan egon zirelako adin horretan...

»Bagenekien Intifadak ez zuela ezer ekarriko. Harriekin ari ginen, eta aurrean soldadu armatuak genituen: tankeak, helikopteroak... Tiroka ari bazaizkizu, harriak jaurtiz ez duzu ezer lortzen. Baina horretan zabiltzala, zure buruari balioa ematen diozu, merezi duen zerbaitean ari zarela sentitzen duzu. Harriak jaurtiz, asebete egiten zara behintzat. Dena den, aldi berean, ez duzu botererik. Etsigarria ere bada.

»Odol asko isuri zen, eta ez nuke horra itzuli nahi. Inork ez luke pozik hartuko Intifadaren berpiztea. Herriz herri eta errefuxiatuen gunez gune ibiltzen bazara, aulki gurpildunei betirako lotuta ikusiko duzu jende gaztea, ibiltzeko gauza ez dela. Izugarria litzateke horretara itzultzea. Aldi berean, ordea, zerbait egiten ahalegintzen ginelako sentipen on hori ez dugu orain. Baliorik gabe sentitzen dugu geure burua. Begira egoera berriari: oso txarra da, ez da ezer lortu, baina

ezin duzu ezer egin! Asko dago egiteko, baina ez dakigu zer!

»Horrexegatik dute duten sostengua Hamasek eta Jihadek. Palestinarrak noraezean gabiltza aspaldian, eta Hamas eta Jihad ekintza zehatzak egiten ari direnez, okupazioaren aurka gogor ari direnez, jendeak pentsatzen du: «Agian fio gaitezke hauekin». Baina orain aldatzen ari da, jendea ikusten hasi baita honek ere ez duela ezer ekarri. Alegia, norekin fidatu?».

Khaled Bloke Islamikoko Bir Zeiteko burua da, iaz arte Ikasle Kontseiluko lehendakaria, orduan indar nagusia baitziren islamistak Unibertsitatean. Hamas alderdiaren aldekoak biltzen dira Bloke indartsu honetan; bada beste talde islamiko bat, ahulagoa, Jihad Islamikoaren jarraitzaileena.

Bibotea du, beltza ilea bezain. Praka zuriak eta marra hori-beltzeko elastikoa ekarri ditu. 22 urte ditu eta Ingeniaritza ikasten ari da. Intifada piztu zenean 13 urte zituen.

«Aro garrantzitsua izan zen gure borrokan: Israel ere haragizkoa dela ulertzen lagundu zigun; ez direla super-izakiak. Guk euren aurka egin dezakegu borroka eta eurek gure aurka egin dezakete. Guk hil ditzakegu eta beraiek hil gaitzakete. Berdinak gara.

»Sentimenduetan, bizitza pertsonalean, Intifadak eragin handia izan zuen. Intifadako ekintzetan parte hartu nuen, israeldarrek atxilotu egin ninduten duela lau urte, egurtu egin ninduten... Intifada positiboa izan zen bereziki sentimenduetan, sentsazioetan: gauza berriak zenituen egiteko, sentipen desberdinak... Alde txarrean, noski, atxiloketak eta zauriak daude.

»Nahiko nuke Intifada berri bat piztea, bai. Kalean galdetzen baduzu, jendeak Intifada beharresten du, ikusten duelako bake prozesu hau ez dela ona guretzat. Joan den iraileko istiluetan jende guztia aritu zen jo eta su, prozesu honekin gure aldeko ezer ez garela ari lortzen ikusten dugulako guztiok. Oso pozik hartuko nuke Intifadaren berpiztea, baina gauza batzuk berriro gertatzerik ez nuke nahi.

»Txikitatik, 13 urte nituenetik, fededuna naiz. Erlijioan sinesten dut, Jainkoan sinesten dut, Islamen ideiatan sinesten dut, erlijioak gure bizitzan pisu handia duela uste dut... Nire etsaiak ez dira juduak. Juduak eta kristauak lagunak dira, erlijioan sinesten dutelako, gu bezala. Nire etsaia Israel da. Israeldarrak.

»Gorputz arrotza da hemen Israel. Poloniatik, Errusiatik, Estatu Batuetatik... etorri, gure lurrak hartu, eta alde egiteko esaten digute. Nire herria Lod da; orain Israelgo aireportu nagusia, Tel Aviveko Ben Gurion, dago eraikia nire herriko lurretan. Aita Loden jaio zen eta 1948ko gerran, bi urte zituela, Ramallara etorri guraso eta anai-arrebekin, Al Amary errefuxiatu esparrura. Aitonaren etxea errefuxiatu esparruan dago oraindik, ni eta gurasoak hirian bizi garen arren.

»Denbora behar dugu, denbora oso inportantea baita gure gatazkaren konponketan. Izan ere, orain ahulak gara, ez daukagu armarik, bitartekorik, garaipena lortzeko, baina bihar orain baino indartsuagoak izan gaitezke. Eta horretarako borroka egin behar dugu, lanean segi behar dugu gure eskubideen jabe izateko, zuek euskal-

dunok bezala, hegoafrikarrek bezala, beste herri askok bezala. Hegoafrikarrak ahul izan dira baina urte batzuen ondoren indartsuago egin eta euren eskubideen jabe dira».

Parekoak bai, berdinak ez

Lorerik gabeko lorategia du atarian Khaleden sendiaren etxe zuriak. Solairu bakarreko etxea da, Ramallako kale estu honetako guztiak bezala. Jakinminez etorri naiz bisitan, unibertsitatean egindako gonbita aintzat hartuta. Islamista den aldetik emakumearen egoeraz zer pentsatzen duen galde eginda, egokien bere andregaiak azalduko zidala erantzun zidan. Islamista berau ere, banketxe batean dihardu unibertsitatean graduatu berri.

Ama eta andregaia aurkeztu dizkidanean nola agurtu ez dakidala gelditu naiz euren irribarre herabeei begira; bostekoa eman diogu elkarri atzenean, oso ahul, batak bestearen eskuahurretako izerdia sentitzeko doi. Aurpegia baino ez du agerian Narinamek: orkatiletarainoko soineko luzea eta ilea nahiz lepoa erabat estaltzen dizkion buruko zuria daramatza. Amak soineko luzea du, baina zapirik ez buruan.

Khaled etxeko kontuez ari zitzaidan bitartean –gurasoak eta lau anai-arreba bizi dira

etxean, Khaled laster alde egitekoa da, Narinam eta biak ezkontzekoak baitira aurten–, bi basokada laranja-ur ekarri ditu egongelara Narinamek. Bana hartu dugu gizasemeek, eta alboan eseri da bera, batere gabe.

– Unibertsitatean ezagutu genuen elkar –esan dit Khaledek, Narinami begi-zeharrez behatuz.

– Ikasgelan edo Bloke Islamikoan?

– Ikasgelan, ikasgelan...–irria ezpainetan erantzun dit Narinamek, eskuarekin ezetz eginez, Khaledek buruarekin baietz egiten duen bitartean, Narinam ere Blokekoa dela adierazi nahian–. Egia esan, orain bikote askok Unibertsitatean egiten dute topo. Guk ez baitugu, zuek bezala, dantzaleku eta halakorik...

– Baina oraindik bide tradizionala da nagusi –hitza kendu dio Khaledek–: mutilak, edo mutilaren familiak, neska bat aukeratzen du, neskaren gurasoei eskea egiten die, neska-mutilak behin edo bitan elkarrekin egoten dira eta, ondo konpontzen badira, aurrera. Ez da erlijioa kontua, tradizio kontua da.

– Ohiturak aldatzen ari dira, baina pixkanaka. Zenbait familiatan ez lukete onartuko Unibertsitatean adiskidetutako bikotea. Gauzak ezin dira zirt-zart batean aldatu.

– Beste era bateko ohiturak ere ari dira aldatzen, itxura batean. Zenbait musulmanek alkohola edaten dutela ohartu naiz.

– Orain ez gaude estatu islamiko batean eta bakoitzak nahi duena egiten du –dio Khaledek–. Estatu islamiko batean ezingo litzateke edan, musulmana izanez gero. Musulmana zigortu egingo litzateke, baina zuk, kristau zarenez, edan ahal izango zenuke. Beti ere publikoan edaten ez baduzu.

– Zuek ez duzue sekula edan –baieztapena egin dut, ez galdera.

– Ez! –barrez Narinamek.

– Baina argila erre duzue, ezta?

Baietz dio buruarekin Khaledek. Noizbait erre duela aitortu du Narinamek.

– Ondo dago zuek sinesmen batzuk izatea eta sinesmen horien arabera jokatzea. Baina arazoa da estatu islamiko batean zuen pentsae-

ra ez dutenek ere horrela jokatu beharko luketela.

– Estatu islamikoa lortzeko, gehiengoak hala nahi izatea lortu behar dugu. Bestela ez dago egiterik, ez litzateke egin beharko –ukondoak belaunetan eta bi eskuak kokotsean batuta dituela mintzo da Khaled, poliki eta serio–. Gehiengoak estatu islamista nahi badu, ordea, gutxiengoak errespetatu egin behar ditu gehienen ohiturak. Baina, jakina, gutxiengoaren ohiturak ez dira zapalduko. Kristauak euren ohituretan biziko lirateke. Eta Palestina osoan estatu islamista ezarriko bagenu, juduek ez lukete hemendik alde egin beharrik izango. Espainian musulmanak egon zirenean kristauek euren biziza egin ahal izan zuten. Kristauek boterea hartu zutenean, aldiz, musulmanak behartu egin zituzten kristautzera, edo kanporatu. Kristauak alkohola edango balu, ez genuke zigortuko.

Emakumearen egoeraz islamistek zer pentsatzen duten jakin nahi nuela gogorarazi dit Khaledek eta, berak zer esanik ez duela adierazi nahian-edo, edalontzi hutsak jaso eta sukaldera-ko bidean desagertu da.

– Jainkoak parekoak egin gintuen, baina berdinak ez. Osagarriak gara, eta nork bere eginbeharra du –hitzaldi kutsua hartu du Narinamen jardunak–. Bikote batek familia izan eta biek eguna lanean pasatzen badute, umeak bakarrik geratzen dira. Horrek familia puskatu egiten du, eta familia puskatzen baduzu gizartea puskatzen duzu. Emakumeak lan egiten badu, umeak zaindu ahal izateko moduan egin behar du lan. Bere erantzukizuna da umeen zainketa, eta gizonarena da hilero soldata ekartzea, seme-alaben erantzukizunean ere parte hartuz. Heziketarako eta lanerako eskubidea denok dugu, eskubide berdintasuna behar dugu, baina eginbeharrak banatu egin behar dira.

Meloi zatiz betetako platertxoarekin itzuli da Khaled. Zati bana eskaini eta bazterrean eseri da, mingaina hizketan dantzatzeko asmorik gabe antza.

– Ni orain lanean ari naiz banketxe batean eta ezkondutakoan ere lanean segituko dut seguruenik, baina egoeraren baitan izango da hori. Egoera ekonomikoaren baitan eta umeen baitan... Nahiago nuke nire lan bakarra haurren ar-

dura izatea. Nolanahi ere, erantzukizuna biona da.

– Entzun duzu? Umeen zainketa zure ardura izango da! –bota diot Khaledi.

– Bai, lana berak egingo du eta ni etxean geratuko naiz, familia zaintzen! –esan eta algara batean lehertu da Khaled.

Irribarrea erabat desegin gabe ere, seriotasuna berreskuratu du Narinamek:

– Ni arropa hauekin ikusita –soineko eta buruko zuria ukitu ditu eskuekin–, zapaldua nagoela usteko du jendeak. Ez da hala. Uste dut eta sentitzen dut zuzena dela horrela janztea.

– Egunero janzten zara horrela?

– Noren aurrean nagoen. Aita eta anaien aurrean ez, baina gainerako gizonezko guztien aurrean, bai. Kalean, beti.

Narinamek ez ditu jantzi hauek beti eraman. New Yorken jaio zen duela 21 urte, eta han bizi izan 10 bete arte. Gurasoak musulmanak ditu, baina ez islamaren arauak estu-estu jarraitzen dituztenetakoak. Etxean ez ziren buru, lepo, beso eta zangoak oihalpean ezkutatzekoak, ezta sorterrira itzuli zirenean ere. Baina Narinamek,

13 urterekin, bizitzarako argia islamaren legetik hartuko zuela erabaki zuen.

– Babestua sentitzea da janzkera honen zentzua, garbitasuna gordetzea. Gure jokaeran, harremanetan, zuhur jokatu behar dugu, eta emozioei eutsi. Hainbeste bortxaketa-eta gertatzen diren mundu honetan gure bidearekin oztopoak jartzen dizkiogu horri. Gizonen eta emakumeen arteko harreman gehiegizkoa eragoztea egoki da. Harreman gehiegizkoak kaltea ekartzen du. Hondartzetan, adibidez, banatuta egon beharko genuke. Orain ez daude banatuta eta, beraz, ni ez naiz joaten. Igerileku batera joatekotan, itxitakoa behar du. Eta ezkontza tradizionaletan, gizonezkoak eta emakumezkoak bereizita egoten dira ospakizunetan. Horrela, emakumeok lasaiago gaude. Dantza trankil egin dezakegu. Baina gauza bat: arropak ez du adierazten bigarren mailakoak garela. Heziketarako eskubidea dugu. Intifadaren garaian gure gizonezko askok eta askok kartzelara, erbestera, etxetik kanpora, joan behar izan dute. Emakumeok hartu dugu euren lekua, eta heziketa arma bat dela konturatu gara.

Ama sartu da egongelara, *halawa* izeneko gozoak dakartzala. Dastatzeko mesedez, jaki palestinarra dela. Turroi gogorraren tankera du zaporean, baina bigunagoa da.

– Lagun judurik ba al duzue?

– Ezin dut eduki –zalantzarik ez du egin Narinamek–. Barruak ez dit uzten.

– Ez da guztiz horrela. Nik juduak errespetatzen ditut, euren erlijioagatik ezin ditut baztertu. Arazoa da sionismoarekin gure lurra lapurtu dutela, eta ni ezin naiz nire lurraren lapurren lagun izan. Baina arazoa ez da judua izatea.

– Hori da esan behar duguna, hori da politikoki zuzen hitz egitea, baina barruak, bihotzaren sakonenetik, esaten dit nik ezin dudala judu baten lagun izan. Gauza gehiegi gertatu dira barkatzeko, eta inoiz adiskide izateko.

– Noam Chomski judua da eta Israelen aurka dago –Khaledek.

– Kasu berezia da hori –Narinamek segituan ihardetsi–. Palestinarron eskubideen alde hitz egiten duten juduak ere badira Israelen, baina ezin naiz horien lagun izan. Hitz egin dezaket eurekin, modu hotzean galderak egin, erantzunak

eman, elkarrizketa bat izan, baina gehiago ez. Lurra lapurtu digute.

Zerbaitez oroitu denaren keinua egin eta zutitu egin da Khaled, egongelako apaletatik karpeta bat hartzeko.

– Argazki batzuk erakustea nahi?

Ikasleen manifestazio bateko hamaika argazki erakutsi dizkit aurrena.

– Hiru orduz oinez joan ginen Bir Zeitetik Ramallaraino. Joan den iraileko istilu sonatuak Bir Zeiteko ikasleok piztu genituen.

– Hara! Arafat! –megafono batekin hizketan ageri da presidentea– Ez zen ba zuekin manifestazioan joango?

– Bai zera! Beste konturen bat zela eta Ramallara etorria zen Abu Ammar, eta jendetza handi hori manifestazion ikustean, gu baretzera etorri zen.

Beste argazki batean elkarrekin ageri dira Arafat eta Khaled bera, Arafaten eskua Khaleden bizkarrean. Bir Zeit Unibertsitateko Ikasleen Kontseiluko lehendakaria zen orduan Khaled.

– Bistan da laguna duzula –erantzuntzat purrustada jasotzeko esperantzan ziria sakatu diodalakoan.

– Laguna ez da; nire presidentea da –olibondoa baino serioago, Khaled–. Ideietan ez gara ados, baina onartzen dut palestinar herriaren alde asko eman duela. Asko. Errespetu handia diot.

– Bizitzaren azken errebueltan ote dagoen entzun dut.

– Azaleko gaitza du Abu Ammarrek. Hiltzen denean arazo handia izango dugu palestinarrok. Bere neurriko beste liderrik ez dugu.

– Arafat Fatah-ko lider nagusi eta bakarra den bezala, Hamasen baduzue buruzagitza garbirik?

– Denak kartzelan daude –etsipena mintzo da Khaleden ahotik–. Lider intelektuala badugu, Ahmad Jassin, baina estatu islamiko baten buru izateko modukoa ez da.

– Israelek, Arafaten alderdi indartsua ahultzeko helburuz, Hamas lagundu zuela esan ohi da. Egia al da? –ezezko biribila, iraindutakoa, espero dut.

– Fatah-k borroka armatuan sinesten zuen, eta gogor egiten zuen israeldarren aurka. Indartsua zen Fatah, eta arriskutsua israeldarrentzat. Haien lehentasuna, beraz, Fatah neutralizatzea zen. Testuinguru horretan jaio zen Hamas, 80ko hamarkadan. Gezurra da Israelek diruz edo armaz lagundu zuela, baina egia da bestaldera begiratu zuela, pentsatuz palestinarren artean zatiketa eragin eta ez zela mugimendu arriskutsu bilakatuko. Ustea ustel irten zitzaien, baina. Mugimendu indartsua da orain Hamas.

«Ez da heriotza, sakrifizioa baizik»

Mahmud Musleh, nola ez, bizarduna da. Islamista baita. Zilartua du bizarra, buruko ile urriak bezala. Beso laburreko alkandora argia eta praka luzeak jantzita agertu da hitzordura. Hortz hautsiak itsustu egiten dio irribarrea.

Sei urte zituela, 1948an, Haifa jaioterria utzi behar izan zuenetik Zisjordaniako hamasei herritan bizi izan da, Ramallan finkatu zen arte. Ramallako Karitate Zentro Islamikoko zuzendaria da eta Hamas mugimendu islamikoko bozeramailea Ramalla eskualdean. 1990. urtean atxilotu eta bi urte egin zituen espetxean, Hamaseko kide izateagatik. 55 urte ditu.

I.M.U: Oslotik erremediorik gabe pasatu beharra zegoela diote akordioen defendatzaileek.

Mahmud Musleh: Herri palestinarra zapalduta bizi da, zentzu guztietan, eta bake akordioen ondorioa da hau. Israeldar batek palestinar baten lurra hartzen du, etxea kentzen dio, kan-

poratu egiten du erbestera bidaliz, edo hilez... Herri palestinarrak nola onartuko du okupatua, erbesteratua edo hila izatea onesten duen akordioa? Erresistentzia da gure aukera bakarra.

I.M.U: Baina Oslon hitzartutako markoan bizi zarete. Zein da Hamasen gaur egungo estrategia?

M.M: Gaur egun, Palestinako Agintaritzarekin gatazkarik ez edukitzea da Hamasen nahia. Ez dugu herri palestinarrean zatiketarik eragin nahi. Horregatik, Hamas prozesu politikotik kanpo dago. Osloko akordioak hilda jaio ziren eta, beraz, ez dugu interesik ez erantzuteko, ez parte hartzeko. Kontra egiteko beharrik ere ez dago gainera: egoerak berak erakusten du akordioek zer ekarri duten.

I.M.U: Zein da zuen etorkizuneko proiektua?

M.M: Hamasen proiektua gizarte islamikoa da, Palestina lur islamikoa da. Proiektu islamikoak ez du esan nahi musulman ez dena behartu egingo dugunik erlijioz aldatzera, ezta jendea hilko dugunik ere gurutzadetan kristauek egin zuten bezala. Saladinok, gurutzatuen aurka borrokatuz Jerusalem hartu zuenean, ez zuen inor

hil. Hori da Hamasen proiektu islamikoa. Lege islamikoaren arabera, gainera, debekatua dugu inori bizia kentzea, ez bada norbere defentsan. Ezin dugu hil agintea baldin badugu, baina hil dezakegu hiltzailearengandik defenditzeko. Horrela ulertu behar dira Hamasen ekintza militarrak.

I.M.U: Mahane Yehudako atentatuaren erantzuleei buruz nahastea dago oraindik. Hamasen izenean agiria agertu zen baina sinesgarritasunik gabe, nonbait. Ezer argitu al dezakezu?

M.M: Ekintza militarren erantzukizuna adar militarreko [Izz al Din Qassam] arduradunena da. Oraingoz ez dago argi, inork ez baitu erantzukizuna bere gain hartu. Dena den, zalantzarik gabe esan daiteke ekintzaren erruduna zein den: okupazio israeldarra. Palestinan ez dago etxe bakar bat horman martiri baten argazkia ez duenik. Nolatan kezkatzen da jendea israeldarren segurtasun arazoekin? Munduak israeldarren sofrimendua ikusten du: israeldar gaixoa, bonbek hiltzen dute... Baina zer gertatzen da arabiarrarekin, etxetik bidali zuten arabiarrarekin? Maila honetan, Hamasen iritziz, ekintza militar hauek

onargarriak dira, okupazioaren erasoaren aurrean norbere defentsan egindakoak direlako.

I.M.U: Onargarri ez ezik baliagarri ere ba al dira? Ondorio positiborik badute zure iritziz?

M.M: Zentzu handia dute ekintza hauek, pertsona batzuek, martiriak, kausa baten alde beren bizia ematen ari direla erakusten baitiote munduari. Ezin zaie ekintza terrorista esan, norbere defentsakoak baitira, eta gehienetan norbera hil egiten da gainera. Hilketa bat dagoenean hiltzailea ez da hiltzen.

I.M.U: Zerk bultzatzen du, zure ustez, 17-20 urteko mutil bat halako ekintza batean bere burua hiltzeko erabaki gogorra hartzera?

M.M: Ekintza egingo duen gazteak hamazazpi urte izan ditzake, baina sofrimenduzko hamazazpi urte dira, errepresiopean bizitako hamazpi urte... Dakiguna da gazte hauek, sofrimendu horren ondorioz, eta defenditu nahi duten kausa bat dutelako, gertu daudela euren bizia emateko. Ez da heriotza, sakrifizioa baizik.

I.M.U: Atentatuaren ondoren neurri gogorrak hartu zituen Israelgo Gobernuak palestinar guz-

tien aurka, baina bereziki militante islamisten aurka. Ehundaka atxilotu omen dituzte.

M.M: Hamaseko jende asko hartu dute preso, baina ez da salbuespena. Atxilotzeak uneoro gertatzen dira, Hamasen ekintza militarrak izan edo ez izan. Hamaseko kide ezagunak ohituta gaude etxetik kanpora lo egiten, senideengandik urrun. Eta gaua etxean pasatzen dugunean, kaleko arroparekin egiten dugu lo, soldaduak edonoiz etor daitezkeelako.

I.M.U: Zuk ere etxetik kanpo egiten dituzu gauak?

M.M: Bai, nire bila etortzekotan etxera joango baitira. Elkarrizketa egiten ari garen leku honetan pasatu dut bart gaua.

I.M.U: Netanyahu presio gogorra egiten ari zaio Arafati eremu autonomoetan Hamaseko kide guztiak atxilotu ditzan.

M.M: Israeldarrek euren poliziatzat daukate Arafat. Erresistentzia palestinarra kontrolatzeko polizia izan dadin nahi dute. Osloko akordioen funtsaren ispilu da hau. Boterea nork duen eta akordioak norentzat diren baliagarri argi eta garbi erakusten dute Arafati hori eskatuz. Baina

Arafat ez zegoenean ere, orain autonomo diren eremuak Israelgo Gobernuak kontrolatzen zituenean, bazen erresistentzia palestinarra, eta Israelek ezin izan zuen desegin. Gertatzen dena gertatzen dela, garbi dago ezerk ez duela bukaraziko erresistentzia.

I.M.U: Israelek Arafatek polizia lana egin dezan nahi duela diozu. Egiten al du?

M.M: Arafat ez da Israelen polizia. Israelek nahi du izan dadin, Osloko akordioek nahi dute polizia izan dadin, baina ez da. Arafati egiten dioten exigentzietako bat Hamasen azpiegitura desegitea da, erakunde islamikoak desegitea. Herri palestinarrari, komunitate pobreenei, ikasketak ordainduz, jatekoa ordainduz eta abar zerbitzua egiten ari diren erakundeak desegitea esan nahi du horrek. Arafatek Israeli amore emango balio, herri palestinarrari eraso egiten ariko litzateke. Arafaten Gobernua sustengatzen ari diren palestinarrek ez lukete onartuko.

I.M.U: Hiru milatik gora palestinar preso daude, baina gizarte palestinarrean ez da sumatzen presoen aldeko mugimendu indartsurik.

M.M: Okupazioarekin lotura zuzena du presoen auziak. Jendeak badaki, esperientziaren eta historiaren poderioz, presoak kartzelatik ateratzeak ez duela ezertarako balio okupazioak segitzen badu. Gaur kanpora, bihar barrura. Jendea jabetuta dago presoen askatasuna lortzeko eginahalak egitea baliogabea dela, eginahalak arazoaren sustraiaren kontra, okupazioaren aurka, egin behar direla.

Beldur direnak

Kartoizko kippa eman eta buru gainean jartzeko agindu dit sarrerako agureak, baina harresirantz abiatu orduko haize harroak airean eraman du txanotxo biribil kartoizkoa. Lasterka atzetik joan natzaio, lotsatu samar, eta harrapatu ahala bere lekuan paratu dut. Kippa buruan, ibili munduan. Mendebaldeko Harresi gurtuaren aurrean nago, eta buruak estalita behar du. Eskuaz eusten diot kippari, arrotza naizela salatzen duen jarreran. Klip antzeko batekin eusten diote txanoari juduek.

Arratsaldeko zazpiak dira Jerusalemen, Jainkoa hurbilen daukagun hirian, eta eguzkiak kalka egiten du. Juduen bigarren tenplu sakratuaren hormetatik zutik dirauen bakarraren aurrean nago, Deitoreen Harresian. Mendebaldekoa esaten zaio, tenpluaren mendebaldeko hormaren zati bide delako, eta Deitoreena, lehenengo eta bigarren tenpluen suntsiketa deitoratzen dutelako bertan.

Salomon erregearen garaian eraiki zuten juduek lehenengo tenplua Moriah mendian, orain 3.000 urte, baina 400 urtera suntsitu egin zuten. Juduek, Babiloniatik itzulita, berreraiki zuten, baina Tito enperadore erromatarrak erre eta eraitsi zuen Kristo jaio eta hil zen mende berean, 70. urtean. Mendebaldeko Harresiaren izaera sakratuaren berri aspaldikoena, hain zuzen ere, Euskal Herriko judu ezagunenarena da: XII. mendean Tuterako Benjaminek idatzitako bidaia-liburuan irakur daiteke harresiaren berri.

Jesukristo gurutzean, Tito enperadorea tenplua birrintzen, Mahoma zerura abiatzen, soldadu gurutzatuak su eta herio sartzen, Saladino giristinoak azpiratzen, Moshe Dayan hiria judaismoarentzat eskuratzen... Juduen mesiasaren etorrera ez beste guztia ikusi dute, zeruaren ate den Jerusalem honetatik, hesi honetako harritzarrok bi mila urte honetan.

Munduaren erdian egon dira. Munduaren erdian nago.

– Psst!

Harresi aurre honetan gehiengo diren haredietako batek deitu dit, bere atzetik joateko es-

katuz atzamarrarekin. Beroki, praka eta kapela beltzak, betaurrekoak eta patilla luzeak ditu haredi guztiek bezala; bizarra osatzera ere heltzen ez diren aurpegiko ileengatik izan ez balitz ez nukeen esango oso gaztea denik. Zail da jantzi horien atzean gaztetxo bat sumatzea.

Harresiari begira jarrita ezkerrean daukagun horman zabaltzen den arkupetik sartuta areto itxi batera eraman nau haredi gazteak, hitzerdirik egin gabe bidean. Haredi gehiago dago barruan, harri zaharrezko hormez inguratutako gelan. Bisitari batzuk ere bai. Burdin sarez estalitako zulo bati erreparatu diogunean egin dizkit lehenengo hitzak gidari zomorroak.

– Sinagoga honek bi mila urte baino gehiago ditu.

Hegohaizea baino zaharragoak diruditen liburuz betetako apalategi bati so jarri nau gero.

– Tora honek bostehun urte baino gehiago ditu.

Esaldi bakarreko azalpenak eman dizkit, Mendebaldeko Harresiaren segida izan daitekeen hormari begira ipini nauen arte.

– Zure izena? –xuxurlatu dit.

– Imanol.

– Zure emaztearen eta seme-alaben izenak?

– Ez nago ezkonduta.

Bekokia horma ukitzen ipini du, otoitz egin eta nik ere burua harriaren kontra jartzeko eskatu dit:

– Onena desio dizut zuri, Emanuel, zure emazteari eta zure seme-alabei. Emaidazu dirua gure yeshivarako.

Nire eta ez ditudan emazte eta seme-alaben aldeko erreguen eta diru eskaeraren artean ez du pausarik egin. Katean etorri da dena. Tonto aurpegiarekin geratu edo gaizto plantak egin, ez dut beste aukerarik. Bost xekeleko txanpona eman diot, 250 pezeta inguru.

– Ez! Papera! Papera! –sisibasaka hitz egiteari utzi dio haredi lotsagabeak; txanpona ondo jaso dit, hala ere–. Eman hogei xekel!

«Adio» lehor batekin agurtu dut, eta «eskerrik asko» ironikoa jaso ordainean.

Egun arrunt batean baino askoz jende gehiago dago gaur Mendebaldeko Harresiaren plazan, Tisha B’av egunaren bezpera baita, juduek Tenpluaren suntsiketa oroitzen duten iluntzea.

Altueran 20 bat metro eta luzeran 80 inguru ditu harresi erraldoiak. Zatituta dago otoitz gunea, ez erdibituta horregatik, gizonezkoentzako zatia askoz handiagoa baita: harresiaren bi heren hartzen ditu gizonen eremuak, eskuineko herena emakumeenak.

Labezomorroak eguzkitan, horixe begitandu zait gizonezkoen eremuari egin diodan aurreneko behakoan. Soldadu gutxi batzuen uniformeek zipriztin berdeak tindatzen dituzte, hala ere, txaketoi eta kapela beltzen itsasoan.

Berrehun bat lagun ari dira otoitzean, Tora bana eskuan, harresiari begira. Buruarekin harria ukitzen dute zenbaitek, esku zabalduekin harresiari bultza bezala egiten diote beste batzuek. Papertxo kiribildu bat harritzarren arteko hutsune batean sartu du haredi batek: Jainkoarentzat mezua. Harriarteak betetzen direnean paperak jaso eta lur sakratuan ehorzten dituzte. Harresitik urrunduxeago daudenek, burua makurtuz eta gerria tolestuz egiten dute otoitz, etengabe baietz esanez bezala. Kantuan edo Torako testuak irakurriz, ozen mintzo dira Goi-goikoarekin gizonezkoak.

Ez kantu ez errezu ez dute entzuten, haatik, eskuinaldeko harritzarrek. Mutu egin behar dute otoitz andreek, hitzerdirik egin gabe, emakume ahotsaren sentsualitatea oztopo baita otoitzerako, eta debekatua dago. Kolore beltza tantaka baino ez da ageri, uniformerik ez baita emakume haredientzat. Gona daramate guztiek eta ilea, daukatenek, zapi batez estalita dute. Emazte haredi askok, izan ere, ilea larru-arras mozten dute ezkonduz gero, eta buru soila ileorde batez ezkutatu. Emakume ezkonduak ez baitu eder agertzerik senarra ez den beste inoren aurrean. Zenbat eta peluka itsusiago, hobe, beraz. Eta zinez peluka itsusiak ikusteko aukera ematen du plazak.

Harresiaren pare-parean, plazaren bestaldean, polizi-etxea dago. Horma gurtuari bizkarra emanda, bost bandera israeldar begiztatzen ditut etxe gainetan, Hiri Zaharreko auzo juduari begira nagoen seinale. Auzo judutik nahiz merkatu arabiarretik barrena etorri, soldaduen kontrol puntuak gainditu behar dira plazara sartzeko, eta metal detektoretik pasatu poltsak eta motxilak.

Ondo handia da plaza –100.000 lagun sartzen omen dira–, baina ez da beti horrenbestekoa izan. Hemeretzi urtez –1948ko gerratik, Hiri Zaharra jordaniarren esku geratu zenetik– Harresian errezatu ezinik egon ondoren, 1967ko ekainaren 7an, Sei Eguneko gerraren hirugarren egunean, Hiri Zaharra menderatzearekin batera Mendebaldeko Harresia berreskuratu zuten juduek. Moshe Dayan begibakarra eta Yitzak Rabin militarburuak hona sartu zireneko argazkia poster gisa saltzen da oraindik.

Orain Harresiaren plaza dena, eta baita auzo judua ere, arabiarren etxez josia zegoen orduan. Magrebiarren auzoa zen, Ipar Afrikako etorkinen auzunea. Sei Eguneko gerraren seigarren egunean, alde egiteko hiru orduko epea eman zieten eta, biharamunerako, bulldozerrek 80 etxe goitik behera bota zituzten, horma bakarra zutik utzi gabe, akre bateko plaza egiteko Deitoreen Harresiaren aurrean.

Eguzkia ezkutatzen hasi baino lehen ere, ilunabarreko zortzi eta erdiak, milaka batzuk lagun inguratu dira plazara, otoitz egitera asko, turista gisa bisitan mordoska.

Berrehun bat lagun aparte bildu dira, Zaborren Atean –Hiri Zaharrera sartzeko ateetako bat, Mendebaldeko Harresitik gertuen dagoena–, eta Harresiaren Plazara sartu dira, itzala baino isilago. Plazaren ertz batean eseri dira, lurrean, otoitz gunera hurbildu gabe. Hogeita hamar bat poliziako lerroak inguratuta, errezatzen hasi dira, emakume eta gizon, denak nahasian. Hogei bat argazkilariren etengabeko flashek gogorarazten digute Israelen debekatuta dagoela gizonezkoek eta emakumezkoek sinagogetan eta bestelako gune sakratuetan elkarrekin errezatzea.

Bost minutu ez dira pasatu bazter batean bi pertsona, kazetariz inguratuta eta polizia ofiziale baten ikuskaritzaz, eztabaidan hasi direnerako. Orrorik egin gabe eta elkarri entzunez ari dira, argudioari argudio. Otoitzean ari den taldea legea hausten ari dela arrazoitzen du kippa belzdunak, Erlijio Arazoetarako Ministerioko ordezkariak. Poliziak leku mugatu horretan otoitz egiteko baimena eman diela arrapostu egin dio kippa berdedunak, taldearen ordezkariak. Poliziburua sartu da solasaldian, Harresiaren Plazan sartze-

ko baimena eman diela aitortuz, baina errezatzen hasi diren unetik Erlijio Arazoen Ministerioaren agindupean daudela zehaztuz.

Sesioa bukatu gabe artean, sei-zortzi haredi suhar polizi lerroa hausten ahalegindu dira denak batera bultza eginez, oihuka eta irainka. Gainera joan zaizkien telebista eta argazki kameren aurka jo dute hurrena, objetiboak estaliz eta kamera batzuk lurrera botatzen ere ahaleginduz. Iskanbilak haredi gehiago erakarri ditu eta, ostikoa hemen bizkarrekoa han, orroa hemen negarra han, oilar amorratuen arteko borrokan baino zalaparta handiagoko kalapita piztu dute plaza ertz honetan.

Poliziak, Erlijio Arazoetarako Ministerioari arrazoi emanez itxuraz, otoitzean ari zirenak plazatik ateratzea erabaki du: bultzaka, arrastaka eta kolpeka kanporatu dituzte, bere onetik aterata, Poliziarengandik eta harediengandik jasotzen ari diren tratua jasan ezinda. Zaborren Atera bidali dituzte atzera, andre eta gizon elkarrekin errezatzen ausartu direlako. Eltzeak irakiten segitu du, hala ere. Zaborren Atearen ingu-

ruetan ere badabil haredi jendea eta, su bat itzali orduko, bestea pizten da.

Ezker-eskuin dituen alabei sorbaldetatik heltzen dien bitartean *Newsweek*-eko korrespontsalari hizketan ari zaio, asaldatu samar, berrogeita hamar urte inguruko gizonezkoa.

– Judaismoa euren modura ulertzen ez dugulako juduak ez garela diote, eta txarrena da nagusitzen ari direla Israelen...

Alabaren kurrixkak eten egin du aitaren jarduna. Txilioka hurreratu zaien haredi aguretu bati erantzuna izan da garrasia. Mingaina labana bezala dantzatuz eztabaidatu dute aitak eta harediak, honek nazkatuta-edo hanka egin duen arte.

– Esan dit musulmanak eta kristauak baino okerragoak garela, judaismoa suntsitzen ari garela. Erantzun diot ez dudala ezer musulmanen eta kristauen aurka...

Telebista-kamera baten aurrean azalpenak ematen ari da haredi gazte bat, baina rabino gizen bat inguratu dela ohartu denean isildu egin da. Bere burua aurkeztu du Menahem rabinoak. Sost piztu diote fokoa.

– Kontua erraza da. Badira milaka urte Torak arautzen duela gure bizitza, Torak esaten duela gizonek eta emakumeek ez dutela elkarrekin otoitz egiterik. Arau hori haustea, beraz, Toraren aurka joatea da. Horra haserrearen arrazoia.

Ekitaldi erlijioso mistoan parte hartu dutenetako baten bila abiatu naiz. Kippa koloreduna –ez beltza– da seinalea: erlijiosoa baina ez ultraortodoxoa. Iskanbilatik aparte samar dagoen bati zuzendu natzaio.

– Protestaldian izan zara?

– Ez da protestaldirik izan.

– Agerraldian izan zara?

– Ez zen agerraldia.

Zorrotza aukeratu dut lekukoa, alajaina.

– Zer zen ba?

– Otoitz zerbitzua: errezatu egin dugu.

– Ondo da, barkatu. Zer iritzi duzu zerbitzuaren ondoren gertatutakoaz?

– Ez da gertatu zerbitzuaren ondoren, bitartean baizik.

– Barkatu berriro –galderak findu beharra daukat, inondik ere–. Zer irizten diozu zerbitzua egiten ari zineten bitartean gertatu denari?

– Polizia gu babestera etorri da hona, eta azkenean, babestu beharrean, bultzaka eta kolpeka kanporatu gaituzte.

– Benetako juduak ez zaretela entzun dut harediren baten ahotik.

– Horrek ez nau kezkatzen, garrantzitsua argazki osoa da. Eta gaur egungo argazkian zera agertzen da, harediak leku santu honen jabe egin direla, eta Israelen jabe egiten ari direla. Jaun eta jabe.

Bart Mendebaldeko Harresiko istiluetan begietatik sua zeriela ibilitako haredietako batzuk Betar asentamenduan biziko dira akaso. Lehendik egina nuen hitzordua Betarko alkatearekin baina, atzo ikusitakoak ikusita, oparia irekitzear dagoen haurra baino jakinmin handiagoaz abiatu gara Zara bizikidea eta biok haredien kokagunerantz.

– Bestea gizonezkoa edo emakumezkoa da? –galde egin zidan telefonoz alkatearen idazkariak, bi lagun gentozela esan nionean.

– Emakumezkoa.

– Esaiozu egoki jantzita etortzeko, mesedez, komunitate hau oso erlijiosoa da.

Israelgo auzo haredi ezagunenera sartu denak, Jerusalemgo Mea Shearim («Ehun ate», hebreeraz), badaki zer den «egoki jantzita» ibiltzea. Hara zer irakur daitekeen auzunearen sarrerako oharrean:

«Bisitari estimatua, ongi etorria zara Mea Shearimera, baina ez zaitez bertako biztanleen aurka joan apaltasunik gabeko arropekin paseatuz gure kaleetan. Emakume juduak jantzi apalekin joan daitezela eskatzen du gure Torak. Jantzi apalak: ukondoa baino beherago heltzen diren besodun soinekoak (prakak debekatuta), galtzerdiak, emakume ezkonduen ile estalia eta abar, emakume juduen bertuteak izan dira antzinatik. Mesedez ez mindu hemengo biztanleak eta ez eragin zeure buruari beharrezkoa ez den eragozpenik. (...) Burua estalita eramateko eskatzen diegu gizonezkoei».

Zara ez dut gaur arte soinekoarekin ikusi; ederra dago orkatilak doi-doi agerian uzten dizkion soineko luze eta estuarekin. Burua ileak es-

taltzen dit niri. Emakumeen arropari buruz baino ez zidaten gaztigatu.

Jerusalemdik hegoaldera dago Betar, hiri santutik ordu erdi eskasera autoz, baina Israelgo Estatuaren muga egiten duen marra berdetik kanpo. Lurralde Okupatuen barneko kolonoen asentamendua da.

Inguruan begiratua emanda nabarmena da komunitate berri-berria dela –duela zazpi urte sortu zen–, baina Udaletxera sartu garenean ohartu gara bukatu gabeko herrian gaudela: etxe aurrefabrikatuetan dituzte bulegoak. Sinagoga batzuek ere behin-behineko eraikinetan dituzte.

Zutik jarrita bostekoa eman dit Yehuda Gerlitz alkateak gure aurkezpena egin diodanean, baina Zara aipatu ez banu bezala jokatu du. Begiratu ere ez.

Beltzarana da oso Gerlitz jauna, azalez eta ilez, eta bizar trinkoa du. Arabiarren antz handiagoa du europar musu zurbilona baino: judu sefardia da eta ez, Megido kibbutzean eta Maaleh Adumim kokagunean ezagutu nituenak bezala, askenazia. XV. mendean Espainiatik ihesi Ipar

Afrikan eta Asian hedatu ziren juduen ondorengoak dira sefardiak; eta jatorria Erdi Europan izanik Europa osoan eta Ameriketan sakabanatutako judu mendebaldarrak askenaziak. Bostetik lau askenaziak ziren Israel sortu zenean, baina gaur egun erdia eta erdia dira, botere politiko eta ekonomikoak askenazien eskuetan segitzen duen arren. Kulturaren alor guztietan ere eredu «europarra» gailendu da, gastronomian salbu, errezeta arabiarrak nagusitu baitira juduen sukaldeetan. Bazterketari aurre egiteko sortu zuten sefardiek, hain zuzen ere, Shas alderdi erlijiosoa. Hamar parlamentari dituzte egun Knessetean, eta ministro bat Netanyahuren koalizio gobernuan.

Shas alderdiko kide da Gerlitz. Kippa beltzak estaltzen dio burua, praka beltzak ditu eta alkandora hutsik dago; alkandora zuria. Betaurrekoak ditu, betazalak kiskali arteraino testu sakratuak irakurtzearen poderioz seguruenik, ia haredi guztiek bezala. Gaztea da alkatea izateko; 40 urte eskas.

Itzultzailea eseri zaigu aurrez aurre, alkateak ez baitu ingelesez egiten.

– Alkandora hutsik zaudete, eta kapelik gabe. Harediak beroki beltz handiarekin ikusi ditut orain arte...

– Esekitokian zintzilik daukat, ikusten duzu, berokia. Ohiturazko arropak dira, Eki Europako ghettoetan erabiltzen ziren, baina haredi izateko ez da beharrezkoa arropa hauek jaztea. Badira kippa besterik jantzi gabe haredi bizimodu zorrotza egiten dutenak, eta baita haredi jantzian ibiliz bizimodua bestelakoa egiten dutenak ere. Arropak badu beste zentzu bat: zuk haredi jantzia baduzu, zure buruari muga jartzen diozu tentazioan ez erortzeko. Zinema batera sartzen bazara haredi jantziekin, zeure burua nabarmendu egiten duzu.

Haredi guztiak, ahal izanez gero, komunitate haredian bizi dira, beste jende taldeekin nahastu gabe. Eta, beraz, haredia ez den inor ez dute nahi euren artean. Hamabost mila biztanle dira Betarren, hamabost mila haredi.

– Egia da, ghettoan bizi gara. Harediok gure bizimodu estiloa egin nahi dugu, besteen eraginik gabe. Komunitate sekularrekin harremanean biziz gero, bereziki umeentzat, tentazioak, lilu-

rak sor daitezke. Horretara zabalik egon beharrean, hobe da komunitate mugatuan bizitzea, horrelako tentaziorik ez dagoen komunitatean. Horretarako sortu dugu barne gatazkarik ez duen erkidegoa.

– Nolako heziketa dute haurrek? –estreinako galdera egin du Zarak, aintzat hartua ez izanaren laidoa albo batera utzirik.

– Sistema berezia dugu, ez gaude hezkuntza orokorraren barruan. Mutilek liburu sakratuen ikasketa egiten dute batez ere. Matematika eta bestelako gai sekularrak ere ikasten dituzte eskolan, Tora irakurtzeko eta ulertzeko beharrezkoak diren neurrian. Neskek gai sekularrak gehiago ikasten dituzte.

Sonia eta bere lagunekin Megido kibbutzean izandako solasaldia etorri zait gogora. Gizon harediak, testu erlijiosoak ikasteko izan ezik, ezertarako gauza ez omen dira. «Irakurtzeko eta batuketak egiteko gai, eta juxtu-juxtu!». Orduan jakin nuen, ez nuen sinetsi baina, haredien familiatan emakumeak zer ardura zituen. Kontua da –kibbutzean isekaz azaldu zidaten– gizonek Tora ikasi besterik egiten ez duten bitartean, emaku-

mearen esku dagoela seme-alabak haztea, etxearen jira osoa eta etxetik kanpo lan eginez soldata ekartzea! Oso goiz ezkontzen dira (18-20 urte dituztenean) eta, ezkonduz gero, ahalik eta seme-alaba gehien ekartzea dute arautzat, gainera.

Kontatu zidatena egia osoa ez zela sinetsita egin diot galdera.

– Ahalik eta denbora luzeenean gizona beren beregi Tora ikastera dedikatzea da ideala. Eta emaztearen lana, batetik, haurrak haztea da, eta bestetik, kanpoan lan egitea. Baina gerta daiteke emaztearentzat ezinezko izatea kanpoan lan egitea, adibidez, sei seme-alaba izanik zazpigarrena bidean badator –alkateari barre txikia atera zaio, Zara eta biok sinetsi ezin duenaren errezeloz begiratzen diogula jabeturik–. Gizonak, orduan, yeshiva utzi eta lanean hasi behar du.

Mendebaldeko Harresian begitandu nituen labezomorroak zorriak zirela pasatu zait burutik. Izerdia beroarekin bakarrik egiten dutela, alegia.

Umeek eta gazte ezkongabeek ez dute izaten harremanik, familiatik kanpo, beste sexuko adinkideekin. Behin 18 urtera helduz gero, ala-

baina, gutxi irauten dute ezkongai. Salbuespenak salbuespen, 20 urtetik aurrera denak daude ezkonduta. Zarak egin die denoi bururatzen zaigun galdera.

– Ezkongabeek elkarren artean harremanik ez badute, nola ezagutzen dute elkar, ezkontzea erabakitzeko?

– Gizarte sekularrean, Europan edo Amerikatan, ezkondu aurretik gehiago ezagutzen dute elkar, baina gero banaketa asko izaten da. Alegia, aurretik asko ezagutzeak ez du esan nahi ezkontzak arrakasta izango duenik. Gaztea 18-20 urtera heltzen denean familiak aukeratzen du, komunitate barruan, semeari edo alabari egoki uztartzen zaion kidea.

– Ezkondu aurretik zenbatetan egoten dira elkarrekin?

– Gutxitan. Egoki uztartzen direla ziurtatzeko beste.

Behin edo bitan ikusten dutela elkar esan ziguten kibbutzean.

– Nork erabakitzen du egoki uztartzen direla? Gazteek edo gurasoek?

– Erabaki? Gazteek esan dezakete ezetz, baina nekez esaten dute. Oso gutxitan botatzen da atzera gurasoen erabakia.

Telebista antenarik ez dago Betarko etxeetan. 15.000 biztanleko beste herririk ez da izango mundu osoan, telebista aparailurik gabe.

– Ez dago alerik. Inork mahai azpian ez badu behintzat! Telebista, zinema, bideoa... horiek denak debekatuta dauzkagu. Ez da teknologia kontua, eduki kontua baizik. Bulego honetan ordenadorea badudala ikusten duzu, baina telebistak igortzen dituen edukiak kaltegarriak dira. Egunkariak ere gure komunitateak argitaratutakoak bakarrik irakur ditzakegu.

– Eta literatura?

– Zerrenda bat daukagu, zein liburu irakur ditzakegun zehazten duena.

Sexu harremanei buruzko galdera dabilkit buruan, baina erabakia daukat horretan ez sartzea. Ugalketa da, noski, sexu harremanen helburu bakarra. Ez omen dira erabat biluzten: senarraren eta emaztearen artean izara ipintzen dute, sexu organuen parean zuloa duen izara.

Hori bai, sabbath egunean obligaziozkoa dute sexu harremana.

– Mundua aurrera doa eta zuek geldirik zaudetela ematen du.

– Milaka urtetan ez da aldatu gure bizimodua eta orain ez da aldatuko. Herri judua beti izan da haredi, azken urteoetan salbu, gauzak nolabait aldatu egin baitira. Urteak joan mendeak etorri, juduok garen bezala iraun dugu beti, eta horretan gaude orain ere. Ez dugu beldurrik: beti izan gara eta beti izango gara.

Haredi hitzak, hebreeraz, «(Jainkoaren) beldur direnak» esan nahi du.

Kartzela handi bat

Israelgo Estatua eta Gaza autonomoa bereizten dituen Erez mugako pasagune luze eta zabalean zoazela –500 metro luze, 30 metro zabal–, presoen truke baten parte sentitzen duzu zure burua: soldadu eta bandera israeldarrak atzean utzi dituzularik, kilometro erdi oinez egin behar duzu, urrutira ageri diren polizia eta bandera palestinarren lerrora heltzeko. Pasagunea hesituta dago ezker-eskuin: israeldarren kontrolpeko eremu militarra eskuinean, palestinarren eremu autonomoaren hasiera ezkerrean. Jende armatua baino ez dago gerran dauden bi estaturen arteko muga dirudien eremu militar honetan.

Oinez pasatu ditut israeldarren bi kontrol zorrotz, Erezeraino ekarri nauen matrikula horidun taxiak mugaren alde israeldarrean gelditu behar izan baitu; matrikula zuria behar da Gazan sartzeko. Pasaportea eskatu, ordenadorean begiratu eta sorbaldan zintzilik dakardan poltsa miatu didate, bi bider. Garabi batek jasoa du automobil

bat, mugazain batek azpiak ikuskatzen dizkion bitartean.

Aurrerago palestinarren hiru kontrol laxoago zeharkatu ditudanean, Gazan nago. Taxi bakarra dago, Gaza hirira joan nahi duten ni bezalako oinezkoari zerbitzua eskaintzeko gertu. Israelek mugak itxita ez dituen garaietan, ehundaka taxi kolektibo izaten dira zain arratsaldez, Israelen lan egin ondoren etxera datozen 40.000 gazatarrak garraiatzeko. Baina Gaza setiatua dago Mahane Yehudako atentatuaz geroztik, eta gazatar horiek lanera joan ezinik dira azken hiru asteotan.

Hirirako bidean berehala sentitzen duzu Gaza ez dela Zisjordania. Konturatu orduko errefuxiatu esparru bat zeharkatzen ari zara, Jabalia –Gazako errefuxiatugune handiena (89.000 lagun), 1987ko abenduan Intifada piztu zen gunea–, eta umeak oinetakorik gabe ikusten dituzu asfaltatu gabeko kaleetan. Gaza hiriaren sarreran, bukatu gabeak diruditen etxe grisak, eta hautsa trinko airean.

Baina hirigunera eta hondartza aldera hurbildu ahala hiri berriago bat sumatzen hasten zara.

Hormirudi erraldoi batetik agur egiten dizu Arafat irribarretsuak, Omar al Mukhtar errepide nagusiko parketik. Eraikin berri eta handiek egiten dizuten itzala eskertzen duzu: Palestinako Agintaritzaren ministerioak, UNRWAren (errefuxiatu palestinarren ardura duen Nazio Batuetako erakundea) egoitza nagusia, 10-12 solairutako etxebizitza-dorre batzuk, «Palestinian Airlines» konpainiaren egoitza zabaldu berria... Hegazkinek euren lurraldean lur hartu ezin duten kasu bakarra da munduan hegazkin konpainia honena: Egiptotik Jordaniarako (eta alderantziz) hegaldiak baino ez dituzte egiten Palestinako Hegazkin Konpainiako bi hegazkinek, israeldarrek Gazako aireportua zabaltzeko baimena noiz emango zain.

Mediterraneo itsasoaren olatuek musukatzen duten hondartzaren lehen lerroan, arrain txikitan ari bide diren txalupatxoei begiratzen diete luxuzko hotel eta jatetxeek: Palestine Hotel, Beach Hotel, Al Andalus Restaurant... Baina ez duzu turista girorik usaintzen. Hotelak hutsik daudela imajinatzen duzu, eta hondartzak zikin daudela badakizu.

Hondartzako lehen lerroan dago, hoteletatik ekialdera, Arafaten erresidentzia hesitua ere. Bunkerra. Gotorlekuaren sarrerara heldu baino berrehun metro lehenago, atzean hiru metrailadore dituen jeep-ean talaian dituzu zaindariak.

Eta hondartzako lehen lerroan dago, hoteletatik mendebaldera, Al Shati errefuxiatu esparrua ere; Beach Camp, Hondartza esparrua. Hondartzako luxuzko hoteltzarren alde-alde bizi dira errefuxiatuok, hiriaren hondakinak bailiran, zortzi-hamabi laguneko familiak bi logelatako etxoletan. Gazan errefuxiatuak gehiago dira jatorrizko gazatarrak baino: 700.000 errefuxiatu, eta 250.000 jatorrizko.

Itsasoak opari dakarren haize gazia atzean utzi eta Omar al Mukhtar errepide zabal sargoritsuan gora Gaza zaharrerantz joz gero, astoek tiratako gurdien joan-etorri nahasiak erdian harrapatuko zaitu, automobilak ere astoen abiadan higitzera behartuta dauden kaleetan. Agerian begiak baino ez dituzten emakumeak gurutzatzen hasiko zara, gehienek burua estaltzen dien zapiaren azpian aurpegi osoa erakusten badute ere, eta nekez egokituko zaizu prakadun emaku-

merik Gazan. Etxeek ez dizute jada gerizpe handirik eskainiko.

Barazki eta fruta saltoki bihurtutako gurdiez beteta dago azoka, hiri zaharraren bihotzean. Geldirik daude asto eta gurdi gehienak, saltzeko gaiak erakusten. Asto ataskoa zer den ikasi dut: datilek eta mangoek azokagunean sartu nahi dute, eta meloiek irten egin nahi. Kosta zaie gero, korapiloa askatzen. Patatak, arbiak, lekak, tomateak, adreiluak, mahatsa, kutxa zaharrak, umeak... zer ez dute garraiatzen astoek.

Kale merkatu erraldoiaren traza hartu diot alde zahar osoari. Singer makinekin oinetakoak konpontzen ari dira zortzi zapatari meskita ondoko kalean, elkarren segidan denak. Eliza erromanikoa izana da Omar meskita. Tenpluaren hormetako baten kontra urrezko bitxien denda besterik ez. Norentzat hainbeste urre, turista bakar bat ere topatu ez dudan hiri txiro honetan? Ez daukat nori galdetu.

Mangoa bide da Gazako fruta nazionala. Fresko zerbitzatuko dizute zukua, kale estuotako zuku saltoki anitzetako edozeinetan. Ito arte edango nuke: bero heze honek izerdi patsetan

nauka heldu naizenetik, praka bakeroak izterretara itsatsirik. Egarria asetzea, albiste. Argilakearen, espezieen, barazki freskoen eta fruta-zukuen usaina, usain arabiar maitagarria, bero saparekin eta hauts harrotu gogaikarriarekin nahasten dira Gaza zaharrean.

Plaza berria, Palestina Enparantza, eraikitzen ari dira azoka ondoan, Udaletxearen aldamenean. Edo ari ziren, aspaldian geldirik baitaude obrak: Israelek ezarritako blokeoa dela-eta Egiptotik jaso beharreko lehengaiak ekarri ezinik daude. Gaza autonomoa da, baina ez inork ez ezerk ezin du ez sartu ez irten israeldarren bedeinkaziorik gabe.

Gaza hirian daude Palestinako Agintaritzaren erakundeetako egoitza nagusiak. Kostaldean da Lehendakaritzaren egoitza eta bere inguruan dira segurtasun indar batzuen guneak ere, Arafaten itzala den eliteko 17 Indarrarena kasu. Agintaritzako Ministerioak hiriaren alde berrian daude, etxe berritan gehienak, 1994an Palesti-

nako Agintaritza Gazan sartu zenean inauguratuak.

Garaiz heldu naiz hitzordura, baina ordubete berandu etorri da Intizar Wazir, atzean hiru bizkarzain armatu dituela. Badu aitzakia:

– Barkatu, baina presidenteak deitu eta presaka joan behar izan dut bere egoitzara. Ezin izan dut orain arte etorri –desenkusatu egin zait Arazo Sozialetarako ministroa apaltasun harrigarriz.

50 bat urteko emakume sendoa da Intizar Wazir. Ilea labur moztua du, izurtua, eta begiak nahiz ezpainak makillatuta ditu. Kolorezko koadrotako gona darama, eta jakaren azpian ageri zaion elastikoaren gainetik lepokoa nabarmentzen zaio. Mendebaldeko erara jantzi, orraztu eta apaintzen dela esango nuke.

Intizar Wazirrek sona handia du palestinarren artean. Fatah alderdiko lehen emakume militantea izan zen, Palestinako Askapenerako Erakundeko (PAE) kide izan da sorreratik eta munta handiko ardurak izan ditu erbesteko erresistentzian. Ez da «barrukoa», «itzulitakoa» baizik: Autonomiarekin Tunisiatik itzuli direnetakoa alegia,

Arafaten konfiantzako taldekoa. Kuwaiten, Libanon, Sirian, Tunisian eta beste hainbat herri arabiarretan PAErentzat lanean ibili ondoren, 1994tik ministro da Intizar Wazir. Umm Jihad ere esaten diote, Borrokaren Ama.

Borrokaren Aita (Abu Jihad), bere senar Khalil –Arafaten laguntzaile hurbilekoena, PAEren adar militarraren arduradun nagusia–, begien aurrean hil zioten Intizarri, 1988ko udaberrian.

Israeldarrek Abu Jihad zuten, PAEren arduradun militarra zenez, egunetik egunera indartzen ari zen Intifadaren erantzule nagusitzat. Martxoaren 7an palestinarrek Israelgo arma nuklearren planta bati eraso zioten. Gerrillari palestinar guztiak hil ziren atentatu saioan, baina ekintzak oihartzun handia izan zuen nazioartean, Israel ipurdia airean utzi baitzuen, arma nuklearrekin ari zela nabarmenduz. Israelgo Gobernuaren kabinete txikiak, Yitzhak Rabin Defentsa ministro zela, Khalil Wazir hiltzea erabaki zuen.

Apirilaren 12an, sakelan pasaporte libanoarra zuten Mossadeko hiru agente Tunisiara heldu ziren. Alokaturiko bi minibus eta kamioneta bat hartuta itsasertzera joan ziren hilaren 15-16 ar-

teko gauean, Israelgo Itsas Armadaren ontzi batetik zodiacetan lehorreratutako eliteko 30 agente jasotzera. Goizaldeko ordu batean Tunisiako Sidi Bou Said auzunean sartu ziren, Wazir senaremazteak bi urteko semearekin bizi ziren auzunera. 22 israeldar kamionetaren eta furgonetaren barruan geratu ziren, ezer oker joanez gero PAEko gizonei edo zaindari tunisiarrei aurre egiteko gertu. Beste zortziak, buruak estalita, Wazirtarren etxera sartu ziren ordu bata eta erdian, subfusilak eta pistolak ondo koipeztatuta inondik ere. Hiru gizon gorpu utzi zituzten atarian: zaindari palestinarra, zaindari tunisiarra eta Khalil Wazirren txoferra.

Jaikita zeuden artean Khalil eta Intizar. Intifadako Lidergo Nazional Batuarentzako mezua idazten ari zen Khalil, etxepeko zalapartak eta tiro hotsek tentuan jarri zuten arte. Pistola hartu eta logelaren atera inguratu zen, emaztea bizkarrean. Atea ireki eta eskaileratan gora kaputxadun armatuak zetozela ikusirik, tiro bat egin zuen. Bere azken ekintza. 67 bala sartu zizkioten gorputzean. Intizar zain geratu zen, bera noiz hilko.

Intifadaren sinbolo bilakatu zen Abu Jihad eta, israeldarren helburuaren kontra, indarra eta batasuna eman zion altxamendu palestinarrari hilketak. Arafaten ondoren, posterretatik irribarre sarrien egiten diguna Abu Jihaden bibote handia da.

– Nahiago dut horretaz ez mintzatu.

Odolaren kolorea hartu dute Intizarren begiek, senarraren hilketaz hitz egin nahiko lukeen galdetu diodanean. Gaiaz beste egin dugu.

– Hiru urte badira Autonomia ezarri zenetik, eta egoera ez dela hobetu diote palestinar askok. Zalditik astora egin duzuela dioenik ere bada.

– Egoera txarra da, baina jendeak badaki zergatik. Israel bide guztiak ixten ari zaigu, okupazioaren garaia hobea zela sinestarazi nahi dio gure herriari, autonomia daukagunetik ahalik eta oztopo handienak jarriz. Baina satorra baino itsuagoa izan behar da, orain hiru urteko Gaza eta gaur egungoa alderatuta, aurrerapauso handiak eman ditugula ez jabetzeko.

– Zer diozu Agintaritzari leporatu zaion ustelkeriari buruz?

– Ministro batek bere etxeko beroketa sistema diru publikoarekin ordaindu duelako mundu mailako eskandalua egin da. Akatsak egon dira, baina ustelkeriarik ez. Ez behintzat hedabideek ikusarazi nahi izan duten neurrikoa.

– Baina Gobernuko ia ministro guztiek, zuk ere bai, Arafaten esku utzi berri dituzue zuen karguak, ustelkeria salaketa horiek direla eta.

– Lehendakariari erabakitzeko askatasuna emateagatik izan da. Baina ez dut uste, oraingoz bederen, aldaketarik egingo duenik kabinetean.

– Arafatek aginte osoa bere eskuetan omen du; diktadore ere deitu izan diote.

– Pertsona ona da Arafat. Orain, kontuan hartu behar da militarra dela, eta egia da militarren erara egiten dituela zenbait gauza. Baina ez da, inolaz ere, diktadore bat.

Alde egin aurretik bere prentsa arduraduna aurkeztu dit ministroak, «nahi dudan guztian» lagunduko didala aginduz. Ministerioari buruz nahi dudan informazio guztia emateko prest dagoela ulertu diot ministroari. Baina ez.

– Zer egiteko asmoa duzu Gazan? Zure gidariak izango gara –esan dit Heider 35 bat urteko

beltzaranak, bere bulegoko mahaian eserita, Salim laguntzaile burusoila, hamar bat urte zaharragoa, alboan duela.

– Hiritik kanpoko errefuxiatu esparru bat ezagutu nahi nuke bihar. Khan Younis, esate baterako –harri eta zur nago; Gobernu palestinarreko bi funtzionario nire esanetara ditut.

– Khan Younisera? Primeran! Khan Youniskoa da Salim, berak lagunduko dizu. Infernua ezagutu nahi duzu? Salimek eramango zaitu infernuko zulora! –irri karkailaz abiatu da Heider.

– Imanolek ezagutzen du infernua dagoeneko! –begi irriñoz ari da Salim–. Infernua hau da: Gaza. Zerua eta infernua baldin badaude, egon seguru gazatar guztiok zerura joango garela, infernuan ordaindu beharreko guztiak ordaindu baititugu bizitza honetan.

Infernua ez dakit, pentsatu dut neure kabutan, baina kartzela bai. Israeldarren baimen berezirik gabe Gazatik irten ezin duzuen milioi bat palestinarrontzat, autonomian bizi izanagatik autonomia bereko beste herrietarako –Ramalla, Jeriko, Hebron– giltza ukatzen dizueten gazatarrontzat, Salim, espetxe handi bat da zuen Gaza

hau, batzuetan zeru eta bestetan infernu den Gaza maitagarri hau.

Beltzetik zurira

Muturrean luma daraman Mercedes gorri (eta zahar) Ministeriokoan naramate Khan Younis errefuxiatu gunera. Sanaa itzultzailea doa txoferraren aldamenean, soineko luze eta buruko zuriekin; oso gaztea da, hogeita bost jo dizkiot. Atzeko eserlekuan Salim eta biok goaz. Ministroa naiz gaur.

Hiru errefuxiatu esparruren ondotik pasatu gara Gaza hiritik Khan Younisera, hegoalderantz, goazela: Bureij (27.500 errefuxiatu) eta Maghazi (20.000) ekialdera, Nuseirat (51.000) mendebaldera. Mendebalderago, itsasertzean urrutira, laugarren bat begiztatu dugu: Deir El Balah (17.000). UNRWAren datu ofizialak dira hauek, baina jakina da milaka errefuxiatu erregistratu gabe daudela.

Kanpo populatuenak Jabalian (89.000) –iparraldean, Israelgo mugatik bertan–, Rafan (79.000) –hegoaldean, Egiptorekin mugan– eta Gaza hirian (68.000) –Al Shati, hondartzako esparrua– daude. Ondoren dator Khan Younisko

errefuxiatugunea, 54.500 biztanlerekin. Gainera, Khan Younis hiriko 73.000 bizilagunetatik gehienak errefuxiatuak dira. 400.000 errefuxiatu Gazako zortzi esparruetan bizi dira, eta beste 300.000 hirietan. Errefuxiatu ez diren gazatarrak 250.000 inguru dira.

Salim nire laguntzailea, hain zuzen, hirian –Khan Younisen– bizi den errefuxiatuetako bat da. Tel Aviv ondoko Jaffatik alde egin behar izan zuten Salimen gurasoek 1948an, etxea eta laranjondoz betetako lurrak utzita.

– Esku hutsik heldu ziren Gazara, eta hemen segitzen dugu ondorengoek. Aita-amak hil ziren. Etxearen eta lurren jabetza-agiriak gordeta ditugu, eta etxea hondatuta baina osorik dago orain-dik. Neure begiekin ikusi nuen duela hamar urte.

Hirian egin dugu lehenengo geldialdia, Arazo Sozialetarako Ministerioaren Khan Younisko ordezkaritzan. Lau gizonezkorekin eseri naute. Salim, Sanaa eta nirekin zazpi.

– Tea edo kafea?

– Ezer ez. Ondo nago –esan diot Sanaari, itzul dezan.

Ez du ezer itzuli, eta niri begira, ahopeka:

– Baietz esan behar duzu!

– Ondo da. Ur pixka bat, orduan.

Tea ekarri didate, eta tea amaitu baino lehenago kafe katilua jarri didate aurrean eta, bero zahar honen kontrako ur freskoa eskertuko nukeen arren, kafe beroa ere irentsi dut, jendetasunaren eztarritik.

Errefuxiatuguneko miserien berri eman dit ordezkaritzako arduradunak, Salah Hamdanek: familiak handiak dira eta gelak oso txikiak; zortzi-hamar lagun bizi ohi da gela bakoitzean eta batzuek lastairarik ere ez dute; sukalde eta garbitasun tresneriarik ez dago; estoldarik ere ez errefuxiatugune osoan; kutsadura handia dago eta kiratsa halakoa da; neguan asko sofritzen dute, euria teilatuetan barrena sartzen delako; euri jasa handietan kanpoko bidexkak erreka bilakatzen dira; ezindu asko dago famili barneko ezkontzak ohikoak direlako; gizon bakoitza hiruzpalau emakumerekin ezkontzen da eta, beraz, aita baten seme-alaba kopurua biderkatu egiten da...

– Eta zuek, zenbat emazte eta seme-alaba dituzue?

Emazte bana dute. Boston artean (Salim barne), 34 seme-alaba: zortzi, zortzi, zortzi, sei eta lau.

– Ezkonduta al zaude, Imanol? –Salimek.

– Ez.

– Hemen daukazu aukera! Hiruzpalau eraman ditzakezu Espainiara! Han bakarrarekin etsi beharko duzu bestela...

– Baina zuek bana duzue, badaezpada ere.

– Bakarra ere gehiegi da!

Ulertu ez ditudan eta itzuli ez dizkidaten komentarioekin nahastu dira barreak.

Intifadan gorriak pasatu zituzten Khan Younisen. Altxamendua bereziki suharra izan zen errefuxiatu esparruetan eta, ondorioz, errepresioa latzagoa. Intifadako urteetako hilabete gehienetan setiatuta egon zen errefuxiatugunea.

– Jende asko, ume asko, betirako ezinduta utzi dituzte israeldarren balek.

– Okerrena umeak zakarretan jatekoaren bila ikustea zen. Janaririk ez zen heltzen eta errefuxiatuak goseak zeuden. Asko hil ziren kutsaduragatik, zaborrak pozoinduta.

Israeldarrek Gaza menderatu zuteneko 1967ko gerraz ere gomutak bizi-bizi dituzte. 18-22 urte bitarteko hogei bat gazte hormara eraman eta tiroz nola josi zituzten ikusiak daude. Gehienen familiak sakabanatu egin ziren orduan, Egiptora ihesi joan baitziren asko, eta oraindik banatuta segitzen dute batzuek.

Gaur egun behar gorrienean bizi direnen kasuak banan-banan aipatzen hasi da Salah Hamdan, fitxa batzuk baliatuz: Aatia, 48 urte, buruko gaitza duena, bi emazte, 17 seme-alaba, horietako hiru atzeratuak, lau gela dituzte eta astoa ere etxean bizi da; Adel, 35 urte, itsua, emazte bat, zortzi seme-alaba, hiru logela...

Zerrenda osoa pazientziaz entzun dut, ondoren errefuxiatugunea bertatik bertara ezagutzera abiatuko garelakoan.

– Kiratsa handia da –gaztigatu didate.

Khan Younisera ekarri gaituen Mercedesa taxia zela jabetu naiz errefuxiatugunera abiatzeko 127 txikian sartu garenean. Errefuxiatu esparruak bezain populatua doa automobila, bost la-

guneko ordezkaritzaz: Ministerioko bi langile –batek txofer egiten du–, Salim, Sanaa eta bostok.

Autoa utzi eta errefuxiatu esparrura zangoen gainean sartu garenean, kirats trinkoa izan da lehenengo kolpea: giroa astuna da, zikina. Haurrak izan dira bigarren kolpea: sartu orduko hogei bat ume koskor inguratu zaizkigu arropa zarpailetan, oin hutsik gehienak. Pobrearen aberastasuna, haurrak.

Dena bihurgune diren metro erdi zabalerako bidezidorretan barrena joan gara, ume errukarrien ilara luzea atzean dakargula. Egonean dago jendea, etxoletako hormetan bizkarra jarrita, *salam aleikum* eginez. Etxeak ez dira etxe. Etxolak dira, etxeskak, txabolak.

Begi-bistakoa dena errepikatzen dit Sanaak:

– Ikusten? Egoera oso txarra da. Oso txarra.

Txarra denez. Jo eta ma nago. Zisjordaniako errefuxiatuguneak auzo erresidentzialak dira honen aldean.

– Hemen ez dago kalerik, jabetzen zara. Bide zabal bakarrak bulldozer israeldarrek etxeak eraitsiz zabaldutakoak dira; bestela ezina baitzu-

ten, Intifadaren garaian, tankeek sartzea –aurpegiera goibela du Salimek sartu garenetik; ahitu zaio txantxarako soka.

Intifada baino lehenagokoa da asmakizuna: Ariel Sharonek, 1971n, Israelgo Armadako Hegoaldeko tropen komandante zelarik (Gazaren ardura ere bazuen, beraz), errefuxiatu esparru liskartsuetako kale estuetan ibilgailu militarrek sartzerik ez zutela-eta, guneak goitik behera zeharkatzen zituzten kale aski zabalak egin zituen etxolak suntsituz. Geroztik, berriro etxeskaz bete ziren militarrek sortutako kale horiek, baina istiluen txingar zaharrak hauspotu direnero, metodo bera erabili dute israeldarrek eremuotako sua itzaltzeko.

Mohareb Sahlul zaharraren eta bere bi emazteen etxera etorri gara. Bizileku txiroa da, solairu bakarrekoa, gainerako guztiak bezala. Tunika zuri luzea eta durbantea daramatza 56 urteko Moharebek. Askoz zaharragoa ematen du, hortz asko falta zaizkiolako akaso. Koloredun tunikak dituzte bi emazteek, Mohareb baino askoz gazteagoa bietako bat.

Ohartu naizenerako, bitik hamar urtera bitarteko 30 bat hankagorrik inguratuta gaude, metro banako zabalera ozta-ozta duten bi bideen gurutzean, Mohareben etxearen aurrean. Atarira sartu garenean haurrak atzetik etorri zaizkigu, baina emazte gazteak kanpora bota ditu. Mohareb bere istorioa labur-labur azaltzen ari zaigula, nondik atera diren ez dakidan dozenerdi bat emakume hurbildu zaizkigu pixkanaka.

Sei urterekin heldu zen Khan Younisera, 1948an, orain hiri israeldarra den Beershebatik alde egin behar izan zuenean.

– Lurrak genituen han, ondasunak, eta begira orain nola bizi garen.

«Etxea» erakutsi didate. Bi gela biluzi: altzaririk ez, horma hotz bipilak, eta zenbait manta bazter batean pilatuta. Bost seme-alaba bizi dira etxean (beste hiru kanpoan). Lehengo aldean oso ondo daude: bi gelatan zortzi lagun bizi dira orain, hamalau gela bakarrean lehen.

Inguratu zaizkigun emakumeek zer esana badute nonbait eta arian-arian elkarrizketan nagusitzen joan dira. Berritsu ari dira, baina gutxi

itzultzen du Sanaak. Ministerioko laguntzaileetako batek lagundu dio:

– Hil egin nahi duela esaten ari zaizu hori –esan dit hizketan ari den, ari zaidan, andreari begira.

Airea gero eta astunagoa egiten zait, arnasa hartzea zail egiteraino. Egonezina sortzen dit europar txepel sentitze honek, eta sentipena hats hartzen dudan bakoitzean okerragotzen da. Kiratsa baino zerbait gehiago bailitzan. Eguzkiak erre, izerdiak ito eta kiratsak zorabiatu, hurrengo oporretarako leku hoberik aukeratuko ahal duk, kaiku horrek.

Berriketa, espantu eta lanturu artean, Salim buruarekin keinuka ikusi dut bat-batean. Goazen. Baiezkoa egin diot neuk ere, buruaren zirkin batez.

Kanporantz goazela, hil egin nahi duen emakumea ondoan etorri zait, isildu gabe, erreguka bezala.

– Bere etxea bisitatu nahi al duzu? –galdetu dit Sanaa gazteak.

Ez dut nahi.

– Nahi al du berak guk bere etxea bisitatzea?

– Hori eskatzen ari zaizu.

Gela bakarra da etxea, izkinan pilatuta dauden edredoi moduko batzuk eta koltxoiak. Hamabi lagun bizi omen dira. Hitzarekin hitza janez ari zait emakumea, hitzerdirik ez diodala ulertzen konturatu gabe, eta inork ez dit jada ezer itzultzen. Arreta jarri besterik ezin dut egin, eta erretolika irudikatu. Katiluak lurretik hartu eta erakutsi dizkidanean, jan ere gela berean egiten dutela esan didala erabaki dut. Bi egunetik behin jateko ere, nahiko lan. Gelaren kanpoan kanpingas baten antzeko tramankulu zaharrari begira mintzatu zaidanean, «hau da gure sukaldea» ulertu diot.

Nahikoa eta gehiegi ikusi eta entzun dudala erabaki du Salimek, eta bagoaz berriro bere iniziatibaz. Beste emakume batek ere bere aterpea erakutsi nahi digu, baina nire kideek kanporako bidea hartu dute.

– Zakurrak hobeto bizi dira Europan, errefuxiatuak Gazan baino.

Jerikon eguzkiak erre egiten duela bezain egia, Salim.

Ume dohakabeek inguratuta goaz berriro, segizioan. Nire neurrikoak izan daitezkeen sandaliekin doa 9 urteko bat. Nire aurrean ia zapaldu dudanak 3 urte izango ditu; arreba «zaharrarekin» doa, 6 bat urte. 127an sartu garenean, agur egin diegu umeei, eta agur egin digute umeek, hamabost bat une horretan.

– Kazetaria zarela esan diegunean euren salbazioa zinela uste izan dute. Horregatik erakutsi nahi zizuten denek etxea –argitu dit Salimek, oraindik aldarte ilunean.

Fartsante bat naiz.

Badakit laguntzaile ditudan palestinarrek ez dutela kolonoen asentamenduetan sartzerik. Nire kasa joango naiz.

– Baina gero moldatuko al zara Gazara itzultzeko? Nahi baduzu non edo non zain geratuko natzaizu.

Salimen borondateak ez du mugarik. Ezetz. Baina ez dago lasai: koadernoa kendu eta «Gazara joan nahi dut» idatzi dit arabieraz.

– Badaezpada ere. Badakizu, hemen taxista gutxik ulertuko dizute ingelesez.

Khan Younisko irteeran dago Kfar Durom asentamendua, Gaza lerroko 19 kokaguneetako bat. 5.000 kolono bizi dira 19 gune hauetan banatuta. Gazako lurraren herena hartzen dute komunitate juduok eta inguratzen dituzten segurtasun eremuek; kostaren herena ere juduen mende dago. Lurraren beste bi herenetan bizi dira palestinarrak. Milioi bat.

Gaza hirirako bidean dago Kfar Durom eta ia ateraino eraman naute lagun palestinarrek, sheerut taxian. Asentamendura heldu baino ehun bat metro lehenago palestinarren kontrolean gelditu gaituzte. Soldadu itxura duten zortzi polizia dira, eta jeep bat. Salim eta biok jaitsi gara.

Jeepeko irratiz «beste aldearekin» komunikatu da polizia palestinarren burua, eta istant batean soldadu israeldarra agertu da auto batetik. Negoziazioetan ari dira bi aldeak eta Salim, nire pasaportea eta kazetari agiria eskuz esku darabiltzatela. Israeldarrak paperak itzuli dizkit, OK esanez, baina soldadu israeldarrak ez du

nahikoa autoritate nonbait, eta palestinarra irratiz baieztapena eskatzen ari da. Israeldarra ere irrati bidezko berriketan sartu da, gogorra da negoziazioa, baina azkenean lortu da akordioa. «Sar-dadila-gizajo-hau» hitzarmenean bat egin dute israeldarrek eta palestinarrek.

Txalet moduko etxeek eta lorategi berde zabalek osatzen dute kokagunea. Etxeek elkarren antz handia dute: horma zuriak, bi isuriko teilazko teilatuak, lorategi txiki bana atarian. Auto gutxi batzuk aparkatuta daude etxe ataritan, baina asentamendutik irteteko baino ez dituzte erabiltzen, oinezkoentzako bide estuak baino ez baitaude urbanizazio hesituaren barruan.

Beltzetik zurira baino alde handiagoa dago Khan Younistik Kfar Duromera. Infernutik zerura ordu laurdena automobilez.

Ez du ematen dendarik edo jendeari irekitako bestelako lekurik dagoenik. Hamar bat minutu egin dut paseoan inorekin topo egin gabe, etxe atarian zabaldutako izara tolesten gizonezko bat aurkitu dudan arte. Kippa beltza, bizar luzea, praka beltzak eta alkandora zuria daramatza. Gerrian pistola duela jabetu naiz gerturatu

natzaionean. Ingelesez ez du hitz egiten baina espainolez egiten duen emakume bat, Pnina, non bizi den adierazteko moldatu da.

– Pnina zara?

30 bat urteko emakumeak zabaldu dit atea. Ultraortodoxoa hau ere, ilea estaltzeko daraman kapelak adierazten duenez. Presaka dabil, baina asentamenduko gorabehera batzuen berri emateko prest dago.

– Bost minutu, OK?

– Hamar, OK –erantzun diot txantxetan, hamabost izango diren esperantzan.

Egurrezko mahai baten inguruan eseri gara, egurrezko eserlekuetan. Altzari gutxi dago, eta umeen panpina pare bat besaulki batean botata. Telebistarik edo musika aparailurik ez.

Pnina Naor jatorri poloniarreko judua da, baina gurasoek Kolonbiara emigratu zuten II. Mundu Gerraren ondoren, 1944an, eta bera han jaio zenez, espainolez ere mintzatzen da. Zortzi urte zituela, 1978an, etorri zen familiarekin Jerusalemera. Orain zortzi urte, senarrarekin, Kfar Duromera.

– Kokagunea 1948an sortu zen, baina gerraren ondoren desegin egin zen. 1967ko gerraren ostean birsortu zuten zortzi familiak. Gu hamazazpigarrenak izan ginen, orain 43 familia gara.

– Gauza bat da Kolonbiatik Israelera etortzea. Baina beste bat, Gazara etortzea. Zergatik?

– Senarra militarra dut eta Gazan izan zen lanean. Gazarekin maitemindu egin zen eta esan zuen: lurralde hauek guk hartzen ez baditugu, arabiarrek hartuko dituzte. Eta gu geu ez bagara etortzen, ez da inor etorriko.

Oso gaztelera bitxia egiten du Pninak: hebreerazko hitz asko tartekatzen ditu, ulertzea oso zail egiteraino batzuetan.

Arabiarrekin, jakina, ez dute batere harremanik.

– Ezta nahi ere –esan dit errezeloz.

– Baina eraikuntza lanetarako-eta arabiarrak etorri izan dira, ezta?

– Orain ere lau arabiar ari dira lanean, sinagoga berria egiten. Baina salbuespena da, behin-behineko lanetara baino ez dira etortzen.

Argazkia atera nahi izan diot Pninari etxe aurrean, baina ez dit baimenik eman.

Haurra besoetan duela topatu dut, etxe atarian, haredi itxurako beste gizonezko bat. New Jerseytik etorri zen emaztearekin orain sei urte Uri. Luxuzko kartzela txiki dirudien kokagune honetara etortzearen zergatiaz galdetu diot Uriri ere:

– Hau baino leku lasaiagorik izango da Israelen...

– Zer bilatzen duzun. Hau oso leku barea da. Begira ezazu ingurura: lorategiak ditugu, trafikorik ez, auzokide guztiak ezagunak, umeak lasai ibiltzeko moduko espazio zabalak... Nekez aurkituko duzu munduan leku erosoagorik –besoetan duen haurrari begiratu dio Urik, lotan segitzen duela ziurtatzeko.

Praketako gerrian sartua du pistola Urik ere. Beste erremediorik ez duelako omen darama arma.

– Ni ere ez naiz ohitzen. Xelebrea egiten zait, adibidez, banketxean ilaran gauden guztiak pistola daramagula ohartzen naizenean. Baina, tira, eraman beharra daukagu. Beti dago erasoko gaituzten arriskua.

Osloko akordioekin abiatu zen prozesu politikoaren ondorioz Gazako asentamenduak inoiz utzi beharko dituzten beldurrik ez du Urik, arrisku horren berri sarri entzun duen arren.

– Benetako gerra gertatu beharko litzateke. Alegia, asentamenduko atean eduki beharko genituzke tiroka, gu hemendik ateratzeko.

Hitz gutxitan azaltzeko moduko arrazoiak ditu Urik Gazako lurraldean iraun nahi izateko:

– Hau lur israeldarra da, eta lur israeldarra juduen lurraldea da.

Uhala!

Kaki koloreko denden kanpalekua begiz jo dudanean gelditzeko eskatu diot Olibondoen Mendian gora nakarren taxi gidariari. 57 denda dira, hiru ilaratan paratuak, Olibondoen Mendiko malda kasik olibondorik gabean. Etxegabeen etxeak dira.

57 familia bizi dira Jerusalemgo Sawaneh kanpamentuan, denda bana aterpe dutela. Israeldarrek etxea eraitsi diete batzuei; Jerusalemgo nortasun agiria erretiratuz hirian bizitzeko eskubidea kendu diete beste batzuei. «Jerusalemgo garbiketa etnikoa» salatu eta jaioterrian bizitzeko eta eraikitzeko eskubidea aldarrikatzeko erabaki dute 57 familiok Sawaneh auzoaren ondoko aldats egarritu honetan ostatu hartzea.

Eguerdia da, eguzki izpiek dendak zulatzerainoko indarra dakarten ordua, eta arimarik ez da denden gerizaren babesetik kanpo. Gizonak lanean eta umeak eskolan izango dira, denda barrenetan emakumeak eta haurtxo txikiak baino ez daude eta. Haitzaren Domoaren urrez-

ko kupula keinuka dugu Jerusalem zaharraren erditik, dir-dir bizia eginez.

Lanak eman dizkit ingelesez egiten duen inor aurkitzea baina, behin Zahira gaztea itzultzaile egitera prestatu zaidanean, aise topatu dugu etxea nola eta zergatik eraitsi dioten azalduko didan familia: Al Mimitarrak.

Kamal familiburuaren konpainian dendara etorri garenean otoitz egiten ari da Subheya emaztea, belauniko, gorputza eta besoak lurrera eramanez, Mekara begira. Isilik ari da. Barrura egin dugu hala ere Kamalek, Zahirak eta hirurok. Alarekikoak amaitu arte zain egon gara, gu ere isilik, hautsez betetako alfonbrak estaltzen duen lurrean eserita. Gozatutako kafe beltz bana atera digu Kamalek.

Musua zimurtua du Kamal zaharrak. Zuriak ditu soinekoa eta burua estaltzen dion txanotxoa. Subheyak, urte mordoska gazteagoa, kolore bizitako soinekoa darama eta zapi berde batek ezkutatzen dio adatsa. Senarra baino handiagoa eta, itxura batean, indartsuagoa. Kamalen bigarren emaztea da.

Zahira «itzultzailea», 30 baino askoz gehiago izango ez dituen emakumea, aldamenean eseri zait. Buru-lepoen babeserako daraman zapi zuriak ez du lortzen Zahiraren edertasuna ezkutatzerik. Bere begiradak eta irribarreak gatibatuta naukate.

Errefuxiatua da Kamal: 26 urte zituela utzi zuen Lod jaioterria, 1948an juduek herria menderatu zutenean, eta Jerusalemera etorri. Shufat auzoko etxe batean bizi izan da geroztik, ugaltzen joan den sendiarekin. Seme-alabak ere ezkontzen hasi, eta etxekoak hogei lagun izatera heldu ziren, seme-alaba, suhi-errain eta biloben artean. Bi logelako etxea da.

– Nahikoa diru aurreztu genuenean, etxe ondoan daukagun lur zatian bi etxe eraikitzea erabaki genuen.

Jerusalemen eraikitzeko baimena lortzea, arabiarra izanik, ez da erraza, ezinezkoa ere bai batzuetan, eta baimenik gabe eraikitzen hasi ziren Al Mimitarrak, urte hasieran.

– Sei hilabete behar izan genituen etxeak egiteko, eta diru asko, 160.000 xekel (7 milioi pezeta hor nonbait), aurreztutako guztia.

Abuztuaren 13an, amaitu berriak zeudela, behera etorri ziren etxeak bulldozerren kolpeen poderioz. Baimenik ez zutelako etxeak suntsitu egingo zizkietela jakinarazi zien Jerusalemgo Udalak bi egun lehenago. Lau eguneko epea eman zieten, etxea husteko, baina bi egunera etorri eta ustekabean harrapatu zituzten. Kamal ez zen bertan, Subheya bai.

– Erotu beharrean nengoen. Negarrez, kurrixka batean, gure etxeak nola txikitzen zituzten ikusten ari nintzen bitartean –besoak gora eramanez orduan bizitakoa berritu du Subheyak, begiak sututa.

Abuztuaren 13a gogorra izan zen Shufateko familientzat, ez Al Mimitarrentzat bakarrik. Hauen bi etxeak ez ezik, beste hiru ere eraitsi zituzten makinek. Bost etxeak birrintzeko ordubete behar izan zuten bulldozerrek.

– Baina zer nahi dute egitea, baimenik ematen ez badute? –patxadan jardundako Kamal ozenago eta bizkorrago hitz egiten hasi da, ia oihuka bere emaztearen antzera–. Ez gure aitonamonek turkiarren mende, ez gure gurasoek bri-

tainiarren agindupean, jasan zuten gu jasaten ari garena!

Agintari israeldarrez zer iritzi duen azaltzeko esaldi bakarra aski du Kamalek:

– Netanyahuk ez du bihotzik.

Ez Netanyahuk, ez Olmertek, pentsatu dut neure kabutarako. Ehud Olmert Jerusalemgo alkatea da, Likud alderdi eskuindarrekoa Netanyahu bezala, baina gobernuburua bera baino gogorragoa da palestinarrekiko. Bera da Sawaneh kanpamenduko bizilagunek salatzen duten «Jerusalemgo garbiketa etnikoaren» arkitektoa.

Jerusalemgo udalerriaren lurretan palestinarrek baimenik gabe eraikitako 800 etxe baino gehiago atzemanak dituztela eta guztiak eraitsiko dituztela ziurtatu zidan David Cassuto alkateordeak. Hitzak eta ekintzak batera doazela erakutsiz, azken hilabetean bakarrik palestinarren bizileku ziren berrogeita hamar etxetik gora suntsitu dituzte bulldozer israeldarrek. Jerusalemgo Udalaren aginduz bota dituzte gehienak, Netanyahuren Gobernuaren erabakiz besteak.

Etxeen demolizioa kontu zaharra da, ez horregatik iragana, palestinarren zoritxarrerako.

1993an Osloko akordioak hitzartu zituztenetik, palestinarren 315 etxe bota dituzte agintari israeldarrek Jerusalemen eta Zisjordanian. 92 baino ez lehenengo hiru urteetan, laboristak agintean zeuden garaian alegia, eta 223 etxe urte bakarrean, 1996ko maiatzean Likudek Gobernua hartu zuenetik 1997ko uda honetara bitartean.

Intifadaren urteetan ere ohikoak ziren palestinarren etxeen eraisketak. Orduan «segurtasuna» zen arrazoia: israeldarren aurkako ekintza militarrak leporatzen zizkieten palestinarren etxeak suntsitzen zituzten. Zure semea Fatah-ko kidea zela jakiten bazuten, zure etxea lehergailuekin hankaz gora bota eta kito.

Semea hobeto hezi besterik ez zenuen.

Bere dendan kafea hartzera gonbidatu nau Zahirak, Al Mimitarrak agurtu ditugunean.

– Jerusalemen bizitzeko eskubidea kendu diguten jerusalemdarron istorioa interesatzen al zaizu?

Baietz esan diot, interesa beste zerbaitek piztu didala aitortu ezinda.

– Ongi etorri –esan dit bi aldiz, denda atarian barruko bi umeei begira gelditu naizenean.

4 urte ditu Ahmedek eta 9 Riadek. Eskolara joana da 11 urteko alaba, Samar. Lehenengo umea 18 urterekin izan zuela esan dit. Aitaren batean atera ditut kontuak: 29 urte ditu.

– Erretzen duzu? –tabako paketea eskaini dit ustekabean.

– Ez. Zuk bai? Hemen ez da ohikoa emakumezkoek erretzea.

– Baina ez dut jendaurrean erretzen; gizonezkoekin ezin dut. Hemen gizonek emakumeekin... ez dute hitz egin ere egiten. Baina –ezpain artean ipini du zigarroa–, zu ez zara gizon arabiarra, ezta?

– Ez, arabiarra ez naiz –inbidiaz begiratu diot zigarroari.

Senarra jordaniarra du. Jerusalemen jaioa, oinarrizko ikasketak egitera joan zen Jordaniara eta Amman-era ezkondu. Jordanian bederatzi urte egin ondoren, Jerusalemera itzuli ziren.

– Senarraren gurasoak hil egin ziren, eta han ez nuen inor, ez genuen inor. Nire familiarengana etorri ginen.

Gizonezko bat dendaren atera agertu da, Zahirari zerbait esatera. Zaharra da, bibote zuri handikoa. Xelebre ematen dio, jantzi arabiarrak nagusi diren ingurune honetan, bisera amerikarrak. Esan beharrekoa esanda, alde egin du.

– Erre egin naiz! –ziztu batean zigarroa ahora eraman eta eskua astintzen ari da Zahira.

Ordura arte ez naiz ohartu zigarroa eskumuturraren parean, soinekoaren besoak estalita, ezkutatuta eduki duela! Ez diot ezer esan, istilu handirik atera gabe berriro pipatzeari ekin dio eta.

Ahmed txikia besoetan hartu du, negarrez hasi denean. Ez naiz ohartu ere egin Riadek noiz alde egin duen, baina dagoeneko ez da gurekin.

– Etxerik ez duzue, Zahira?

– Errentan bizi ginen, baina 600 xekel ordaindu behar nuen gela bakarragatik! Senarrak ez du lanik egiten. Nola ordainduko dut hori? Gela bakarra bostontzat, eta hori ere ezin or-

daindu. Gurasoen etxera joan behar izan genuen, eta estuago bizi. Orain hemen gaude.

Urtetan Jerusalemdik kanpo bizi izan delako nortasun agiri jerusalemdarra kendu dieten milaka palestinarretako bat da Zahira. Jerusalemdarra izanik, legez ez dauka Jerusalemen egoterik ere.

Gustura segiko nuke Zahirari begira, baina ez dakit zein den neurria, noiz hasiko naizen enbarazu egiten. Umeekin argazkia atera diezaiokedan galdetu diot. Baietz. Argazkia atera eta bostekoa luzatu diot.

Oso ahul estutu didazu eskua.

Argazkiak dira aitzakia. Ez zaizkit oso onak atera, baina Sawaneh-ra itzultzeko nahikoa arrazoi badut.

Negarra entzun dut dendara hulbildu naizenean. Ahmed da, dendaren erdian etzanda, bakarrik. Zahiraren arrastorik ez. Beldurtu egin naiz, argazkiak auzoren bati emanda etsi beharko dudalakoan, baina beheko errenkako dende-

tako batetik aurpegi ezaguna agertu da, aurpegi atsegin ezaguna.

– Argazkiak ekarri dizkizut. Zuretzat dira –bi kopiak luzatu dizkiot.

Eskuartean hartu eta denda barruko lagunei erakutsi dizkie, ni nor naizen azaltzearekin batera, susmatzen dut. Arrapaladan joan dira argazkiak eskuz esku tertulian-edo zeuden emakumeen artean. Eskerrak eman dizkit, argazkiak berriro hartu dituenean. Joateko imintzioa egin dut, baina entzun nahi nuena entzun dut:

– Kafe bat hartuko duzu, ongi etorri dendara.

Lagunartea utzi eta bere dendara eraman nau. Dendako bi koltxoietako batean eseri gara, ni aurrena berak hala eskatuta, Ahmed txikiak zotinka segitzen duen bitartean. Herengungo arroparekin dago Zahira: praka koloredunak, alkandora laranja eta beltza, buruko zuria. Ile urdindu batzuk ikusi dizkiot buruko zapitik ihesi.

– Zergatik ari da negarrez? –ez daukat etxe suntsiketez eta Jerusalemen judaizazioaz hitz egiteko ez gogorik ez asmorik.

– Zergatik egiten duzu negar? –galdetu dio bi aldiz umeari ingelesez, umeak barik nik ulertzeko–. Beti ari da negarrez! Auskalo zergatik!

– Egin froga argazkiak erakutsiz, ea bere burua ikusita lasaitzen den.

Ezta horrela ere. Esku-kolpe batez begi-bistatik kendu ditu Ahmed amorratuak argazkiak. Utikan!

– Ez duzu erretzen? –paketea atera du; edo ez da gogoratzen, edo erretzen duen bakoitzean galdetu beharra duela iruditzen zaio.

Bi emakume sartu dira, batek kafea dakar, eta gure aurrean eseri dira. Zahiraren kanpin-gasean, etxeko sukaldean, berotzen jarri dute kafea. Ez dit izenik aipatu, baina batek 42 urte eta bederatzi ume eta besteak 34 urte eta beste hainbeste ume dituztela esan dit Zahirak. Dendetan bizi dira hauek ere.

Denda parez pare irekita dago, baina lasai arraio ari da Zahira zigarroaren kearekin jolasean. Hamar zigarro erretzen ditu egunean. Utzi egin nahi du.

– *Uhala!* Baina arazoak konpontzen dituda-nean utziko dut. Arazo gehiegi ditut orain erre-tzeari uzteko.

Lehenago ere entzun diot «uhala!» Zahirari. Galdetu diot, eta susmatzen nuena da: «Ene Jainkoa!» moduko bat, zerbait gertatzea nahi du-gunean esatekoa: «Oxala!», alegia. Gustatu zaio guk ere hitz arabiar hori erabiltzen dugula jaki-tea.

Espainian musulmanak garen galdetu dit. Ezetz, kristauak, katolikoak. Uste dut Jesusen izena esan didala arabiarrez, galdetuz, baina ez diot ulertu. Gurutzea margotu dit. Baietz egin diot.

– Guk Mahoma dugu. Badakizu nor den?

11 urteko alaba sartu da, Samar, eskolako uniformearekin. Gona labur urdina eta praka ba-keroak barrutik. Horrelaxe ikusi ditut beste nes-kato asko ere ikasturte hasiera honetan. Zango biluziak ez dira agerian ibiltzekoak.

– Ilargira joan zen lehenengo gizonak Al Aqsa meskitako otoitzak entzun zituen ilargitik. Gero Jerikora etorri zen eta ahots berbera, otoitz ber-berak, entzun zituen meskitan. Orain musulma-

na da. Muhammad Ali ere musulmana da, eta lehen ez zen! –eskuekin boxeo pixkat egin du Zahirak, laguna nori buruz ari den adierazteko.

– Musulman bihur zaitezen opa dizula esan dizu nire adiskideak. Nik ere horixe opa dizut, bihotzez –eskua bularrera eraman du.

– Badakit zer egingo dudan! Ilargira joango naiz, eta Al Aqsako otoitzak entzuten baditut, musulman bihurtuko naiz.

Barrez itzuli die adiskideei ateraldia, baina ez dut lortu elkarrizketa ur txikietara ekartzea. Dendan zintzilik duen Koran txiki eta zaharra hartu eta eskura eman dit. Zabaldu dut, begiratu eta, zer egin ez dakidala, itzuli egin diot.

– Ez naiz musulmana, baina atsegin zaituztet musulmanak.

Eskuratu duen Koranari musu eman eta bere lekuan utzi du.

– Musulman izan beharko zenuke.

Aurrez aurre eduki ditugun bi emakumeak altxa eta badoaz. Agur esan diote Zahirari. Niri ere bai, zeharka, herabe. Gazteenak buruko zapia zabaldu egin du, kalera atera aurretik hobeto jartzeko, eta adats erabat beltza agerian

izan du bost segundoz. Ez diot begirik kendu. Biluzik ikusi dut.

– Egun osoa kanpamenduan egiten duzu? Jerusalemera jaitsi gabe?

– Bai. Bero handiegia egiten du. Hobeto nago itzalean, eta haurrak zaindu beharra daukat. Senarrak eta anaiek ekartzen didate behar dudan guztia. Zaharrena egunero etortzen da, dirua edo janaria ekartzera.

– Egunero?

– Zaharrena bai, oso zintzoa da. Taxista. Arratsaldero bostetan etortzen da, janaria ekartzera.

Laurak pasatxo dira, bi ordu daramat hemen. Ez dakit anaia zaharra etortzen denean hemen egon beharko nukeen.

– Senarra Jerusalemen izaten da egun osoan?

– Goizean alde egiten du eta gauean etortzen da, lotara. Kanpoan izaten da beti, eta hobe horrela. Hemen denean okerrago izaten da: beti haserre dago, umeak jotzen ditu... Nahiago dut bera ez egotea.

Bozgorailuetatik otoitzak entzun dituguneanerlojuari erreparatu dio Zahirak. Laurak eta laurdeneko errezuen ordua da; arratsaldeko bigarren otoitzaldia, eguneko laugarrena.

– Otoitz egin behar duzu? –ospa egiteko tenorea heldu zaidalakoan nago.

– Baina aurretik eskuak, orkatilak, burua eta lepoa garbitu beharra dauzkat, eskua ukitu didazulako.

– Eskua eman dizudalako dena garbitu behar? –argazkiekin batera bostekoa ere eman diodala akordatu naiz.

– Islamak hala eskatzen digu.

– Barkatu, orduan.

– Lasai, nire senarrak ukituz gero ere garbitu egin beharko nituzkeen. Aitak edo nebek bakarrik uki nazakete gizonen artean.

Ea berriro noiz ikusiko galdetu diogu elkarri, alde egiteko asmoa agertu diodanean.

– Igandean banoa nire herrira. Helbideren bat bazenu, hurrengo urteren batean itzultzen naizenean bisitatuko zintuzket.

– Ez daukat batere, ez dakit denda hauetan noiz arte izango garen. Hurrengo urteetan hemen ez izatea espero dut!

– Uhala! –erantzun diot broman, agur tristeari kontra egiteko–. Bostekoa eman diezazuket? –badakit baietz.

– Bestela ere garbitu egin behar ditut!

Nik ez ditut garbituko, Zahira.